



Jabier
TIRAPU
Neuropsikologoa

Neurozientzia Klinikoa
Saria jaso berri du.

→ 3

Inauteriak

Areso, Sunbilla, Ituren, Aurtitz,
Zubieta, Arantza, Oronoz, Igantzi

ARKUPEAK → 32

Mendi Taldea sortu
dute elkartearen barne

GOIZUETA/LEITZA → 35-36

Santa Ageda bezpera
kantuan ospatuko dute

BERA-SARA → 49

Presoen aldeko mendi
martxa otsailaren 4an

KIROLA → 52

Herri Kirol Jolasetan izena
emateko epea zabalik

Honelako etorkizuna nahi dute euskarazko hedabideontzat... beltz-beltza

Euskarabideak eta Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak 21 hedabideri egingen digu kalte eta horietako batzuk arriskuan dute euren iraupena, Ultzamako Esan-Erran irratiak konparazio batera.

Euskara erabiltzen dugun hedabide guztioi diru-laguntza osoa kendu digute errotik baina espainolez ari diren 3 telebista pribatuei aurten 2.000.000 euro banatuko dizkie Nafarroako Gobernuak. Batzuentzat badaude milioiak, eta euskaraz ari garenontzat zentimorik ere ez.

Balio beza keinu honek gure protesta eta gaitzespen tinkoa agertzeko.

C.A.P. ZENTROA

HOMOLOGATUA
HASIERAKOA-JARRAIA
MERKANTZIAK
BIDAIARIAK



TRANSPORTISTA

TITULUA lortzeko
10. Ikastaroa hasiko dugu

Araudia aldatu baino lehen
azken aukera izanen duzu.
APROBETXATU!

Azterketa: MAIATZA bukaeran

Ikastaro intentsiboak:

- Asteburuetan 8 orduz
- Astegunez egunero 3 orduz

**Klaseetara joanez gero,
aprobatu kopuru handia**

Iruntarrea, 54 - IRUÑA | T. 680 11 06 51 (Migeltxo) - 948 26 13 15 (CAP zentroa)

BERA AGENDA OTSAILA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago:
012 telefonozan www.berakudala.net



11

larunbata

KALDEREROAK - Hasiera 19:00etan
ENTSAIOAK: Otsailak 9 (ortzeguna) eta 10 (ortzirala)
20:00 - Musika Eskolan

15

asteazkena

INAUTERI BESTA

16:30 - Kalejira herrian barna, zahar etxea bisitatuz
Ondetik, entzunaldia, mozerro lahiaketa eta berandua
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskola

ORTZEGUN GIZENA

15:45 - Suhiltzaileen Parketik Eztegaro pilotalekura
16:30etan EUSKARAOKEA Eztegaro pilotalekuan
OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, 16:00etan Eztegaro pilotalekuan
Antolatzailea: Berako Udala
Laguntzaileak: Ricardo Baroja Eskola Publikoa, Labiaga Ikastola,
Jesusen Bihotza Ikastetxea eta Taki Ona Institutua

20

astelehena

INAUTERIETAKO ASTELEHENA

Goizean zahar zingar arraultze

19

igandea

INUDEAK ETA ARTZAIAK

17:00etatik aitzinera, goiz osoan herrian barna,
Eztegaro pilotalekutik hasita
18:00 - Eztegaro pilotalekutik Altzateko karrikara
Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarteo

ENTSAIOAK:

Otsailak 15 (asteazkena) eta 17 (ortzirala)
20:00 - Eztegaro pilotalekuan

OHARRA: Bazkariko txurteak solgai entsain egunon

16

ortzeguna



Gizakiaren jokaeraren eta garunaren arteko harremana ikertzen duen zientziaren adarra da neuropsikologia eta mundu hortan dihardu Jabier Tirapu Ustarroz (Leitza, 50

urte) neuropsikologoak azken 20 urteotan. Berriki, egin duen lanaren aitortpen gisa, Neuropsikologia Partzuergo Nazionalak (CNC) ematen duen Neurozientzia Klinikoa

Saria jaso du. Ubarmin klinikian egiten du lan eta Argibide Fundazioko kidea ere bada. 150 argitalpen baino gehiago eginak ditu, baita liburuak kaleratu ere.

Jabier TIRAPU | Leitzaiko neuropsikologoa

«Zenbat eta teknologia gehiago, gizakia orduan eta baldarragoa da»

G. PIKABEA | LEITZA

Nola lan egiten du garunak?

Zertarako den, horren araberakoa da. Sagar bat ezagutzen dugunean, garondoaren inguruan neurona batzuk aktibatzen dira. Ez dugu begiekin ikusten, garondoarekin baizik. Neurona jakin batzuk aktibatzen dira, horiek eta ez beste batzuk aktibatuta daudenean, sagarraren propietateari dagozkiola esaten digu garunak. Hortaz aparte, benetan gizakiago egiten gaituena eta gure garuna gero eta konplexuago egiten duena, ez da entzun, ikusi edo usaintzeko gaitasun gehiago izatea, baizik eta garuneko eremu guztiak abiadura haundian lotzeko duen gaitasuna. Ondorioz, jokaera konplikatuagoak sortzen dira. Gure garunak horixe du beste espeziekin alderatuz.

Garunak gaizki funtzionatzeak zein ondorio izan ditzake?

Asko, dementzia bezalako ondorio neurologikoak, eta arazo mentalak ere garunaren funtzionamenduko lesioak dira: eskizofrenia, depresioa, antsietatea, estresa...

Pertsonaren izaera ere alda daiteke?

Bai. Jarrera, pentsamendu edo sentimendu aldaketak, garunaren zirkuituko arazoan ondorio dira. Halakoetan, medika-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Tirapu leitzarrak Neurozientzia Klinikoa saria jaso du berriki.

zioa eman ohi da, eta gure ustez, gehiegi. Triste zaudenean medikuak antidepressiboa ematen du, urduritasun edo antsietatearekin antsiolitokoa. Baina denak emozioak dira. Tristura emozioa da, beldurra eta haserrea ere bai. Emozioak baldin badaira eta garunean badaude, zerbaiteko balio dutelako da. Emozioak garunak emandako alarma seinaleak bezala dira, bi ziztan zerbait ongi ez dihoala abisatzen dutenak. Gaixo batekin psikologiarekin lan egitean, botikarik gabe, argi ikus daiteke jokaera desberdina dela saio psikologikoaren aurretik eta ondotik.

GARUNA EGOKI GARATZEKO

«Garunarentzako onena ibiltzea da. Emozio sistema garatzea ere ezinbestekoa da. Gurasoak arduratuak daude seme-alaben autoestima ez zauritzeko, baina zergatik da txarra zerbaitek beldurra eragitea beldur horrek arriskutik babestuz gero? Gehiago arduratu beharko lukete seme-alaben emozioak garatzeaz. Bestetik, garuna ongi garatzeko kuriozitatea ere garrantzitsua da».

Gizonezko eta emakumezkoen garunaren artean zein alde daude?

Azken 50.000 urteetan gure garunak ez dira aldatu. Garai hartan, 150 laguneko taldeetan bizi ziren kobazuloetan. Gizonek luzerako ehizara atera eta etxera bueltatu behar izaten zuten. Hortaz, gizonek orientazio hobea dute, garunaren zati hori garatuagoa dutelako. Al-diz, emakumeak etxean gelditzen ziren eta komunikatzaile hobek dira, enpatia gehiago dute eta sentikorragoak dira. Esaten denez, mutikoek kamioi eta baloiekin jolasten dute gurasoek erosten dizkietelako eta nes-

kek panpinekin. Baina txinpantze arrek, gure heziketarik gabe, gurdia eta panpina eman, eta jolasteko gurdia zergatik aukeratzaren dute azaltzea zaila da. Jaiotzetik dator.

Gizakia gero eta baldarragoa dela esana duzu.

Gizakia mugitzeko egina dago, arrazoitzeko eta emozioak sentitzeko. Lehen, adibidez, zerbait jakiteko asko mugitu behar zen: liburutegira joan, eskolara... Orain, ordea, hitz gakoak Google-en sartu eta informazioa eskura dugu. Bizitza gero eta erosoagoa da, gero eta pasiboagoak gara eta ondorioz, gure garunak esfortzu txikiagoa egin behar du. Zenbat eta teknologia gehiago, gizakia orduan eta baldarragoa da.

Eta hori saihesteko zer?

Garunarentzako onena ibiltzea da. Mugitzen diren gehiago garatzen dute garuna. Emozio sistema garatzea ere ezinbestekoa da. Gurasoak arduratuak daude seme-alaben autoestima ez zauritzeko, baina zergatik da txarra zerbaitek beldurra eragitea beldur horrek arriskutik babestuz gero? Gehiago arduratu beharko lukete seme-alaben emozioak garatzeaz. Bestetik, garuna ongi garatzeko kuriozitatea ere garrantzitsua da. Gizakia izaki kuriozoso da, eta garuna horretarako estimulatzea ezinbestekoa da.

Laguntza laguntzaren truk

TTIPI-TTAPA laguntzeak badu saria. TTIPI TXARTELA dutenek badituzte deskontuak gure herrietako hainbat dendetan, %25eko desgrabazioa Errentaren Aitorpenean, hamabostero zozketak eta... aldizkaria etxean hartzea Txartelaren prezioan sartua dago.



Aurten txartelak urdinak izanen dira

Laguntza laguntzaren truk. Ideia hori dago Ttipi Txartelaren atzean. TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREN helburua ahalik eta bazkide gehien

lortzea da eta, dagoeneko, kasik zazpirehunek aprobetxatzen dituzte Ttipi Txartelak eskaintzen dituen abantailak.

bitzuetan kontsumitzea animatzea da Txartelaren helburuetako bat. Horiexek ematen baitiote bizitza gure herri eta horiexek baitira TTIPI-TTAPA bezalako proiektu tikien laguntzailerik baliosuenak. Hor ageri da zenbatearaino den garrantzitsua hemengo denda eta zerbitzuetan kontsumitzea. Maiz kanpoko ofertak begiratzetan ditugu, baina herrietan ere produktu onak daude eta prezioak berdintsuak dira.

MARTXOAN BIDLIKO DIRA TXARTEL BERRIAK
Txarteldunek otsailan hartuko dute karta bat ea berritu nahi duten galdetuz eta kartarekin batera, iaz ordaindutako kopuruak Errenta Aitorpenean ekarri dien desgrabazioa zehazten duen ziurtagiria. Txartel bakarra duenak 40 euro ordaindu zituen iaz, eta desgrabazioa %25ekoa dela kontuan hartuta, 10 euro itzuliko dio aurten Nafarroako Gobernuak.

ttipi-ttapa

Txartela egiteko biderik errazena TTIPI-TTAPAra deitzea da (948635458) eta hor beharadina argibide emanen dira. Dena den, laburbilduz, hona hemen oinarriko azalpenak: Ttipi Txartela urtero berritzen da, pertsonala da (erabiltzailearen izen-

deiturak eta karnetaren zenbakia ditu idatziak), dendaren batean erabiltzerakoan Txartelarekin batera Nortasun Agiria ere erakutsi behar da eta hainbat tokitan urtean zehar deskontu interesgarriak izateko eskubidea ematen du, merkealdi sasoiak izan ezik. Deskontuak

eskaintzen dituzten dendak zein diren jakiteko eta horietako bakoitzean deskontu zeretan eta zenbatekoa den ikusteko, txartelarekin batera liburuxka bat bidaltzen da etxera informazio zehatzarekin.

HEMENGU DENDAK
Herriko denda eta zer-

TTIPI TXARTELA DENDA ETA ZERBITZU HAUETAN ERABILTZEN AHAL DA, ORAINGOZ. LITEKEENA DA URTEAN ZEHAR GEHIAGO ERE IZATEA

deskontuak	bitu-dendak	herri-dendak	opari-dendak
au to teleak BERAUTO (BERA) %5 errekantsoetan DATUCELAY (ELIZONDO) %10 baterria eta amortiguadoretan SANSIRENA (ELIZONDO) %5 ota aldaketan ZALAN MOTOR (BERA) %5 errekantsoetan	erropa-dendak BIXIKIAK (LESAKA) %10eko deskontua EDURNE (BERA) %5, 30€tik gora FANTXIKE (ELIZONDO) %10, 30€tik gora IPINGI (ELIZONDO) %10, 30€tik gora JUAN J PIKABEA (DONEZTEBE) %10, marka batzuetan izan ezik	ETXARTE (LESAKA) %10eko deskontua os to itha zerbitzuak AMAIA (DONEZTEBE) %5 kosmetikan %10 operatutan 50€tik gora Promozioetan ez. erretorak ALTZURI (LESAKA) %5 atzetresnatan	AGARA (BERA) %5 kiof artikuluetan IPARLA (ELIZONDO) %5, 30€tik gora ZELA (BERA) %5eko deskontua kontzertak KATTAGORRIA (LESAKA) %10 leintzenan MARICRUZ (DONEZTEBE / ELIZONDO) %10, 30€tik gora
au to eskola SEMPER (BERA) %10 matrikulan	haurren gazte dendak KATTALINGORRI (ELIZONDO) %10eko deskontua KUKUKA (DONEZTEBE) %10 gaitzordi eta barruko arropetan	potto POTTOKI (ELIZONDO) %5 operatuzko artikulu trikotetan	opariak INTZURI (LESAKA) %10 aguzkilako balaurtekoetan OSTARGI (BERA) %5eko deskontua
irakurle teleak KATEA-BIKE (BERA) %5 konponketetan	gite to ak POSADA OITZ (OITZ) %10eko deskontua	liburu dendak NAFARPRESS (ELIZONDO) %10 liburu eta klas materialetan, festu liburuetan eta liburuak izan ezik	perfituak MENDAUR (DONEZTEBE) %5 zakur eta katean pertsona
argazki dendak AYLA (BERA) %10 kamara arguzkietan GOIKO (BERA) %10 kopia digitalitan	herri dendak LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA (LESAKA) Pertsona 1: %10 matrikulan 2 pertsona: 1 go pertsonak matrikula doan, bigarrenak libereki bat doan. (obuztuak 31 arte)	liburu dendak NAFARPRESS (ELIZONDO) %10 liburu eta klas materialetan, festu liburuetan eta liburuak izan ezik	trudategiak JAIONE (DONEZTEBE) %10, 12€tik gora
	herri dendak MENA (ELIZONDO) %10 kopia digitalitan ZALDUA (DONEZTEBE/ELIZONDO) %10 produktuetan	ru linae eta deto itha OREKA (LESAKA) %5 kontsulta eta produktuetan KIMETZ (DONEZTEBE) %5 kosmetikan ELIKA (BERA) %5 kontsulta	zapatu dendak OSTIZ (DONEZTEBE) %10 oinetakoetan TXINELKA (LESAKA) %10eko deskontua

ABANTAILA HANDIAK DITUEN TXARTELA

TTIPI TXARTELA izatea harpidetza soilik izatea baino merkeago ateratzen da eta deskontuak dituzten tokietan zenbat eta gehiago erabili, berrogei euro baino aisa gehiago berreskuratuko dira

Hasiera batean 40 euro ordaintzea tokatzen bada ere, kontuak egin ondotik, urtearen hondarreen harpidetzarengatik ordainduko diren 32 euroak baino merkeago ateratzen da Ttipi Txartela izatea, errentaren deklarazioa egiterakoan jada 10 euro itzuliko baitio Nafarroako Gobernuak txarteldunari.

Eta ez hori bakarrik; zenbat eta gehiago erabili dendetan, orduan eta irabazi handiagoak ditu txarteldunak deskontuei esker.

Eta, bistan denez, abantaila ez da bakarrik txartela erosten duenarentzat. Tartean onuradun gehiago daude. Lehenik eta behin Ttipi-Ttapa Fundazioa bera. Zenbat eta txarteldun gehiago izan orduan eta sendoagoa izanen baita bere buruaskitasun ekonomikoa eta hori, gaur den egunean diru-laguntzak gero eta urriagoak diren honetan, izugarri inportantea da bizirauteko. Eta onuradunen artean kontatu behar dira ere deskontuak eskaintzen dituzten denda eta zerbitzuak ere, bezeroak fidelizatzeko edota bereganatzeko baliagarri baitaie Ttipi Txartela.

HAMABOSTERO

SARI INTERESGARRIEN ZOZKETAK

Ttipi-Ttapan laguntza ematen dioten hainbat enpresa eta erakunde esker, txarteldunen artean hamabostero hainbat sari interesgarri zozketatuko dira aurrean ere. Hala nola, **Martikoren** eta **Arkupe Gozotegiaren** produktuz osatutako loteak, **Oninart** eta **Onddotapuntoren** arropak, **Elkar**, **Erein**, **Ibaizabal** eta **Ttartal** argitaletxeek eskainitako liburuak, **Lanku**, **Luditoys**, **Pirritx** eta **Porrotx** eta **Urtxintxa Eskolaren** CD, DVD eta jokuak, **Donostiako Aquariumak** oparitutako sarrerak, **Posada Oitze** eskainitako 4 otordu eta **Urdi Kiroldegiak** (Bera eta Lesaka) eskainitako sarrerak: 12 sarrera urtean zehar Lesakako Udala Kiroldegirako eta 6 sarrera udan Berako Igerilekuan sartzeko. Hauexek dira orain arte lotu diren sariak. Urtean zehar joan gara zehazten sari berri gehiago.

DAUDEN AUKEREN ARTETIK, BATZUK HEMEN



POSADA OITZ | OIZ

%10eko deskontua dute Ttipi Txartela dutenek eta, gainera, bina pertsonendako 2 otordu eman ditu zozketatzeko urtean zehar.



SEMPER AUTOESKOLA | BERA

Gidatzeko baimena atera nahian dabilen Txarteldunari %10eko deskontua egingen diote matrikulan Berako Semper autoeskolari.



BIXKI AK | LESAKA

Lesakako arropa denda honetan ere %10eko deskontua dute Txarteldunak, merkealdi garaian izan ezik.



LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA | LESAKA

Bi deskontu aukera (xehetasuna 4. orrialdean) Lesakako Kiroldegian eta 16 sarrera zozketatzeko Lesaka eta Berako igerilekuetan.



KATTALINGORRI | ELIZONDO

%10eko deskontua dute Txarteldunak Elizondoko Kattalingorri. Merkealdi sasoiak ez zaio gehituko bertze deskontuei.



MARICRUZ | DONEZTEBE-ELIZONDO

Bai Doneztebe zein Elizondoko dendetan %10eko deskontua eskainiko da 30 euro baino gehiagoko erosketetan.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Guretik Kolonbiakora

Hemen 100 biztanleko 66 auto omen ditugu. Kolonbian 100 biztanleko 6 auto dituzte, baina izugarri erraz mugitzen dira alde batetik bertzerat: hirietan maiztasun haundiarekin ibiltzen dira autobusak, eta autoen laurde nak taxi ak dira; gainera urrun-urrunean dauden herri tti-kietaraino ailegatzen da autobusa. Prezioak ere egokiak dira, beraz, jendea aunitz ibiltzen da garraio publikoan. Gure sistema bertze bat da: behar bada erraztasun gehiago dugu mugituko, baina diru pila bat uzten dugu autoa erosten, aseguruia pagatzen, gasolina, errebisioak edo aberiak direla... eta gainera malaxtegia egiten aparkatzeko orduan. Eta horri, airearen kontaminazio-arazoa gehituko nioke. Kolonbiakoa eta gurea bi sistema arras diferentak dira. Biak aldekoak eta kontrakoak dituzte. Neri Kolonbiakoa gustatzen zait, baina aitortu behar dut egungo egoeran autoa behar-beharrezkoa dudala. Baina Kolonbiakoa gustatzen zait!!

«Erraztasun gehiago dugu mugitzeko baina diru pila uzten dugu kotxean»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Banku eta kutzak lehenbizi


Ederak aditu behar izan ditu berriki hondoratu den italiar itsasontziko kapitainak. «Umeak eta emakumeak lehenbizi» itsas-arauari muzin egin eta ontzia okertzen hasi orduko lehorrean salbu zegoen. Ekonomia-arloan ere berdintsu gertatzen ari da. Krisia hasterako banka (kapitaina) erreskatatu zuten, lana, gizarte-laguntzak eta bertze bidaiariak hondoratzen uzten dituzten bitartean. SOS.

Nabarmentzekoak



Koteto EZKURRA
Orona Masterrean maisu

Orona buruz buruko Masterraren final bikainen Koteto Ezkurrak 30-28 irabazi zion Migel Mari Urrutiari urtarrilaren 7an Galarretan. Bigarren gaztaroan sartua dago doneztebarra.



Josetxo APEZETXEA
Karakola Segi Holak 20 urte


Xorroxin Irratikoe esatari erratzuarrak gidatzen duen irratsaioak 20 urte bete zituen urtarrilaren 7an eta hori ospatzeko irratsaio berezia eskaini zuten hilaren 13an Erratzuko Zubipuntatik.



Gorka URTASUN
Martiko txapelketa berriz ere

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere frontoi laburreko buruz buruko Martiko txapelketa irabazi du. Errege Eguneko Labriteko finalean 30-22 irabazi zion Julen San Migel doneztebarrari.

Atzera begira → 2003.01.23 / TTIPI-TTAPA 342. zbk



Zugarramurdiko historia liburuan bildu zuen Fermin Iriartek

Zugarramurdi Primer milenio (datu eta data zenbait) izenburupean liburua eman zuen argitara duela 9 urte Fermin Iriarte Irigoienek eta Akelarrenean aurkeztu zuen. Ez zen sorterrari buruz egin zuen lehen idazlana: «Herriko kantu bilduma bat egin nuen, eta baita auzo, etxe eta biztanleen errolda bat ere, 1945etik hasiz eta aldizka eguneratzen joan naizena». Zugarramurdiko bizimoduari dagokionez, Iriarteren ustez »bizimodu errexagoa daukagu orain, aurrerapen teknologikoek laguntza handia ematen dute, antolakuntza aunitz egin dira herrian... baina ohitura politikak galdu dira».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduertzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebxa, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Aniztasun lurraldea

Pello APEZETXEA

Amets egin dut. Nafarroako agintariek errepide bazterretan eta errepide erdian diren loreak denak kolore berekoak izateko agindu omen dute. Zergatik? Kolore ezberdineko lore sortak distraitzen ahal omen duelako auto-gidaria eta arriskua ekarri. Hau hastapena bertzerik ez da, zeren eta gero oihanak ere denak zuhaitz mota bakarrez hornitzea pentsatua dute. Denak berdinak izanez, zuhaitzek lan tikiagoa dute hazten, botatzen, aldatzen. Ez da hainbertze lan hartu beharrik lurrak aztertzen, zein den egokien pinurako, zein bagorako edo haritz eta gaztainarako. Pinu ez direnek, gainera, urte anitzez gehiago behar dute lurreean egon, eta diskriminazioa sortzen dute harekiko. Arrazoi horiek guztiengatik, aitzinera insignis pinua soilik landatuko da. Bertzalde, bagadi eta hariztiak ere erakartzen ahal dituzte errepideko gidarien begiak, udaberrian eta udazkenean, batez ere, aro horietan jasaten duten aldaera nabarmenen eta ikusgarriena dela eta. Denak insignis pinua izanez gero, berriz, kolore berdineko eta ez hain polita, jendeak bere begirada errepidean finkatuko du.

Hori bai, agindu horretan bertze hau ere sartzen da, plazetan eta bide bazterretan burdinneko abere iduriak paratzeko.

Oraindik ere dekretu gehiago bazirela ikusten hasi naizenean, iratzarri egin naiz. Eta, nire harridurarako, ez naiz bada ohartu egia dela amestutakoa? Baina, nola? Nola izaten ahal da, bada, egia, lore eta zuhaitz gehienak kentzeko agintzea? Nola galtzen ahal dute hainbertze beren burua agintariek, flora eta fauna anitzaren aberastasuna eta edertasuna gutietsi eta ezabatzeraino? Baina, bai zera! Ez, ez zen arrunt horrela, hori baino errealtate sinesgaitzagoa gauzatzen ari baita, animalia eta zuhaitzen aniztasuna baino haundiago dena ezabatu nahian baitabilta, jendearen aniztasunari berari erasoka, jendearen izaera ezberdinak ukatzen, euskal kultura desagerrarazten. Nafarroako Gobernuak Osasunaren futbol zelaiari izena aldatu nahi eta, "Nafarroako Erreinua, aniztasun lurraldea" izena ezarri dio. Hori bai, gaztelera hutsez idatzia.

«Denak berdinak izanez, zuhaitzek lan tikiagoa dute hazten, botatzen, aldatzen. Ez da hainbertze lan hartu beharrik lurrak aztertzen, zein den egokien pinurako, zein bagorako edo haritz eta gaztainarako. Pinu ez direnek, gainera, urte gehiago behar dute lurreean egon, eta diskriminazioa sortzen dute harekiko»

Hamabigarrenean aidanez

Joseba URKIOLA

Txapel batekin bi buru estaltzea beti izan da zaila. Eta gaur munduak daukan joerarekin, zaila ez, ezinezkoa dela esan daiteke. Buru asko egonagatik, gero eta gehiago, ia ez baitago txapelik.

Urte honetan, bakoitzaren poltsikoak bizipen bereziak izango ditu. Karterek aspaldi erabaki zuten negar egitea, poltsak sorbaldan eramateko tresna dekoratiboak besterik ez dira. "Batek hamar eta hamarrek bat ere ez" kontzeptuak inoiz baino indar handiagoa dauka.

Ekonomiaz asko ari gara ikasten aspaldian: kontzeptu berriak, sentsazio garratzak eta zorioneko arrisku prima beti protagonista. Bankuak ezin ase, enpresariak beti gose... Eta hori guztia jasan behar duena, nahi eta ezinean dabilen lurtar gaia.

Dena den, bada gai bat, orain urte batzuekin alderatuta oso gutxi entzuten dena. Klimaren afera da. Politikoez aldian-aldian lurra aldaketa nabarmena bizitzen ari dela esaten dute, baina hor gelditzen da. Oso azalean, eta inolaz ere sakondu gabe. Hegoafrikako Durban hirian berriki egin den Klimaren Goi Bileran ondo ikusi ahal izan da hori. Egunkariak apenas eman dioten garrantzirik, telebistek nahikoa ahazturan eduki dute, eta irratietan nekez entzun da bileren emaitzen berri. Garai batean ez zen hori gertatzen Kiotokoa bezalako hitzarmenekin. Baina gauzak asko aldatu dira, gehiegi aukeran. Lehen zer pentsatua ematen zuena, orain denbora pasatatzat daukate askok. Natura ustez aldatu daitekeen atrezzo soila da, besterik ez. Jarrera honek ez dakigu zenbat iraungo duen, baina zenbat eta lehenago esnatzen hasi, hobe; bestela, amesgaiztoa erraldoiagoa eta mardulagoa izango da eta.

Azken 50 urteetan biztanleria 3,5 aldiz biderkatu dela jakin dugu berriki. Berehala 7 mila milioi biztanle izango gara, eta, historian lehen aldiz, hirian jende gehiago bizi da herrietan baino. Biztanleria nabarmen gora, eta baliabideak behera, gupidarrik gabe gainera. Adibidea argia da: Lehen Munduko herritarrek bezala jende guztiak kontsumituko balu, zer gertatuko litzateke? Ba beste Lur oso bat eduki beharko genukeela. Iturriak ez du etenik, txorrota beti irekia dago baina, ur emari honek amaiera jakina du. Natur baliabideak ez dira infinituak, eta zaindu ezean jai dago.

Azken urteetan egindako gehiegikeriek berehala ekarriko dute soka. XX. mendean munduko biztanleria lau aldiz biderkatu da, ikatza sei aldiz gehiago kontsumitu dugu, metalak zazpi, eta aluminioa hogeita bider gehiago. (...) Aberatsen eta txiroen arteko muga gero eta potoloagoa da, eta konponezina dirudi. Egunero-egunero, bost minutuko tartean, 5 emakume hiltzen dira erditze unean, eta 100 bat umek galtzen dute bizia sendabide erraza duten gaixotasunekin. (...)

"Ume jaio eta ume bihurtu" dio esaerak, eta batzuek badirudi ez dutela Toys R'Us partikularretik atera nahi. Han dena polita, ederra eta koloretsua da. Errealtatea, aldiz, bestelakoa. Guk poltsikoan eta buruan izango ditugu arazoak, ekaitz ekonomikoak jasan beharrean egongo gara, eta etsipena etengabea izango da. Baina asko dira poltsikoa zer den ere ez dakitenak. Arrisku primaren entzuterik izan ez, baina etxean bertan bestelako lehengusuak dituztenak, askoz ere makurragoak.

Irakurleak mintzo

Euskara
auzolanaBortziritako Euskara
Batzordeak

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako euskara batzordeetan euskararen alde auzolanean ari gara. Auzolan hau indartzeko eta biziberritzeko asmotan, batzorde guztien artean eta Bortziritako herri guztietan, euskara batzordeak indartzeko kanpainatxoak burutu behar dugu hilabete hauetan.

2010eko urriaren 31n euskara batzordeak antolatuta Euskara Mankomunitatearen 20. urtemuga ospatu genuen. Auzolan ederra izan zenari esker, Berako Matxada futbol zelaian 750 bat lagun elkartu eta bertan "Bortzburua" osatu genuen, aldarrikapen eta gogo bateratua azalduz "Zaindu maite duzun hori". Jendea antolakuntza lanean arituz bakarrik lortzen dira holako emaitza.

Euskara batzordeak auzolanean segitzen dute. Mankomunitatearen plangintzan laguntzen, kultur egunak antolatzen, euskararen erabilerara sustatzen, euskararen aldeko jarrerak bultzatzen. Zeregin kolektibo hauek indartzeko ahalegina oraingoan herri guztietan eta aldi berean egitea erabaki zen euskara batzordeek burutu zuten azkeneko batzarrean. Mezu argia helarazi nahi da

kanpaina honetan, euskararen aldeko lanetan murgildu nahi baduzu herriko euskara batzordea da zure tokia.

Bilera zabalak burutzeko gonbitea eginen da herrietan, eta, beraz, bilerara joateko deialdia luzatu nahi dizuegu erakunde, eragile eta norbanako euskaltzaleoi. Zuetako bakoitzaren iritzia garrantzitsua da, eta elkarlana guztiz erakargarria.

Hamaika lan komun burutu ditugu auzolanean gure herrietan, gure hizkuntza indartzea eta euskaraz bizitzeko baldintzak garatzea baino lan komun garrantzitsuagorik ba al daukagu? Horregatik euskara-auzolana bultzatzen segitu behar dugu.

"Zaindu dezagun maite dugun gure hizkuntza, euskara". Badugu deiar berria, euskaltzale hori, animatu eta bideratu zure euskararen alde egiteko go-go zure herriko euskara batzordearen bidez.

Anasaps-Dizdira
elkarteko
eguberrietako
loteria

Eduarne ELIZAGOIEN
(ANASAPAS-Dizdira)

Aurten ere "tokatu" zaigu! Zonaldean hainbat jendeak poztasunez hartu izanen dute eguberrietako loteriaren aferra, baita guk ere, pedrea deritzonelan elkarteko zenbakia saritua suer-



Bota bertsoa

Alazne UNTXALO (Malerrekako bertso eskola) • Doinua: Silveiraren doinu berria

Hemen dira inauteriak

Urtarrilak hogeitamar eta hogeita hameka jarri dezagun arreta datak hurbil daude eta! handik te hemendik bildu trapu zahar eta kareta ganbaran joare, larru... guztiak bertan gordeta, atera beharko dira, nahiz egon hautsez beteta ta joare parearen soinuarekin kolpeka kolorez jantziko dira lttun, Aurtitz ta Zubietan!!

Aretxia hil ta gero hortikan zer jana bada, ortzegunin puxkak bildu ta afaltzeko parada, larunbat eta igandez bestan irri ta algara. Joaldunekin batera gu mozorrotuko gara, astelehenean lttunan astirtin Zubietara astizkenin ere besta lamtin kontun eguna da parranda giroz alaitsu zazpi egun zazpi gaba!

tatu baita aurtengoan, baina... behin zerbait tokatuko eta hura aldrebes! Azalduko dut... Urtero bezala, 12.275 zenbakirako partizipazioak egin genituen ANASAPS-en eta urteroko legez ilusio puntu bat jarri genuen zenbaki horretan. Boleto bakoitzean 4 euro jokatzen genituen eta euro 1eko donazioa egiten elkartearentzat. Honeraino dena xuxen. Kontua da, zenbaki hau lruñako loteria administrazio batean gordetzen digutela eta zein izan zen gure sorpresa loteria antzineko egunean erran zigutenean gure zenbakia behar baino gehiago saldua zutela. Hortxe hasi ziren gure buruko minak! Loteria administrazioak egoera honi soluzioa emateko zera egin zuen, jokatzen zen diruaren erdia, hau da 2 euro bolaroan agertzen zen zenbakian mantentzea eta falta ziren bertze 2 euroentzat bertze zenba-

ki bat ematea. Bertze zenbaki hori 16.589-a zen. Kalterik gutxiena sortuko zuen irtenbidea zelakoan. Loteria zozketa egun berean berri eman zuten egoera honetaz Diario Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan. Gauza horrela, zozketa egin ondotik 12.275a saritua izan du zen, baina ez 4 euro jokatuz, 2 euro baziak. Beraz, Elkartetik 10 euro ematen ari gara zenbakia kobratu nahi dutenei, loteria administrazioak eskaini ziguten "soluzioari" atxikiz.

Honela ba Elkartearen izenean barkamena eskatu nahi diot zenbakia erosi zuten guztiei eta azalpen gehiago behar baditu norbaitek ANASAPS-era deitu dezakete eta hemen azalduko dizkizuet aldrebeskeria honen ondorioak. Bestalde eskerak eman nahi dizkiot Bittiria Harategiko jabeari, Elkarteko loteria saltzen laguntzen baiti-

gu urtero eta berari ere barkamena eskatu egoera hau jasan behar izanagatik.

Erran bezala, behin zerbait tokatuko eta hura aldrebes!

Etxalarko
herri-okindegia

Jon SANTSIÑENA MAIA

Etxalarren herri-okindegia dugu. Orain dela zenbait hamarkada, herriak okindegi zerbitzua behar zuela eta herritarrek antolatzea erabaki zuten. Elkarte bat eratu zen; %60an Udalak eta gainerako %40a akzio ttikidun herritar bazkideek osatzen dutelarik, eta geroztik, herri-erakin batean kokatzen den eta elkarte hortako batzordeak kudeatzen duen okindegia dugu gure herrian.

Azken urteetan arazoak izan dira eta gaur den egunean okindegi-

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

ak ez omen du dituen kosteak ordaintzeko adina ematen. Okindegiak bere historia osoan, herritarrei oinarrizko zerbitzu hau eskaintzeaz gainera, irabaziak eman ditu. Orain, herritarrei zerbitzua ematen segitzen du, baina irabazien orde, ordaintzea eskatzen du.

Enpresa ikuspegitik begiratzuz gero, ez da eraginkorra, eta horren arabera, etekin ekonomikoalortu behar da. Indarrean dagoen gizarite-ereduan gertatzen den moduan, horrek zera dakar: Herriarena eta herritarrena den enpresa/zerbitzua enpresa pribatuaren esku uztea. Eta kate berean segituz, zera ekar dezake: eraginkorra ez den momentuan herria okindegirik gabe uztea. Hainbertze markadako lana eta herritarren gogo, egitasmo baten garapena, ezerezean gelditzea.

Herrian antolatzen diren berte hainbat zerbitzu ere (igerilekuak,

Kultur Etxea, pilotalekua, herrilangileen karraketako garbiketa...) ez dira eraginkorrak ikuspegi horretatik. Baina ez al dira eraginkorrak, herritarrei zerbitzua ematen dieten aldetik? Duela zenbait urte eskolako jantokiak ere galerak izan zituen, baina orduan kostea onartzea erabaki zuen Udalak, eta gaur egun, jantokia gainezka dago... Ez ote dugu herriari egiten zaion zerbitzuaren ikuspegitik begiratu beharko?

Etxalarrek bere herri okindegia du, herriak herriarendako egindako ogia jan dugu azken mende erdian, eta hala izaten segitzea nahi genuke, nik bezala seguraski berte etxalartar aunitzek ere. Hori babestea, behar diren neurriak hartuz (elkartearen bazkide kopurua zabaltea, egitasmoa babesteko diru-laguntzak bilatzea...). Azken finean, herriaren baliabideak herriak berak kudeatzeko ardurari eustea.

11 galdera labur

Arantzan bizi den sunbildarra edo Sunbillan sortutako arantzarra?

Arantzan bizi den sunbildarra, dudarik gabe.

Aizkoran, bizikletan, igeltsero, besta egiten, ehizean... Zeinetan moldatzen zara hobekien?

Orain arte igual besta egiten, baina hemendik aitzinera... Hobekien moldatu ez dakit, baina gusturana ehizean.

Sunbillako inauterietan eskean ibiltzeko, ezkon urtea, azken urtea dela erraten da. Zuk ere aurten azkena edo hautsiko zenuke «arau»?

Ez, ez. Neregatik horrela segitzen ahal du. Horrela aitzakia badut gelditzea eta ondokoei tokia uzteko, bertzela ez ginatke inoiz geldituko.

Zer dute Sunbillako inauteriek berzeek ez dutena?

Herrikoak direla eta horregatik beragatik hoberenak.

Etxez etxeko eskea edo karrizko desfilea. Zein nahiago?

Biek gustukoak baina bat aukeratzekotan etxez etxe ibiltzea. Berte edozein bestatik diferentzia delako eta lehenbiziko eguna izanik, denak fres-

ko egoten garelako ere bai. Zein da bestazale on bat izateko sekretua?

Gauza guztietarako bezala, inportantea gogoia izatea da eta adin eta sasoi ederra izanez gero, hobe.

Eta sasoiaren egoteko sekretua?

Sekreturik ez dago, osasunak lagunduz gero, edozein sasoi dago.

Herri kiroletan zein duzu kirolrik gustukoena?

Gustukoena aizkora, baina gustatu gehienak, eta gehixeago edo guttixeago probatu ere eginak ditut. Probatu ez dudana eta gustatuko litzaidakeena igual lasto altxatzea.

Besta egiteko Arantza ala Sunbilla?

Biak berdin-berdin. Momentu eta konpainia on batekin, edozein lekutan besta ederra egin daiteke.

Eta bizitzeko?

Igual zait. Lehen Sunbillan eta orain Arantzan bietan hagitz gustura, baina hala ez balitz ere, horixe kontestuko nizuke! ja,ja,ja...

Inguruko parajerik gustukoena?

Bereiztea zaila da, hementxo paraje gehienak gustukoak ditudalako, mendi ingurua batez ere, baina bat erratekotan Mendaur ingurua, ttikitatik han aunitz ibilia naizelako.



Iñaki MIKELARENA → Sunbillako gaztea

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

carinho
gosturako txerriak
Txerriak 25 berrak - 198800000
www.carinho.net

BAR BOTOXO OSTATUA
Zakur - OSTUA - 948 630 052

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanoak desde 1940
Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

José I. González Enguita
tel. 666 233 466

948 631 218
Kantillonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

BERA

EKONOMIA → URTEKO DIRU KONTUAK

3,2 milioi euroko aurrekontuari hasierako onarpena eman dio Udalak

Baso landaketara bideratuko da inbertsioen zati haundiena

TTIPI-TTAPA

Urteko diru sarrera eta irteerak zehaztu ditu Udalak, eta hasierako onarpena ere eman dio 3.219.071,11ko aurrekontuari. Abenduaren 22an egin zuten bozketa, eta aldeko borts boto (Aralar eta EAJ) eta aurkako bertsu borts (Bildu eta UPN) izan ziren. Alkatearen kalitateko botoarekin aitzinera ateratu zen.

Inbertsioen sailean, zatirik haundienetako bat baso landaketara bideratuko da, 90.605,78 euro; Lesaka-Bera arteko ur-honiduraren proiektuaren bigarren fasarako 80.000 euro aurrekusi dira; Kaxernako urbanizazioarako 66.561,29 euro joanen dira, hilerriko lanetan 54.265,18 euro eta abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko 41.359,47 euro.

Kopuru ttikiagoa izanen dute inbertsio hauek: Legia karrikako zolaketarako 22.000 euro; udaletxe-ko ekipamendua 15.000 euro; katastroa berrikus-tea 8.760,32 euro, liburutegia hornitzea 3.000 euro, suhiltzaileen parke ondoko urbanizazioa 2.500 euro eta udal erakinetako argiztapenaren azterketa (2.500 euro).

Espedientea jendaurrean egonen da hila-bete honetan.

Presoen alde martxa

Sara eta Berako gaztetxeek euskal presoen aldeko mendi martxa antolatu dute otsailaren 4rako, larunbata. Beratik Sarara egingen da mendi ibilaldia eta ondotik, Saran segituko dute ekitaldiek.

10:00etan abiatuko dira Altzateko plazatik eta ondotik gosaria egingen da Gondendiagan (Benta beltza). 14:30 aldera *Zoldbeer* eta hainbat garagardoren dastatzea eta bazkaria izanen dira Sarako Gaztetxean.

17:00 aldera *pilota beer* herrikoia egingen da kiroldegian. Eta 20:00etan presoen aldeko afaria egingen da Sarakasunak antolatuta. Gaurpasa ere izanen da.

Martxarako txartelak Katakun eta Sarako Herriko Etxeko Edantegian eros daitezke, otsailaren 2ra arte.

FILM LABURRAK

Otsailaren 17an, film laburren emanaldia egingen da Kaxerna gaztetxean. Ondotik, DJ-ak izanen dira.

Bidasoa ibaian lanak

Bidasoa ibaiako bazterrak lehengoratzeko 20.411,25 euro emanen dizkio Nafarroako Gobernuak Udalari, 29.514,08 euroko aurrekontua duten lanak egin ahal izateko. Lanak aurtengatik egin beharko dira.

Matrikulazioa IKAN

IKA euskaltegian urtaril-otsailko matrikula-



UTZITAKO ARGAZKIA

45 bikote Santa Barbarako V. Igoeran

Urtarrilaren 7an egin zen urtero Loro, Zubi eta Xabierren omenez egiten den Santa Barbarako Igoera. Bosgarren edizio honetan, 45 bikote aritu ziren lasterkako kronoigoeran eta jende ugari oinezko ibilaldian. 6 kilometro eskaseko zeharkaldia, kiroldegian hasi eta Santa Barbara kaxkotik pasatuz berriz ere kiroldegian bukatu zen. Iaz bezala, Manttaleko emakumeen taldeko bikote dexente osatu ziren, baita gaztetxoaren eskolako bertze batzuk ere, probari kutsu herrikoia emanez. Ttikienak heririk mugitu gabe aritu ziren korrika, kiroldegi inguruan. Proba amaitzean, taloz eta bertako hainbat produktuez egindako merendu paregabe bat eman zen Rikardo Baroja eskolan eta hainbat zozketa ere izan zen. Mendiaren Eguna bukatzeko, solasaldia eskaini zuen Javier Yanci Irigoien IVEFeko katedradun lesakarrak, *Deporte competición versus salud: ¿Incompatibles?* izenburupean. Antolatzaileek eskerak eman nahi izan dizkiete parte hartu zuten guztiei.

zioa egiteko epea zabalik egonen da otsailaren 10era arte. Maila guztiak eta EGA eskainiko dira Beran eta Lesakan, eta On Line egiteko aukera ere izanen da.

Informazio gehiago: 948 637796 telefonoan edo bortziriak@ikanet.net helbidean.

Larun Ttikiren ateraldiak

Apirilera arteko irteerak zehaztu ditu Larun Ttiki Mendi Taldeak. Igan-dean, hilak 29, Kopakarrirat joanen dira 09:30ean lamoteneatik abiatuta. Otsailaren 12an Akozperat joanen dira eta 26an Ziburuko mendira. Martxoaren 11n Miariar



UTZITAKO ARGAZKIA

Lanzaroterako bidaiaren irabazlea Haizea Urkiola

Larun Haizpe merkatarien elkarteak zozketatutako Lanzarotera joateko bidaiaren irabazlea Haizea Urkiola izan da. Elika dietetika zentroan egindako erosketarekin lortu du saria Haizeak. Zorionak!

eginen da ateraldia eta apirilaren 1ean Sarako martxoaren 25ean edo lasterketara.



UNA ESCUELA PARA TODOS DENONTZAKO ESKOLA



AURRE-INSKRIPZIO EPEA: otsailaren 6tik 13ra

Legia, 20 • 31780 BERA • T. 948 630 009
scorazonbera@planalfa.es



LESAKA

UDALA → 2,5 MILIOI EUROTAN ESLEITU DIRA LANAK

Kultur Etxea urte bukaerarako egina izanen da

Madriko 3,6 milioi euroko dirulaguntza aprobetxatzeko hobekuntzak egingen zaizkio proiektuari

Aitor AROTZENA

Kultur Etxeko lanak abiatu dira. Abenduaren 12ko batzarrean, Kultur Etxea eraikitze-ko obra-kontratua HM Compañía General de Construcción S.A. enpresari esleitu zion, aurkeztutako 15 proposamenen artean onena zelakoan.

Lanen hasierako aurrekontua 3.174.939,44 eurokoa baldin bazen ere, eraikuntza enpresa honek %20an jautsi du prezioa. 2.539.951,55 eurotan egingen ditu lanak (%18ko BEZ barne). Orain, abenduaren 31 arteko epea izanen du lanak bukatzeko. Dena den, Peio Etxabide alkateak aipatu digunez, «Madrietik 3,6 milioi euroko dirulaguntza badela kontuan hartuz, hasierako proiektuan ageri ez diren hobekuntza batzuk ere egingen dira, ekipamendu eszenikoa, soinu-ekipoa, 280 lagu-

nendako harmailak edo konbentuaren egokitzea-pena, erraterako». Guztira kasik 5.000 metro koadro erabilgarri izanen ditu Kultur Etxeak. Horietatik 2.292 konbentuko elizak hartuko ditu. Hemen, erabilera anitzeko aretoa txukuntzeaz gain, koroa intsonorizatu egingen da. Ondean eraikiko den nabek, berriz, 2.681 metro koadro erabilgarri izanen ditu hiru solairutan banatuak eta eszenatokiaz eta harmailez gain, udal liburutegia eta bertze hiru erabilera anitzeko gela izanen ditu bigarren solairuan, bertzeak bertze.

PNVREN OHARRA

EAJ-PNVk jakinarazi duenez, «kultur etxea eta liburutegi berria errealitate bihurtuko dira PNVk Madriken egindako negozioazioen ondorioz lortutako 3,6 milioiko laguntzari esker. Zoritxarrez, proiektu honen aportazio hori bakarrik izanen du, bertze inork ez du euro bakar bat ere lortu». PNVk dioenez, gaur egun Bilduk kudeatzen duen udal gobernu taldeak «ez du borrokatu 2003an onartutako diru-kopurua lortzeko



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Komentu ingurua hesitu eta zuhaitz batzuk botatuak dituzte dagoeneko.

edo, guttienez, Nafarroako Gobernuak berak eta Kantauriko Ur Konfederazioak eginarazi dituzten aldaketek sortutako garestitzea beraien erantzunez, Bildutik aipatu dutenez, «Nafarroako Gobernuarekin bilerak egin dira, PNVko zinegotziak bertan zirela eta argi eta garbi azaldu ziguten ez zela honetarako dirurik 2012an. Kanpian erran zuten milioi erdi bat lortua zutela, baina hitzez. Orain diru hori ez dago inon». Gainera, Madriko dirulaguntza ere urrian kolan zegoela aipatu digu Peio Etxabide alkateak, «hauteskundeak heldu zirenez eta gobernuan aldaketak izanen zirenez, gaia 2012ko aurrekontuetako borrorera pasatzen zela aipatu ziguten, eta galdutzat ere eman genuen dirua, baina ordagoa bota genuen, dena aitzindu, udal langile eta teknikariek lana gogo-

tik egin zuten eta lortu dugu proiektuak aitzinera egitea». Halere, garbi utzi nahi izan dute «hau ez dela Bilduren proiektua, gu sartu ginenean honekin topo egin genuen eta bertze batzuk aztertu genituen arren, ez zirela bideragarriak ikusi genuen eta dirulaguntza eta Kultur Etxea egiteko aukerarik ez galtzeko aitzinera atera behar zen».

Eraikuntza lanak hasita, kultur etxearen funtzionamenduan eta antolakuntzan pentsatzeko tenorea ere ailegatu dela uste du PNVk, «programazioa egokia prestatzeaz arduratuko den batzorde batekin». Alde horretatik, Peio Etxabide alkateak ere aipatu du herriko kultur eragileak bilduko dituzten batzordea osatu nahi dela, «kultur etxeari bizia emateko herritarrek inplikatu behar dutelako».

Mantenimendu estimazioa ere egin du Uda-

lak eta onartzeko modukoa dela uste du. Bertze jarduerak eta ekitaldiak antolatzerako orduan, «eraikina egitekoan hainbertze baldintza eta aitzaki jarri dituen Nafarroako Gobernuaren laguntza espero dugu».

Ikastolaren hitzarmena

Abenduaren 7an Tantirumairu ikastolak Cornelia Lecuona Fundazioko Patronatuarekin hitzarmen berria sinatu zuen. Akordio honen bidez, Ikastolak lortu du Otxogorriena etxea eta inguruko lurrak bertze 25 urtez erabiltzeko baimena. Honela, Ikastolak bere Hezkuntza Proiektuarekin aitzinera segituko du eta era berean, etorkizun hurbilean aurreikusitako diren eskakizunetara egokitu ahal izateko beharrezko moldaketa eta anplazioak egiteko aukera izanen du.

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
T: 948 637 260 - LESAKA

BOZZAIDE
T: 948 637 260 - LESAKA

KATTU Taberna - Jantetxea
Asteburuetan:
Menuak | Plater Konbinatuak
Ogitartekook | Hamburgerak
Sandwich-ak
948 627 573 - 618 735 539 - LESAKA

KOMUNIKAZIOA → DIRUA BILTZEKO

ETB 1eko 'Finlandia' saiora publiko gisa joateko deialdia egin du dantza taldeak

16 urtetik goitiko edozein joan daiteke

Irune eta Itsaso

Andre Mari dantza taldeak igande arratsetan ETB 1-en ematen duten *Finlandia* programara publiko bezala joatea pentsatu du. Hemen ateratako dirua Paristik etorriko den Gazteria dantza taldearen gastuetarako erabiliko da.

Grabatzeko eguna urtarrilaren 31, asteartea, izanen da. 50-56 lagunek taldea behar da, 16 urte baino gehiagokoak denak. Autobusa (programakoek ordaindua) herri sarrerako aparkalekutik aterako da, 17:45ean. Grabaketa, berriz, 19:30etik 21:30era izanen da Donostiako Miramonen. Harat ailegatzean, be-

rendua ere emanen dute.

Joan nahi duenak urtarrilaren 27a baino lehen apuntatu behar du 677 866560 telefonora deituz (Garbiñe).

Sute elkartearen urteko batzarra

Urtarrilaren 15ean ohiko batzar nagusia egin zuen Sute Elkarteak Kultur Etxean, gai hauek landuz: aurreko urteko akta irakurri eta onartu, kontuen egoe-ra aztertu, asegurueta-ko kapitala eguneratu eta 2012rako proposamenak. 2011n *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programan bildutako diruarekin su hitzalgailuen errebisioak egin eta sua itzaltzeko pala bereziak eta maskarak erosiko dira eta auzo bakoitzeko arduradunei banatuko zaizkie.



ARGAZKIA: FLORANCE GRIPONNE

Dantzariak Parisen

Abenduaren 7tik 11ra Etxalarko dantzariak Parisen izan ziren. Lehenengo egunetan hiria ezagutu zuten eta abenduaren 10ean dantza saioa eskaini zuten Parisko Euskal Etxean. Orain, otsailaren 25ean, Parisko Gazteria dantza taldea etorriko da herrira beraien saioa eskaintzera. Bertzetik, Andre Mari dantza taldea laguntzeko saskiaren zozketa urtarrilaren 6an Larraburuan egin zen, urteroko txokolotadaren ondotik eta saskia Arrineko Bordara joan zen.



ARGAZKIA: JASONE MITXELTORENA

Etxalar kantuz

Urtarrilaren 8an jende andana bildu zen kantu zaharrak kantatzeko. Hemendik aitzinera hilabetearen lehenengo igandean elkartuko dira udaletxe aitzinean 12:00etan. Nahi duenak hurrengo aukera otsailaren 5ean izanen du.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Mus eta partxis txapelketa

Abenduaren 18an 2011ko XX. mus eta partxis txapelketako sari banaketa izan zen. Partxisean txapelkunak Maria Isabel Berrueta eta Mertxe Santesteban izan ziren eta bigarrenak Pakita Danboriena eta Candida Elizalde. Museko txapelkunak Jesus Arribillaga eta Javier Sansiñena izan ziren eta Javier Irisarri eta Jose Luis Arretxeak bigarren postua eskuratu zuten. Orain martxan da 2012ko XX. sorbalda mus eta partxis txapelketa. Bederatzi igandez, martxora arte, ariko dira.

KOXKONTA *Jatetxea*

1000 urteko eta aipaturiko merak, korta, eskertutako berkeak, jainotzenetako berkeak

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Ollanga auzoa, | • LESAKA

ARANTZA

HEZKUNTZA → OTSAILAREN 8AN

Ehun bat bago landatuko dituzte eskolako neska-mutikoen Zuhaitzaren Egunean

Bertetik, eskolaren logoa aukeratzen ari dira

Nerea ALTZURI

Urtero bezala, otsailaren 8an, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleekin, Zuhaitzaren Eguna eginen da eskolan. Ekimen hau eskolaren eta Udalaren artean antolatzen da.

Ehun inguru bagolandare landatuko dira. Oinez landaketa lekura joan eta bazkal tenorea arte, zuhaitzak landatzen ariko dira, tartean hamai-ketakoa eginez. Bertze aldietan bezala, haurba-koitzak, nahi badu, bere izena paratuko dio landatutako arbolari. Modua duenak, berriz, etxetik aitzurra ekartzen ahaldu. Bertzalde, Haur Hezkuntzako ikasleek uda-

berrian lore landaketa eginen dute.

LOGO BILA ETA IKASTAROAK EGITEN

Egun hauetan eskolaren logoa aukeratzen ere badabilta. Guraso eta irakasleek, ikasleek eginitako marrazkien artean aukeratu dute.

Bertzalde, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak fruta eta barazkien kontsumoa bultzatzeko abian jarri duen kanpainaren barne, Haur Hezkuntzako haurren artean fruta gosaltzen hasi dira. Ikasturte akaberarte astero fruta banatuko da.

Hirugarren zikloko eta DBHko ikasleak, berriz, pilotak egiten ikasten ari dira. Lekarozko ILZko Miguel Ustariz irakaslea astearte arratsalde gaztetxoekin izaten da.

Ustariz bera, irakasleei zuzenduriko oinarri-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Arantzarrak Bilboko manifestazioan

Egin Dezagun Bidea ekimenak antolatutako autobusean, 40 bat herritar joan zen urtarrilaren 7an Bilbora, euskal presoek aldeko manifestazio erraldoian parte hartzera. Bertze batzuk kotxez ere joan ziren.

ko gaitasunen inguruko ikastaro intentsibo bat ere ematen ari da.

Heldu den ikasturtea prestatzeko unea ere heldu da eta aurrematrizazioa otsailaren 6tik 13ra egiten da. Hurrengo ikasturterako bortz ikasle berri aurrekusi dira.

Baratzeari buruzko ikastaroa

Otsailaren 2ra bitarte baratzeari buruzko ikastaroa egiten ari dira. Hiru orduko saioak izaten dira astearte arratsaldetan eta 12 lagun parte hartzen ari dira. Tailer honen irakaslea Manuel Esparza iruindarra da.

Ezinduentzako tresnen beharra

Arantza eta Igantziko pa-

Otsailaren 9, 10 eta 11n inauteriak ospatuko dira

Berriz ere urteroko data seinalatuak heldu zaizkigu. Mozorro Xuri nahiz beltzak guztia prestatzen ariko dira, otsailaren bigarren asteburuan mozorrotzeko. Haur, gazte eta heldu, guztiak bizitzen dituzte inauteriak. Mozorro Xuriek antolatzen dituzte eta puxka-puxka biltzea, musika, bertso-afaria, herri kirolak, gisa guztieta mozorroak eta bertze izanen dira aurten ere.

25 bat Mozorro Xuri ibiliko dira baserriz-baserri eta etxez etxe. Egitaraua aldizkari honetako gehigarrian aurkituko duzue, 24. orrialdean.

rrokietan ezinduen zerbitzurako tresna batzuk izan ohi dira, tartean gurpildun aulkiak. Gutti dauenez, guztiak banatuak dira. Herriko apaizak adierazi duenez, nahikoa maiz eskatzen dizkiote. Hortaz, norbaitek bere etxean tresna horietatik

izan eta behar ez balu, abisatzeko eskatu du.

Pilota partidak

Abian da Bortzirieta-ko pilota txapelketa, eta partidak bortz herrietan jokatzen ari dira. Arantzan, larunbatetan izaten dira, 09:30ean hasita.

F. LANCHAS
Akabidulenta eta berriztatzaile
Parkes eta parket flutatzaila
jartzaile
Mota guztietaiko solak
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

Lehen Hezkuntza
Bortzirieta
Zuhaitzaren Eguna
Fruita Gosaltze
ICHTHUS
Nafarroa Garaia 30.31700 Leizorri
T: 948 627 914

ERANDONA, S.L.
FRUTAS CON GARANTIA
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
agardulagia jatetxea
Alaita Karrika
BERA NAFARRA

JANET - GORTEGA
948 630 786
Aitzola, 18 • BERA

ANSONEA
Eguzki menua
Menu begetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bokatak • Errezinak
948 631 444
Bidasoa, 11 BERA

GIZARTEA → OSASUNGINTZA

Bortzirietako eriak Gipuzkoan artatzen segituko dela dio Verak

Bortz alkateekin bildu da osasun kontseilaria



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Bortz herrietako alkateak urtarrilaren 12an bildu ziren Vera osasun kontseilariarekin.

TTIPI-TTAPA

Horrela nahi duten Bortzirietako eriak Gipuzkoan artatuak izateko ez da inolako eragozpenik. Hala jakinarazi zien Marta Vera Nafarroako Gobernuako osasun kontseilariak bortz herrietako alkateei urtarrilaren 12an Iruñean egindako bilkuran. Kontseilariarekin batera, Angel Sanz Barea Osasunbideko zuzendaria izan zen eta bortz herrietako alkateak: Jaime Iturria (Arantza), Marisol Taberna (Bera), Migel Mari Irigoien (Etxalar), Lurdes Ibarluzea (Igantzi) eta Peio Etxabide (Lesaka).

Alkateek Bortzirietan zabaldu den kezka berri eman zioten kontseilariari, Osakidetza aldetik Nafarroako eriei eskaintzen zaien zerbitzuan aldaketak izan direla somatu baitute. Kontseilariak, bere aldetik, Osakidetza eta Osa-

sunbideak Bortzirietako erien osasun arretan ez dutela inolako aldaketarik agindu jakinarazi zien alkateei. Hain zuzen, alkateek egoera aldaketa salatu zutenean, Nafarroako ordezkariak Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako osasun kontseilariarekin harremanetan jarri ziren, eta hauek Bortzirietakoak Gipuzkoan artatuan izateko eragozpenik ez dutela baieztatu zieten.

Beraz, Gobernuaren eta Osasunbidearen arabera, Gipuzkoara joate-

ko eragozpenik ez luke izanen eriek. Eta zerbait somatuz gero, horren berri emateko adierazi dute alkateek.

ARKUPEAK-EKIN ERE BILERA

Alkateekin bildu baino bi egun lehenago, Arkupeak elkarteak ere bilera egin zuen osasun kontseilariarekin eta Osasunbideko zuzendariarekin. Berako Lagun Handiak elkartearekin. Berako Lagun Handiak elkarteak Esperanza Ustariz eta Mari-bera eta Arkupeak-eko presidentea den Pedro

Bañares, zuzendaritza batzordeko Jose Mari Irazoki beratarra eta Igantzi ordezkaria den Amador Txoperenarekin elkartu ziren.

Bortzirietako eriak Gipuzkoatik Nafarroara bideratzeko inolako agindurik ez dagoela jakinarazi zien osasun kontseilariak Arkupeak-ekoei, eta Arkupeak eta Lagun Handiak elkarteetako ordezkariak herrialdeen arteko edo zentru medikuen arteko irizpideak bateratzeko eskatu zuten.

HIRI HONDAKINAK

Hilabetero zozketak eginen dira Hiri Hondakin Mankomunitateek banatutako egutegiarekin

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, aurten ere egutegia prestatu dute Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitateak eta Malerreka Mankomunitateak, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako etxeetan banatzeko. Hondakin berezien kamioia herrietatik noiz pasako den jakinarazteko erabiltzen da batez ere egutegia, baina bertzelako informazioa eman eta sentsibilizazio kanpaina egiteko ere aprobetxatzen da. Gisa berean, Kanariar Uhartera bidaia ere zozketatu da azken urteetan. Aurten hori aldatu da, eta hilabetero zozketa bat izanen da. Zonaldeko produktuekin osatutako lote bat eta zonaldeko jatetxe batean bazkari bat zozketatuko dira aurten. Beraz, sei lote eta sei bazkari zozketatuko dira urtean zehar. Zozketa, hilaren lehenbiziko egunetan eginen da, eta irabazleak hilabete hori bukatu baino lehen deitu beharko du Bortzirietako Mankomunitatera (948 63 52 54). Urtarrileko saria lotea da eta zenbaki sariduna hau da: 8.683. Zenbaki saridunaren berri Bortzirietako Mankomunitatearen webgunean emanen da: www.bortziriazabor.com.

Martiko
P.N. Zabal, 4/1n
31791 Bera, Nafarroa
Tel: 948 629010 Fax: 948 629036
www.martiko.com

DENDA ORDUTEGIA:
astilehenetik
ortziralera
06:00etatik
17:00etara

Zalain
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa s/g. 31780 Bera - Nafarroa
T: 948 631 106 | www.zalain.com

elika
Dietetikoa eta elikadura

- Maitasuneko dietetikoa eta elikadura
- Dietetikoa eta elikadura
- Dietetikoa eta elikadura
- Dietetikoa eta elikadura

Eliza, Arribera, 100
4204, 4. biloba | 48841 - Tel: 948 631 283 | elika@elika.com

IGANTZI

KULTURA → UDALAREN EKIMENEZ

Urteko ekitaldien egitaraua prestatu du Kultur Batzordeak

Igandean 88 *minutu* filma ikusteko aukera izanen da

Joxean ORTEGA

2012rako egitaraua prestatu du Kultura Batzordeak, eta hilabetez hilabete gisa aunitzetako ekitaldiak iragarri ditu.

Igande honetan, adibidez, **ilbeltzak 29, 88 minutu** pelikula euskaraz ikusgai izanen da 19:30ean, Ziberrean. Horrez gain, xake erakustaldia egiteko asmoa ere badago, baina lerro hau ekidazterakoan, data zehaztu gabea zen. Nafarroako bi xake txapeldunek begiak itxita partida jokatu dute eta partidak simultaneak ere jokatu dira, jokalariek bat bertze aunitzen aurka aldi berean. **Otsailean** zinema eskainiko da, baita **martxoan** ere. Hilabete honetan kantu zaharren saioa ere egingen da.

Apirilean kintoen eguna egingen da. Egunez desafioak izanen dira eta gauez kontzertua. Mendi irteera ere egingen da. **Maiatzean** mendi irteera egingen da, eta Euskal Herriko dantza talde baten emanaldia ere bai. **Ekainean** Sanjuanak ospatuko dira: hilaren 22an kontzertuak izanen dira

eta 23an San Juan sua. Mendi irteera ere egingen da, baita dantzari ttiki eguna ere. **Uztailean** Lezakako Bandaren kontzertua antolatu nahi da

eta **abuztuko** azken asteburuan, Gazte Eguna.

Irailean, Sanmigel bestez gain, mendi irteera egingen da eta **urrian** bertso saioa eta Euskal

Herriko dantza talde baten emanaldia. **Azarora**ko zinema eta magia saioak aurreikusi dira eta **abendurako** zinema eta dantza ikuskizuna.



ARGAZKIA: J. ORTEGA

Trafiko arazoaren kontrako neurriak

Karrika Nagusian eta orokorrean herri kaskoan sortzen diren trafiko arazoak saihestearren, joan den hilabetean, Foru Polizien trafiko ordezkari batekin elkartu zen Udala. Bilera honek emandakoak karriketan laster ikusiko direla adierazi dute Herriko Etxetik, eta hurrengo aldizkarietan ere emanen da horren berri.

FLASH

Zaborrontzien kokapena

Hondakinak biltzeko edukiontzi batzuen aldaketak tarteko, arazo eta gaizki-ulertuak sortu dira eta lerro hauen bidez, Udalak bar-kamena eskatu nahi die bizilagunei.

Osasun kontuak

Duela bi aste, Nafarroako Gobernuak Osasun Saileko arduradunekin bildu ziren Bortzietako alkateak, eta Udalak herritarrei baieztatu nahi izan dienez, osasun zerbitzua Gipuzkoan jasotzen segituko dute herritarrek. Bolantea lortuta, Donostiako Onkologikoan artatuak izanen dira.

Bestetako herri bazkaria

Joan den urteko bestetan, herri bazkariaren antolakuntzan azken orduko arazo larria moldatzen laguntzeagatik, Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie Zalain jatetxeari.

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 10EAN ETA 11N

Berrizaun auzora eginen den bisitarekin hasiko dituzte gazteek inauteriak

Bi egunez haur,
gazte nahiz
helduentzako
ekitaldiak
izanen dira

TTIPI-TTAPA

Otsaileko bigarren as-
teburuan ospatuko dituz-
te Igantzin inauteriak, or-
tziral eta larunbatarekin.
Etxez etxe eta baserri-
baserriko ibilbidean Oi-
hana Mindegia eta Oi-
hana Elizalde musikari-
ak izanen dituzte lagun.

OTSAILAK 10, ORTZIRALA

• **10:00etan:** Mozorroak
elkartu eta Berrizaun au-
zora joanen dira eske-
an hasteko. Bideguru-
tze aldean dauden etxe
berrietara eta Frain au-
zora ere orduan joanen
dira.

• **14:00etan:** bazkaria
Alinean.

- **15:30ean:** herrian eta Sarrola aldean eskean.
- **Arratsean:** afaria Bil-toki elkartean.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

• **08:00etan:** elkartu eta Irisarri auzotik hasita, herri bazterreko bertze auzoetan ibiliko dira gazteak.

• **16:00etatik aitzinera:** haurrentzako jokoak, berendua eta kalejira.

• **18:00-20:00:** haurren-
tzako musika.

• **19:00-20:00:** boletoen
zoketa.

• **Gauean:** gazteek afa-
ria La Villa jatetxean.

• **00:00etatik aitzinera:**
musika.

INAUTERIAK | otsailaren 10ean eta 11n




IGANTZIKO UDALAK
inauteri zorionitsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei!



OKILA
Tartak, lehoak, steak, arrasterak
+ Oinezako janari orotarran
Lander Sain - Mikel Arsuaga

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK



Ongi pasa inauterian!

Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
605 20 21 26 • 618 90 18 10

LA VILLA JATETXEA



Larunbata eta igandetan
afariak

ONGI PASA INAUTERIAKI

Karrika Nagusia, 14 - IGANTZI (NAFARROA) - T. 948 637 290

SUNBILLA



ARGAZKIA: JOSUNE ETXEBESTE

Antzerkian hasi nahi duenak badu oraindik aukera.

AISIALDIA → PROPOSAMEN BERRIA

Helduendako antzerki taldea sortu nahi da herrian

Dagoeneko sei lagun agertu dira interesatuak

dik badu aukera, mezu bat bidaliz (*ariztigai na@hotmail.com*) edo 619 231647 telefonora deituz.

Maider PETRIRENA

Antzerkia eginez ongi pasatzeko aukera emanez, helduen antzerki talde bat sortu nahi da herrian. Dagoeneko batzuk interesatuak agertu dira, eta guttienez, sei lagun omen dira apuntatuak. Baina bertze norbaitek ere parte hartu nahi badu orain-

Inauterien inguruan oharra

Inauteriak ailegatze-ar diren honetan, ohar-txo baten berri eman nahi dugu: igandearekin, karroza desfilearen ondotik Ulibeltzak Elkartean egiten den bazkarrako txartelak salgai egonen dira Itturburu ostatuan. Animatu!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Hiru errege magoen bisita

Urtero bezala, eta nahiz eta eguraldiak aunitz ez lagundu, urtarrilaren 5ean Sunbillara ere ailegatu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Urteroko ibil-bidea egin zuten, Karrika Nagusitik barna, zubi zaharretik pasatu eta eliz atariraino. Han zegoen jaiotza biziduna. Meltxorrek jaiotzako haurrari opari polit bat eman zion. Ondotik, haur guztiek, adinaren arabera banatuta, erregeei muxu eman zieten, eta beraiek goxokiak banatu zizkieten. Bitartean, herriko abesbatzak bere kantuak eskaini zituen. Bertze urte batez, ongi joan dira Eguberriak.



ARGAZKIA: JONTXU ANZIZAR

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Urtarrilaren 13an Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen gure herrian, azken urteetan bezala. Zortzi bikotek parte hartu zuten eta argazkian ikus daitekeen bezala, Jose Martin eta Teresita Agirre anaia-arrebek irabazi zuten. Bigarrenak losu eta Joseba Apeztegia lehengusuak izan ziren; hirugarrenak Itxegi eta Mañoli eta laugarrenak Agurtxane eta Maria. Herrialde mailako hurrengo fase-ira irabazleak joanen dira eta hau Iruñean izanen da, otsailaren 24an, 25ean eta 26an. Zortea izanez gero, Arbizun jokatuko dute finala martxoaren 17an. Bestalde, eskerrak eman Ulibeltzak Elkarteari, aurten ere sariak berak jarri baititu.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

Karsuk®

Muebles de cocina
Muebles de cuisine
Sukaldeko altxariak

Karlos Pontibar Sáenz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 894 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu



inauteriak

ituren
arantza zubietan

2012



SUNBILLAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 27, 28 eta 29an

Igandeko desfileak borobilduko du aste hondar osoko ospakizuna

Batzuk ortziral goizean hasiko dute inauteri-besta, baserriz baserri egiten den itzuliarekin. Larunbatean karrikan ibiltzeko txanda izanen da. Eta gehienentzat, herri-tar zein bisitariarentzat, igandeko desfileak bereganatuko du atentziorik gehien.

URTARRILAK 27, ortzirala

09:00 Gazteek **gosaria** Itturburun. Ondotik, 2 taldetan banatu eta baserrietara joanen dira, Modesto eta Jose Angel akordeolariarekin. **Bazkaria** Ixtola eta Exkernekobordan.

17:00/20:30 Herriko haurrentzako **txokolata beroa eta musika** Agerralde akordeolariarekin frontoian.

21:30 Eskean dabiltzan **gazteen afaria** Ariztigain kanpalekuan.

Gauean Emakumeen afaria Ulibeltzak Elkartearen eta ondotik **DJ**

URTARRILAK 28, larunbata

10:00 **Gosaria** Itturburu ostatuan.

Gero herrian **eskean** ibiliko dira Modesto eta Joxe Angelekin.

14:00 Eskean dabiltzanentzat **bazkaria** Fondan.

17:00/21:00 Umeentzako **berendua** eta musika Agerralde akordeolariarekin Ulibeltzak Elkartearen.

Gauean gazteek **afaria** Elor-txurin.

URTARRILAK 29, igandea

11:30 **Karrozen desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa bana-



UTZITAKO ARGAZIAK

Giro bikaina izanen da aurten ere Sunbillan.

tuko dira ikusleen artean. **Gero Zozketa:** zerria eta bildotsa.

14:30 Bazkaria Ulibeltzak Elkartearen. **Dantzaldia** Jalisko Band taldearekin.

Jon ANTZIZAR | Sunbillako gaztea

«14.000 euro joaten dira inauterien antolaketan»

Sunbillako gazteentzat hiru egun alai bezain 'gogorrek' dira inauteriak. Kanpokoek igandeko desfilea ezagutzen dute, baina aitzineko bi egunetan baserrietan eta karrikan eskean ibiltzen dira. Lana gogotik egin behar da dena prestatzeko eta Jon Antzizarrek aipatu digunez, «14.000 eurokoko aurrekontua» izan zuten joan den urtean.

Kanpoko jendearentzat gazteen eskea da egitarauko ekitaldirik ezezagunena. Nola antolatzen zarete?

Ortziralean baserrietan ibiltzen gara, 60 bat baserri, bi taldetan banatuak eta larunbatean herrian barna. Baserrietan hagitz ongi hartzen gaituzte, ateak zabal-zabalik, mahaiak janariz eta edariz beteak, dirua ere ematen dute, harrera ederra izaten dugu.

Bitxikeria bezala, mutil ezkongabeak bakarrik ateratzen dira eskean...

Bai, horretan nahiko *arkaiko* gaude, baina ohitura hori da. Ahots batzuk badira hori aldatzea eskatzen dutenak, baina oraingoz mantentzen da: mutila ezkontzen denetik ez da gehiago eskean ibiltzen. Ea lortzen dugun noizbait aldatzea eta emakumeak ere sartzea.

Bi eguneko eskea, arratsetako besta, igandeko desfilea... Denetara ailegatzea ez da erraxa izanen?

Denek ez, baina batzuk badute hori dena egiteko kapazidatea: besta gauean, goizean gosaria, desfilea... Sasoi ederra dute. Nik, tarteren batean atseden hartzen dut.

Eta urtero urtero, dozena bat karroza baino gehiago... Nola lortzen duzue?

Hasierako lauak gazteen karrozak dira, urtero errepikatzen direnak eta janaria eta edaria banatzen dutenak. Gainontzeko karrozak, koadrillaren arabera, batzuk bi hila-bete lehenago hasten dira, berte batzuk azken orduan...

Gastua ere handia izanen da...

Musika dela, karrozak direla, opilak, otorduak... joan den urteko aurrekontua 14.000 eurokoa zen eta erriarekin erditsua ordaintzen da, eskean ere zerbait lortzen da, Udalak 1.500 euroko laguntza ematen du. Azkenean gastuak estaltzea lortzen dugu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jon Antzizar, San Ildefonso haurrarena eginez iazko inauterietan.

larreta
IGELTSU PROIEKTATUA
627.225.514 | 637.921.299
larretajelkua@gmail.com

LIZUN
GAZTANDEGIA
DONDIA PARRA INAUTERIARI
Sunbilla - Tel: 948 450 862

SEKURU
MENDI LANAK • ESKABAZIOAK • GARRAIOAK
ZERRAKURAK • GARBITZE MEKANIKOAK
ZERRAKURA, LUBERRI ETA BELAGIEN
MANTENIMENDUA
DONDIA PARRA INAUTERIARI
Leku-Eder, Buzte • 31791 SUNBILLA • alfonso@yaho.es
Tel./Fax. • 948 450 504 • 948 967 287 • 899 461 394

INAUTERIETAN
zure gosari
eta bazkariak
ARIZTIGAIN
KANPINEAN!!
SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigail.com
www.campingariztigail.com

SUNBILLAKO UDALAK
Inauteri zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi

ttiipi-ttapa
Logotipoen diseinua
Tasaren diseinua
Minuonkiak, folioak
Karpinak, gutunazteak,
tiketak
Kartak, egutegiak
luzki korporatiboak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabel
T. 948 450 458
kulturakart@tts.es
www.kulturakart.com
Andaizeta, 12 - ETXALAR

Tel. 948 450 773
Mugikorra: 018 418 950
Auloi Baserri - SUNBILLA
ongi pasa inauteriak!
ESPELOSIN
eraikuntzak



ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETAKO INAUTERIAK

Joare soinuak lau haizetara eta hiru herrietara hedatuko dira egunotan

Heldu den astelehenean Iturenera joanen dira Zubieta eta Aurtizko joaldunak eta asteartean Zubietara bisita bueltatuko dute

URTARRILAK 30, astelehena


Zubietako joaldunak, mozorro eta karrozek lagunduta, **bisita** egingen diete aurtiztarrei lehenik. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik Iturenera joanen dira. **Lasagako Zarandia** parean, Iturengo joaldunekin elkartu eta herriaren barrena buelta emanen dute. Joaldunek aperitihoa hartzen duten bitartean, Iturengo plazan karroza bakoitzak eta **mozorroek** bakoitzak bere **ikuskitzuna** egingen du, joaldunek uxatu baino lehen.

URTARRILAK 31, asteartea

Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita bueltatuko diete Zubietarrei, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.

OTSAILAK 1, asteazkena

Zubietan egun hau izaten da inauterietako azken eguna. Bazkaldu ondotik kontuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta Aurtitz eta Iturendarrei azken bisita egingen zaie ilunabarrean. Aurtiztar eta iturendarrak asteazkenean bazkaria eta arratsaldean etxe etxe ibiliko dira joare eta trikitilariekin. Ondotik afariak izanen dira elkartean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunekin batera, mozorroak ere ibiliko dira.

OTSAILAK 4, larunbata

Kontuen eguna izanen da Ituren inauterietako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. Inauteriak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Ituren eta Aurtizen igandean. Ituren bazkaria izanen dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzariak bertsolariak eta aikora apostua izanen dira herriko plazan. Bazkaldu ondotik dantzaldia eta kontuen afaria. Aurtitzen xaharren afaria egingen dute igandean.





ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pedro Mutuberria gidaria eta duela 40 urte Errenteriara atera ziren joaldunak omenaldian.

Pedro MUTUBERRIA | Zubietako joaldun eta gidari izandakoa

«Gure gazte denboran 8 edo 10 ateratzen ginen joaldun»

84 urte beteko ditu ilbeltzaren 26an Zubietako Dendarineko Pedro Mutuberriak. Bizia erdia baino gehiago joaldun izan zen, 45 urte, eta bertze 7-8 urtez joaldun taldearen gidari, turuta eta makilarekin. Joan den urteko Amabirjinetan, bertze hainbat joaldunekin batera, Zubietako Udalaren omenaldia jaso zuen, duela 40 urte lehen aldiz herritik atera eta Zubietatik Errenteriara joan zen joaldun taldeko kide izan baitzen.

1971n atera zen lehen aldiz Zubietako joaldun taldea herritik. Nola izan zen?

Ordura arte inauterietan eta Errege bezperan bakarrik ateratzen ginen joaldunak eta orduan Errenteriatik deitu eta joan egin ginen, gure ohitura erakustera. Geroztik beste hainbeste tokitan izan gara, gu kantidadea ateratzen ginen, Frantziara, Espainiara, Nafarroan, Gipuzkoan, 20 urtez Eguberri bezperan Iruñera ailegatua naiz joareak jotzera... baina orain zubietarrak arront gutxi ateratzen dira. Hala ere, joaldunen berezko tokia inauteria eta Errege bezpera izaten segitzen du.

Joan den urteko Amabirjinetan omenaldia ere jaso zenuten...

Bai, Herriko Etxetik deitu ziguten eta nola herritik atera ginenetik 40 urte kunplituak ziren, oraindik bizi garen joaldunei-eta horrelako omenaldi bat egin nahi izan ziguten eta gu gustora. Zubietako herria kanpoan ezagutzera emateko modu polita izan da joaldun taldearekin ateratzea. Nafarroan eta Gipuzkoan Zubieta esanez gero, segidan joaldunekin lotzen dute.

Ituren, Aurtitz eta Zubietaz aparte, beste hainbat herrietan ere sortu dira joaldun taldeak...

Nik ez ditut ikusi, baina hala diote, Berriozarren eta eginak dituztela taldeak. Dударik gabe, gustatu izanen zaie ohitura hori eta zabalduz joan da.

Zu joaldun hasi zinenetik gaur egunera aldatu da ibiltzeko modua?

Gauza beretsua egiten dute gaur egun ere: astelehenean Iturenera joan bisitan, han exhibizioa egin eta asteartean Ituren eta Aurtizkoei harrera egin, hemen ere exhibizioa egin, hameketakoa eta martxa! Joaldun kopurua bai aldatu da. Gure gazte denboran, zortzi edo hamar lagun bakarrik juntatzen ginen joaldun eta orain igual 50 joaldun plantatzen dira. Lehenago karrozarik ez zen egiten, Ikustera etortzen den jendea ere aldatu da. Lehen herrikoak izaten ginen eta gutxi gehiago eta orain, izugarriko jende pila biltzen da, autobusak etortzen dira eskoletatik...

Egin zaitez
ttipi-ttapa ren
harpidedun
(0034)948 63 54 58

ERRANDONEA
OSTATIVA

INAUTERIEAN
GIDO
PAGECARLA

948 450 216 • ZUBIETA

MADERAS
SANTESTEBAN

Ongi pasatu inauterietan!

Mendi Manku,
Pasa inauterietan

Vigil
Mendi Manku iberran

Telesurrunka egiteak
in auterietan

Ongi pasatu
Auterietan inauterietan

www.maderas-santesteban.com

Arrieta pasea 1, ZUBIETA, 948 63 08 77
info@maderas-santesteban.com

ZUBIETAKO UDALAREN OMENALDIA

Zubietako udalak inauteri zorimtsuak
onak dirakione zubietar eta bistari gaztel

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Experto eta partikular
T. 948 577 137
E-posta: imanoli@ituriainma.com
Eskatu sarekonkretu karguonariak gabe

PRIMI
ostatua
Tel. 948 634 052 - ARANTZA

GOIENBURU
LURGINTZA, ASPIKATZETA ETA GASA
eguzki plaka eta biomasa
ongi pasa inauteriak!
Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

PABLOENEA
KARITA | PIRKIA | PLATER KONBINATUAK
BOKAZULOAK | MANGUJEGAK | ETXERDI POTTXEAK
Garaio kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077


ARANTZAKO UDALAK
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei





ARANTZAKO INAUTERIAK | otsailaren 9, 10 eta 11n

Mozorro xurien arrimoan, denek ederki pasatzeko moduko egunak heldu dira

Mozorro xuriek prest dute hiru eguneko inauteri bestaren egitaraua, baina beraien arrimoan, herritarrek nahiz kanpotik datozenek ederki pasatzeko moduko egunak izanen dira.

OTSAILAK 9, ortzeguna

Goizean, Mozorro Xuriek Primitibo ostatuan gosalduko dute. **Ondotik** eskolara ohiko bisita egingen dute musikariekin. Eskolakoek kolorezko bizkarrekoak paratuko dizkiete Mozorro Xuriei eta ondotik kalejira egingen dute. **Segidan** baserrietara joanen dira musikariekin. Eguna Azkilarrea, Aientsa, Eguzkialdea eta Bordalareako baserrietan pasatuko dute. **Arratsaldean** eskolan haurren mozzorro besta. **Gauean** Mozorro Xuriek Primitibo ostatuan afaria.

OTSAILAK 10, ortzirala

Goizean Mozorro Xuriek Primitibon gosaldu eta herrian barna ibiliko dira eskolan. Eskolako haurrak, berriz, baserrietan ibiliko dira puxka-puxka. **Eguerdian** Mozorro Xurien bazkaria Burlada jatetxean. **Arratsaldean** poteoa. **Gauean** emakumeen afaria Burlada jatetxean egingen da eta Aterpen Mozorro Xuriek antolatutako bertso afaria izanen da, Sebastian Lizaso eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin. **Gauerditik** aitzinera dantzaldia Gorapean Modestorekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ortzegunean gosaldu ondotik, bizkarrekoak paratuko dizkiete mozzorro zuriei eskolan inauteak abiatzeko. Ortziraleko bertso afarian ere giro ederra izanen da.

OTSAILAK 11, larunbata

Eguerdian Mozorro Xurien bazkaria Pabloenea jatetxean. **Arratsaldean** haur mozzorrotuen desfilea. **Ondotik** berendua. **Ilunabar aldera** Mozorro Xurien arteko herri kirol desafioa frontoian. **Gauean** Mozorro Xurien afaria Ekaitza Elkartearen. **Ondotik** Hobaneuke taldearekin dantzaldia izanen da Gorapean.


ATERPE
T. 948 634 177
ARANTZA
www.arantza.net

BURLADA
Jatetxea
Eguzki-irratia
Arkate erria
Auzorria
Etxeko postak
Moma eta ogitarrekoak
GRO ONA
T. 948 634 027
ARANTZA



UDALA → EGURALDI TXARRARI AURRE EGITEKO

Frontoian karpa bat egitea lehenetsi du herri batzarrak

Herritarrekin bilera egin dute udal ordezkariak

egiteari lehentasuna ematea adierazi zen, es-talpe bat izateko, azke-neko urtean bestetan euriarekin gertatu zena ikusirik, berriz ez erre-pikatzeko.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Hainbat gai atera ziren mahai gainera urtarailaren 14an egin zen herri batzarrean.

Mattin LARRALDE

Urtarrilaren 14ko arratsaldean, hemezortzi herritar bildu ziren udaletxean, zinegotzi eta alkatearekin. Ideia aunitz atera ziren landu beharreko hainbat gairen inguruan: herria, mendiak, pistak, bide zaharrak berreskuratu...

Horrez gain, Udaltxearen borda (Ixurneko borda) altxatu eta lehenagoko egoeran uzteko asmoa ere atera zen herri batzarrean, Bostorratzen dagoen borda eroria baitago.

Bertze alde batetik, gainerako proiektuak auzolanaren bidez lantzeaz ere solastu zen bileran eta horretarako on-

gi litzateke ahalik eta jende gehien etortzea.

Eguna bereizten denetan, beti bezala, etxez-

etxe bidaliko dira paperak.

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

TTIPI txartela

DESKONTUAK | ZOZKETAK ALDIZKARIA MUSUTRUK
Eskatu zurea 948 63 54 58

557. ALEKO IRABAZLEAK

- * IRRIEN LASURAK DVDa | Pirrits, Porrota eta Mamirotots
Joa & Almiranteak Saso-Ordeztzaile | 910413330
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Carolina Garcia Arana | 61202001
- * OMIHART KAMISETA BAT
Auzolan Elkartea | 910413330
- * LANKU LIBURUA | Gaitzagoerik gabe, Ina aditzaile
Mª Pura Galka Aguirre | 910413330
- * TTIPI SASATIA
Mª Isabel Irizarra Huetzi | 910413330

DESKONTUAK

DONEZTEBE

DANTZAK → JENDEAK ERANTZUN ONA EMAN DU

Bi taldetan banatuta emanen du dantza ikastaroa Erreka elkarteak

Oraindik badago apuntatzeko aukera

Nerea TELLETXEA

Urtarrilaren 20an eman zitzaion hasiera Erreka elkarteak antolatutako dantza ikastaroari. Klaseak ortzirale- ro izanen dira eta jende asko apuntatu denez, bi talde egin behar izan dira, bat 20:00etatik 21:00etara eta bertzea 21:00etatik 22:00etara.

Baten batek oraidik izena eman nahi badu, ez dago arazorik, telefonoz dei dezake (647 569682), mezua bidali (doneztebekodantzariak@hotmail.com) edo ortziraletan gimnasia- ra agertu.

Eskubaloia

Oraindik partidarik galdu ez zuen Anaitasuna liderraren kontra 26-23 irabazi eta gero, Errekako talde seniorrak Txapeldu-



Ba al zenekien...

Iñigo Oskoz eta Jabier Apeztegiak Nafarroako kadeteen selekzioarekin Espainiako Txapelketan parte hartu dutela Murtzian? Eta Ana Mindegia jubeniletan aritu da Espainiako Txapelketan Granadan, Espainiako Kopan irabaziz.

nen Taldean jokatu- ko aurten. Halere, lehendabiziko fasea akitzeko bi partida gelditzen zaizkio, kanpoan Tafallan eta Donezteben Nafarroako Unibertsitatearen kontra.

Euskaltegi- ko matrikulazioa

Malerekako IKA Euskaltegiak 2012ko matrikulazio kanpaina zabaldu du. Euskara ikasi, hobetu edo EGA titulua eskuratzeko asmo duenak otsailaren 3a baino lehen aukera badu euskaltegi- gien matrikulatzeko. Klase presentzialak edo on-line bidez eskainiko dira. Animatu 948 451555ra deituz edo bertara joanda.

Mus txapelketa

Irrintzi ostatuak antolatutako mus txapelketak urtarrilaren 6an izan zuen amaiera, bi hilabeteko iraupena eta gero. Seigarren mus torneo- a, berriz, ortzirale honetan, urtarrilak 27, hasiko da. Ortzirale- ro jokatu- ko da, 22:00etan Irrintzi ostatuan.



ARGAZKIA: JAIME SEIN

Giro ederra Futbolaren Egunean

Pixka bat berandu bada ere, ezin da aipatu gabe utzi abenduaren 31n Futbolaren Eguna ospatu zuela Doneztebe Futbol Taldeak, hainbat kategoriatan partidak jokatuz, horien artean beteranoena (gurasoak, entrenatzaileak, laguntzaileak...). Nobedadea, hala ere, emakumeen partida izan zen, ama batzuk animatu baitziren futbol- zelai berria probatzera eta giro ederra sortu zen.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

Urte zaharra Mendaurren

Urteroko ohiturari segituz, urte zahar egunean Mendaurren ateraldia antolatu zuen Erreka Elkarteak. Kuadrilla polita elkartu zen.

Erregeak

Eguraldiak lagundu ez arren, jendetza hurbildu zen Erregeen kabalgata-

ra. Herriko trikitalari, txistulari, antortxalari eta Zubietako joaldunek girotu- zuten ibilbidea. Eliz ata-

rian haurrek erregeekin egoteko aukera izan zu- ten. Guztien artean opa- ri ugari zozketatu ziren.



Caritasendako jostailu eta diru bilketa

Caritasendako diru eta jostailuak biltzeko denda paratu zen Eguberriak baino lehen, apezaren eta Rosarioren laguntzarekin. Katekesira joaten diren neska-mutikoe- k jostailuak bildu eta elizatarian saldu ziren eta harrera ona izan zuen. Bildutako diru eta jostailu guztiak Caritasera bidali ziren. Bertetik, San Miguel eskolako Guraso Elkarteak bertze ekimen bat abiatu du hilabete honetan. Tarazonako neska bat bihotzetik operatzeko dirua bil- tzea da xedea, Gizarte Asegurantzak ez baitu hori es- taltzen. Dirua lortzeko tapoiak biltze- ari ekin diote, bil- tzen den Tona bakoitzeko 200 euro eskuratu- ko baititu Guraso Elkarteak.

UDALA → EGURALDI TXARRA

Joan den urtean bezala, meza eskaini da ermitan San Anton egunean

30 bat lagun elkartu ziren meza entzutera

Joseba URROTZ

Aurten ere, iaz bezala, San Anton Abade egunean meza ospatu zen ermitan, urte batzuek egin gabe egon eta, bigarren aldiz segidan. Eguraldia berriz ere, bikaina, seguraski herriak duen tokirik eguterean, benetan egote atsegina izan zen, elkartu ziren 30 bat lagunentzat.

Lehen ere erran izan dugu, baina deigarria da ermita hau benetan ez dela San Antonena ba-

karrik, San Kristobalen irudia haundiagoa eta nagusia delako. Gainera, ermitak gehienetan leku apartatutan izaten dira, eta hau, berriz, Benta deitzen den etxebizitza bati itsatsia dago.

Informazio gehiago bilatu beharko litzateke, baina etxe horrek izen hori badu, leku horretatik jendea pasatuko zen garai batean, behar bada Leurtza edo Beintza-Labaien aldera, eta bidaiarien otoitz egiteko lekua izan zitekeen. Kontuan izanda, gainera, San Cristobal bidaiari eta garraiolarien zaindaria dela... Zerikusirik izan ote du? Ea hurrengorako zerbait gehiago ikasten dugun.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Urte batzuetan mezarrik eman gabe egon ondotik, joan den urtean hasi zen berriz.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Oizko zentralera ura daraman kanala

Itxura honekin gelditu da Oizko zentralera ura daraman kanala, konpondu ondotik. Aitzineko TTIPI-TTAPAN kanala hautsi zela eta moldatzeko lanak ere egin zirela kontatu genuen, baina ez genuen nola gelditu den erakutsi. Hona hemen!

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

MERKEALDIA

edredoi fundak - edredoi nordikoak - ohe estalkiak - albornozak
mañdiak - mantelak - kuxinak - toallak

ITUREN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK URTARRILAREN 26TIK AITZINERA

Ortzeguneko joare soinuek irekiko dute inauterietako aroa

Ortziralean inauteri eguna izanen dute eskolan

Arkaitz MINDEGIA

Urtarrilean sartuta, Eguberrietako besta haundiak joan ondotik inauterietako sasoi etortzen da, eta gure herrira ere heldu dira, ortzegunean hasiko baitira. Astebeteko besta egunak heldu dira, tartean atsedena tiki batzuk hartuz. Ortzegunean, Aurtitz eta Iturengo joare eta musika soinuek irekiko dute inauteri giroa, eskean ibiliz. Haurrek puxkak puxkak oihukatu ondotik, afariaren bueltan akituko dute.

Biharamunean atsedena hartuko dute, baina Pulunpa eskola-koek inauterietako eguna ospatuko dute. Larunbatean berriz ere afari baten bueltan bildu ondotik, asteazken gauera arte soinu, joare, mozorro, besta... Denetarik izanen da. Nahiz eta kanpoan astelehen eta astearteak eduki oihartzun gehiena beste egunetan ere besta izaten da.

Xehetasun gehiago gehigarrian. Gure alde- tik, hain maiteak ditugun inauterietara gonbidatu- ak zaudete.

Ibintza kultur taldea

Ibintza Kultur Taldearen zozketako saridunak atera dira: Ariztegi hara- tegiko saria Isabel Ariz- tegi eta Elena Etxebes- teri tokatu zaio; Herriko Ostatuko saria Josefa



ARGAZKIA: ANARA MINDEGIA

Herriko gaztetxoak ari dira joare soinuak barneratzen. Errege bezperako saioaren ondotik, inauterietan izanen dute berriz aukera.

eta Aide zubietarrei eta errege bezperan zozke- tatu zen Altxuneko afa- riak Gorka Fagoagari.

Pulunpa eskola

Eskolako Guraso el- karteak dirua ateratzeko Eguberrietan bi sari eta bi zare zozketatu zituen: lehenbiziko zarearen sa- riduna Roxa izan da; bi- garren zarearen saridu- na Juan Antonio; hiruga- rren saria –Eider ileapan- degian ile mozketeta eta apaintzea– Elori; eta lau- garren saria –Ariztegi harategian 20 euroko ba- lea– Juaniri.

Bertzalde, aipatu be- zala, eskolakoek berai- en inauteriak ospatuko dituzte ortziralean: goi- zean ttikiek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek ipuin kontala- ria izanen dute eta gaine- rakoek Zubietako Juai- nasekin aspaldiko inau- terien bideak landuko dituzte. Eguerdia aldera bazkaria egingen dute eta ondotik, herriari buelta

emanen diete mozorro- turik, soinu eta joaldun- ttikien laguntzaz. Txoko- latada eder batekin eman- nen diete amaiera.

Victor Sagardiaren argazki-obra

Nafarroako Gobernu- ak Victor Sagardia itu- rendarraren argazki- obra argitaratu du. Javi- er Sagardia da bere osa- ba Victor argazkilariari eskainitako liburuen egilea. Egilearen errane- tan, artxiboa gizarte sin-

ple eta landa-giroko gaiei buruzkoa da, garaiko erli- jiotasunean murgildua. Argazkiak gaien arabera ordenatuta daude: argaz- kilaria eta haren artxiboa, familiako argazkiak, fami- liako bilduma, txango- ak eta ibilaldiak, jauregia eta eliza, pertsonak eta haien ingurunea, aldake- tak bizitzan eta paisaian, Iturengo bizitza, Iruñeko bizitza, erretratuak eta familia-taldeak. 500 ale argitaratu dira, eta 22 eu- rotan salduko dira.

HONDAKINAK

Etxean konposta egiteko ontziak banatuko dira Malerrekan

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Manko- munitateak etxean konposta egiteko kanpaina martxan pa- ratu du eta ekimen honen bidez, konpos- tontziak banatuko ditu herritarren artean. Horretarako, ordea, interesatuek izena eman beharko dute Mankomunitatera deituta (948 451746). Urtarrilaren 30a arte egonen da izena emateko epea zabalik. Etxeetan sortzen den zaborren %45 materia organikoa da, eta kopuru hori murriztea da hain zuzen, Male- rrekako Mankomuni- tateak kanpaina honekin lortu nahi duena.



APARAN, S.A.

BIBIKOLAJA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate amuntak eta sukai- de mobleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Bainurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, itabi



Tel: 948 456 080

Fax: 948 450 334

DONEZTEBE

UDALA → MODU BERRIA

Egur loteak ateratzeko lana enpresa baten esku utzi du aurten Udalak

Egurra Alkaxuri alderditik aterako da

Fermin ETXEKOLONEA

Orain arte, bakoitzak bere modura atera izan ditu egur loteak, baita etxera eramane ere. Aurten, ordea, hori aldatu egingen da eta bakoitzak bere aldetik egin beharrean, lana profesionalen esku uztea erabaki du Udalak.

Lanak nori agindu erabakitzeko, Udalak enkantea egin zuen eta hiru eskaintza jaso zituen. Horien artean, Sunbillako Altzuri enpresari esleitu dizkio lanak. Alkaxuri aldetik aterako dira egur loteak.

Egur tona bakoitzeko 29,10 euro kobratuko dira eta etxe bakoitzeko sei-zazpi tona hartuko direla kalkulatu du te Herriko Etxetik.

Interesatuak daudenez, Udalak zerrendak irekiko ditu jendeak izena eman dezane eta horrez gain, etxez-etxe

informazioa ere bidaliko du.

Haur Hezkuntzako eskola bai?

Herrian Haur Hezkuntzako eskola irekiko ote den zurrumurrua zabaldu da azken aldian. Eta ezin dugu baieztatu, baina egia da zurruru-

murrua baino gehiagodela, Udalak horixe eskatu baitio Nafarroako Gobernuari. Urtarrilaren 16an, udal ordezkariak Gobernuarekin bildu ziren Iruñean gaiaz solasteko. Udalekoak kontent etorri ziren, Gobernuo arduradunek ez baitzieten ezezkorik

eman.

Joan den ostiralean, urtarrilak 20, gurasoekin biltzekoa zen Udala beraien iritzia biltzeko. Lerro hauek idazterakoan bilera egin gabea zen, eta hurrengoan aipatuko dugu gaia. Lkusiko da zergatzen den.

Inauteriak gain-gainean

Inauteriak antolatzen laguntzeko, 400 euroko dirulaguntza eman du aurten Udalak. Orain arte 300 euro eman ohi zuten, baina aldi honetan gehiago. Eta inauteriak gainean daudenez, eskaera bat ere egin die Udalak herritarrei: elkartean ordutegiak kontuan har daitezene, herritar guztiak gozatzeko aukera izateko. Bazkariaren ondoren, musika izaten da eta herritar asko musikaren esperotan egoten dira. Hala, 19:00-19:15 aldera mahaitik altxatu eta horrela nahi dutenei, denbora gehiagotan musikaz gozatzeko aukera ematea da eskaeraren helburua.

Bestalde, aipatu, inauterietako otorduen arduraduna Patxiku Mitxelena izanen dela aurten ere. Laguntzaileak Maria Mitxelena, Mertxe Santesteban, Mari Jose Loiarte eta Florita Loiarte izanen dira.

Eta akitzeko, ongi pasatzen inauteriak!



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

San Anton Eguna giro ederrean

Ohiturari eutsiz, San Anton Eguna ospatu zen urtarrilaren 17an. Goizean, 60 bat lagun elkartu ziren ermitan meza entzutera. Herritarrek ez ezik, inguruetako jendeak ere ez zuen hutsik egin nahi izan. Arratsaldean, berriz, dantzaldia izan zen herriko musikariekin eta iluntzean ere nabaritu zen eguna berezia zela. Astez tokatu arren, jendeak ongi erantzun zuen eta egun polita atera zen.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberritasun eta jabilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

ISSAKA: Siltiri, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

ERDIZ
ARKITEKTOAK + ABOKATUAK
ANOLKULARITZA ARHITEKTONIKO ETA JURIDIKOA

TXOSTENAK - PROIEKTUAK
OBRA ZUZENDARITZAK - ZAHARBERFITZIAK
ANOLKULARITZA JURIDIKOA - EERRIETA MOTA GUZTIAK

TELEFONO ARRETA: 17.00etatik 20.00etara
astnehondik ostiralegi

Barañan Etorbidea, 17 - 3. Bulegoa - IRUÑEA

SALDIAS

ERLEAK ETA LIZTORRAK → VESPA VELUTINA LIZTORRA

Asiako liztor beltza hemen da etorria

Urrutina aldean kendu dute lehenbiziko kabia

Markel LIZASOAIN

Basaburu Ttikian ez dugu berri arte sumatu. Saldiasen, lehenbizikoz, Alduntzingo Martin erlezainak harrapatu du kabi bat joan den abenduan. Herri hau zakurraren ipurtzuloan dago, baina erlezainek pentsatzen zuten lehenago edo geroago agertuko zela honata ere. Mendian goiti, gehiago kostatzen zaio hedatzea, baina 800 metrora ere ikusi izandu dituzte kabi horietarik; orduan, ez da harriztekoa hona arteraino ere agertzea. Erreka ondoetan maite dute paper pilota horiek egitea, eta erreka goiti joaten dira hedatuz-hedatuz.

Orain ailegatu berri-tan akaso ez, baina sarri hasiko gara ikaritzen liztor zahar horiekin. Problema ez da erlezainena, denena da. Kabi gehiago egiten omen ditu herri handietan leku basatan baino, zer jana gehiago harrapatzen baitu. Esate batera: arraina maite du, eta arraina saltzen duten merkatuetan, igual, azaltzen da. Frutari ere kalte handia egiten dio, eta, pertsonantzako, hemengo liztorra baino peligrrosoagoa da: kabitik 5 metrora hurbilduz gero eta sumatuz gero, segituan ateratzen dira mordoska bat atakatzera, eta

metro franko egiten dute atzetik segika.

Eta zer egin daiteke? Oraingoz ez da erremediorik. Frantzian hedatu eta hedatu ari da, eta oraindik ez diote aterabiderik eman. Kabiak kentzea, tranpak paratzea eta liztorrak berak nola funtzionatzen duen ikastea da egin daitekeen hoberena.

Eta nork kendu behar ditu kabiak? Erlezainarentzat lan txarra da. Liztorrak erleak baino ezten luzeagoa du, eta moztorro berezi bat behar da; erleetan ibiltzen den moztorroa aisa ziztatzen du. Goiti asko egoten dira kabiak, eta azidenteren bat izateko arriskua dago. Frantzian, suhiltzaileek kendu dituzte berri arte, baina hainbeste ugaritu da, atzeneko gobernua erretiratu egin du zerbitzu hori, garesti ateratzen zaiola eta. Orain, enpresa pribatuak aritzen dira horiek kentzen, eta izugarri garestia da: 100 eurotik 1.000ra bitarte. Nafarroan, suhiltzaileek kendu dituzte batzuk, baina, gerora, ez dakigu haiei eraginaziko dieten lan hori.

Tiroka botatzekotan, udan edo udazkenean izan daiteke egokia, beste urteko erreginak formatzen hasi baino lehen edo formatzen ari direla. Izan ere, liztorraz jakin beharreko gauza da neguan ia denak hil egiten direla eta erreginek bakarrik irautea dutela bizirik ondoko udaberria ar-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Erlezaina lanean.

ATERABIDEA?

Kabiak kentzea, tranpak paratzea eta liztorrak berak nola funtzionatzen duen ikastea da egin daitekeen hoberena.

te, zulo zokoren batean; udaberrian, berriz, ez dira aurreko urteko kabira bueltatzen; urtero, kabi berriak egiten dituzte.

Beste gainekoan, berexitasun bat badu liztor beltzak hemengoak ez duena: belenoa tiratzen du begietara (alerjia eman dezake azala ukitu hutsarekin). Orduan, kabia eskuz kentzekotan, antiojuak ere paratu behar dute. Sarrerako zuloa estali beharra dago esprairekin, esponjarekin edo algodoiarekin; kabia dagoen adarra moztu, zaku batean sartu eta su eman. Ilunabarrean edo goizean goiz egin behar da hori dena, liztor guztiak barreanean lo daudela. Kabiak ttikia bada, sarrera tapatu eta izozkailuan eduki bi ordu, gutxienez (tenperatura kanbioa txarra da liztorrentzat).

ERLEZAINAK ZER EGIN DEZAKE?

Gauza gutxi. Baina gutxi hori egitea ere inportantea da erleei eusteko. Inportantea da udaberri hasieran egiten den

lana, orain esanen dudana: nagatik: liztor erreginak otsail erditsurako-martxorako hasten dira lurpetik ateratzen, jan bila, kabiak egiten eta arrautzeak erruten. Hortik jaitzen diren liztorrak langileak dira. Lehenbiziko langileak hazi bitarte, erregina bera ibiltzen da harata eta honata. Horretaz, udaberriko liztorrak harrapatuz gero, erreginak harrapatzen ari gara, eta hala, kabi gutxiago izanen da inguruan. Nola harrapatu? Orain arte, hobekiena plastikozko botilekin egindako tranpak funtzionatzen dute.

TRANPAK

Aurreko urteko kabitik hurbil paratu behar dute tranpak, 500 metroren barenean, eta erlategian 100 metroren barenean; erlauntzen gainean baino hobe inguruan. Hobe du lurretik metro eta erdira paratzea. Tranparen barenera, zerbeza bota behar da, azukre puxko bat nahasita. Udaberrian azukre gehiago, uda atzenean gutxiago. Hiru egunetik aldatu behar omen da sustantzia. Hori asko da, baina, hiru egunetik ezin bada, ahalik eta maizena aldatu. Inportantea: komeki da aurreko urteko liztor beltzak izozkailuan altxatzea eta, udaberria

ailegatzearrekin, tranpa bakoitzean bat sartzea eta urte guzian bat sartua edukitzea; hartara, usainera etorriko dira liztorrak, eta erleak ere usaina aditu eta ez dira tranpan sartuko. Edozein moduz, zerbezak baino hobekiago funtzionatzen omen du beste sustantzia batek: Frantzian 'erlezainaren zumoa' esaten diote. Mustilua ren gisara egiten da, baina ezti laukiak ibili beharrean, lauki zaharrak ibili behar dute. Orduan: berezka zaharrak uretan urtu, eta ur zikin hori tranparako ibili; asko maite omen du liztorrak.

Plastikozko botilarekin egindako tranpak merkeak dira. Frantzian, bai omen dira tranpa ofizialak ere; Veto pharma enpresak egiten ditu, eta belar-olioa sartzen diote. Ongi funtzionatzen izan behar dute, baina franko garestiak dira.

Urriruko, ikaragarri ugarituak egoten dira liztorrak; 10 litroko pozal bat paratu eta euparaino betetzen omen da.



EZKURRA

GIZARTEA → HISTORIAURREKO AURKIKUNTZAK

Malo inguruan kobazuloaren antzeko zerbait aurkitu da

Horrez gain, harrespilen gisakoak ere badira

Fernando ETXEBERRIA

Historiaurreko aurkikuntza berriak egin dira Malo inguruan. Harrespil edo cromlech-en itxura dutenak agertu dira, baita kobazulo bat ere. Merezki du ezagutzera hurbiltzeak, eta gainera, *Aurrehistoriko gunea* dioten kartel bat ere jarri da.

Orain, ingurua garbitzeko asmoa du boluntarioen talde batek eta laster ekinen dio horri. Aldi berean, kobazuloaren neurriak zein diren jakiteko eta barrura sar daitekeen ikusteko bidea eginen dute.

Bestalde, lagun batek baieztatu digunez, Barranka ostatuaren ondoko errepidearen atzekaldean dagoen zubia XVI. mendekoa da. Honen ingurua ere garbitzeko asmoa ere badago, bistara geldi dadin.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Bistakoa da argazkian ageri direnek megalitoen itxura haundia dutela.

Jubilatuaren urteroko bazkaria

Ohiturari segituz, herriko jubilatuak otsailaren 2an Barranka ostatuan elkartuko dira bazkari eder bat egiteko. 14:00etan egin du-

te hitzordua, baina hori baino lehen, 12:30ean, hildako lagunaren aldeko meza izanen da.

Inoxente eguna

Joan den abendua-
ren 28an, Nafarroako

Gobernuko hezkuntza kontseilariak Ezkurrako eskola berriz irekitzea erabaki zuela kontatu nuen Xorroxin Irratian, eta Eratsun eta Saldias-ko haurrak ere han bilduko zirela. Aldi berean,

HARPIDETZA

Ttipi-Ttaparen urteko kuota 32 eurokoa izanen da Malerreka eta Baztanen

TTIPI-TTAPA

2012an TTIPI-TTAPA etxean jasotzeko urte osoko kuota 32 eurokoa izanen da Malerrekan eta Baztanen, eta 16 eurokoa Leitzan. Leitzaren kasuan, Udalak beste 16na euro ordaindu ditu harpidedun bakoitzeko, guztira 4.416 euro. Malerrekan kasuan, Mankomunitateak 8.800 euroko dirulaguntza eman dio TTIPI-TTAPari 2011n.

krisi ekonomikoaren ondorioz, hiru herriak udal bakarrean elkartuko zirela esan nuen, eta Ezkurra izanen zela eskualdeko hiriburua. Beti bezala, zoriondu ninduten «inozenteak» izan ziren... txantxa deskubritu zuten arte. Hala-ko «lorpena» sinetsi zutenei barkamenak eskatu nahi dizkiet.

Argi ikusi

hartu betaurrekoak!
www.nize-d.com
D Fredua
Etorkizunerako matrikula ezazu

Artsain-Ekaba	Eturm-Aranaz-San Donato	Iturmendi-Arano Beltza
Arantzako Heian Eskola	Gares-Puente la Reina Gares	Lakurtza-Luis Fontes
Arbizuko Heian Eskola	Garrada-Orreaga-Ara	Larrantzar-Inrita Gotzaina
Areso-Nazabal	Gozuela-Andres Nibarbarja Xalzo	Leitza-Erleta
Atarrabia-Atagi	Igantzi Eskola	Lekarberri-Ekarberri
Auritz-Auritzako Eskola	Fulla:	Lasaikarri
Aurtzibon-Aurtzibon	Amaur-Ikastola (Itzaratza)	Lizaso Eskola
Bera-Ricardo Beroja	Bernart Etxepare (Txantrea)	Olaiz-Domingo Badoi
Berriozar-Mendiolde II	Burubour (Burdinburi)	Saldias-Osenta
Betelu-Araxes	Ebort (Mendilorti)	Sangüerango Eskola
Burilaba-Erriñaberr	Hegoalde-Ikastola (Arrosadia)	Santitako Eskola
Donostia-San Miguel	Mendigorri (Mendilorti)	Urdangas Herri Eskola
Elazondo-San Francisco Javier	Patsi-Larrainzar (Robocea)	Uhart-Virgin Blanca
Erri-San Esteban	San Frantzisko (Ake-Zaharra)	Zubi-Napsua-Erriñaga
Estella-Lizama-Remontillo	Sankuzela (San Jorge)	Zubi-Xabier Zubiri
Exaltat-Landapan	Iruñen-Azkonola	Zugarramundi-Urdazua eta
	Irun-Palencia	Baztaneko Herrietako Eskolak

GIZARTEA

ARKUPEAK → ATAL BERRIA ELKARTEAREN BARNE

Mendi taldea sortu du Arkupeak elkarreak

Otsailaren
15ean Ibardinen
bi ateraldi
eginen dira

Fernando ETXEBERRIA

Sail berria sortu du Arkupeak erretiratuen elkarteak: mendi taldea. Zuzendaritza Batzorde berriak hasieratik esku artean zebilkien proiektua da eta delegatuekin abenduaren 28an egingo dako bileran aipatu zen jubilatuen mendi taldea sortzea interesgarria izanen litzatekeela, hilabetero irteeraren bat eta urtean behin Pirinioetara beste bat eginez. Eta halaxe egin da, dagoeneko lanean hasia baita Arkupeak elkartearen mendi taldea.

Hasiera batean, hilabetero inguruko mendietara irteera bat egitea da asmoa, eta gero, Euskal Herriko beste tokietara

eginen dira. Zehazki, otsailaren 15ean Ibardinen eginen da irteera. Bi talde osatuko dira: ibilbide laburra eta luzeagoa. Ibilaldiaren ondotik, nahi izanez gero, inguruan bazkalduko da.

Mendizale bakoitzak bere aldetik joan behar du Ibardinera, eta hitzordua lehenengo apartokalekuan 09:00etan egin da. Apuntatzeko Arkupeak elkartera deitu behar da (948 450878) eta xehetasun gehiagorako 948 630317 edo 659 076597 telefonoetara (Jose Mari Irazoki).

Edozein bazkide izanen du irteeraren bat proposatzeko aukera eta horretarako Fernando Etxeberriarekin jarri behar da harremanetan, bera izanen baita Zuzendaritza Batzordeko koordinatzailea. Oraingoan, bi dira aurreikusitako ateraldiak: Arizkunera bat eta Leitzara bestea, bai-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

2000an Santiagon izan ziren Arkupeak-eko lagunak.

na aurrerago emanen da horien berri. Horiez gain, uztailaren 19tik 23ra Pirinioetara bidaia antolatuko da, Formigal aldera.

Bidaia hau mendizaleentzat da, baina tokia egonez gero, beste bazkideei ere emanen zaie aukera. Hala ere, beraiek antolatutako behar harko dute egunerokoa, gainerakoek mendian pasako baitute eguna.

AURREKARIAK

2000ko Arkupeak elkar-

tearen aldizkarian ageri denez, urte hartan Done Jakue Bidearen Baztango zatia antolatu zen, Dantxarinatek Iruñera, eta Sakanako bidetik Arabako mugarako tartea aukeran emanen. Ateraldi hartan parte hartu zutenak gogotsu gelditu ziren eta Arkupeak-en barne ezinezkoa izan zenez, elkartetik kanpo Goiz Mendi taldea sortu zuten mendi ateraldiak egiteko.

2001eko aldizkariak San-

tiagoko plazan ateratako argazkia jaso zuen, Galiziara bidaia egin zuten jubilatuekin eta hor ageri dira Done Jakue Bidea osorik egin zutenak ere bai.

Geroztik, taldeak bi aldiz egin du aipatu bide hori eta joan den urtean, itsasaldetik egin zuen Done Jakue Bidea. Hortik aparte, hilabetero ateraldiak egin dituzte, eta urtero Pirinioetara bost eguneko irteerak ere bai.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034)948 63 54 58

**BORTZIRI
UNISION ANAIAK**
Sukalderako altzariak

Berriro gurea • LEIŘAKA
Tel.: 948 637 266 • 907 226 891 • Fax: 948 637 511

Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa
TXOTX GARAIA IREKIA

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130



URTARRILAK
28

LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 - DOHAIRIK
02:00etik aintzinerara 9€ eta kontsumizioa bait dagoetik 03:30ak arte.

OTSAILAK
4

XUTIK

00:30 - 8€ Aurrenik 8€ Bertan
Salmenta puntuak: Antzitekoa eta Txokoto (ERRODITA) - El Infiernito Guitarr Shop (Iruña) - Atxaspi (Lesaka)

OTSAILAK
11

LUR DJOTAK

01:00 - 03:00 - DOHAIRIK
02:00etik aintzinerara 9€ eta kontsumizioa bait dagoetik 03:30ak arte.

OTSAILAK
18

INAUTERIAK

01:00 - 02:00 - DOHAIRIK
02:00etik aintzinerara 9€ eta kontsumizioa bait dagoetik 03:30ak arte.
IREXA 03:30ak arte.

OTSAILAK
25

JOSEINA DJ + GOGOS

9€ eta kontsumizioa bait dagoetik 03:30ak arte.



garagardotegia

Orriak, jarraituta eta jasangarria bezperetan irekia
ERRODITA! TEL. 945221111

HEDABIDEAK

KOMUNIKAZIOA → ALDIZKARI IRAKURRIENAK NAFARROAN

Ttipi-Ttapa da Nafarroan gehien irakurtzen den euskarazko argitalpena

29.000 irakurle izan ditu 2011n, 2009an baino 6.000 gehiago

TTIPI-TTAPA

Nafarroan argitaratzen diren euskarazko argitalpenen artean, TTIPI-TTAPA hamabortzekaria da irakurriena. CIES erakundeak Nafarroako Gobernurako egindako ikerketaren arabera, 29.000 irakurle zituen 2011n, urtebete lehenago egindako azterketan baino 4.000 gehiago.

Nafarroako 289.000 herritarrek (biztanleriaren %52,9) Nafarroan berean argitaratzen diren aldizkako argitalpenak irakurri zituzten 2011n; beti ere CIESen arabera.

Galdeketa e-mailaz aztertutako 34 argitalpenen aldizkakotasunaren arabera banatu dituzte: zazpi astekariak dira, lau hamabortz egunez behingoak, hamasei hilean behingoak; bertze zazpiak bertze aldizkakotasun batzuk daukate. Eta azken aldiko irakurleak zehaztu dituzte, 2010eko azterlanarekin alderatutako irakurleak eta irakurleen profila.

Azterketak dioenez, hilabetekariak 142.000 irakurle dituzte (14 urtez



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

2010ean baino 4.000 irakurle gehiago izan ditu 2011n TTIPI-TTAPAK eta 2009an baino 14.000 gehiago.

goitiko Nafarroako populazioarekin (%25,9), astekariak 85.000 (%15,5), hamabortzean behingoenak 61.000 (%11,3) eta gainerakoak (bi, hiru edo sei hilean behingoenak) 115.000 (%21,6).

Gauzak horrela, ikusten da nafarrek argitalpen bat baino gehiago irakurtzen dutela.

Gehien irakurtzen duten astekaria *La Verdad* da: 23.000 irakurle dauka.

Ondotik datoz Tuterako *Plaza Nueva* eta *La voz de la Ribera* (20.000 eta 15.000 irakurle daukate, hurrenez hurren), *La Ribera Semanal* (15.000 irakurle) eta Sakanako euskarazko *Guaixe* aldizkaria (14.000 irakurle dauka).

Hamabortzekarie dagokienez, 29.000 irakurleekin, irakurriena TTIPI-TTAPA aldizkaria da (2010eko azterketan baino 4.000 gehiago ditu eta 2009an baino 6.000 gehiago), gero Lizarrerriko *Calle Mayor* (20.000 irakurle) dago, eta ondotik dator Tafallako *La voz de la Merin-*

dad (13.000 irakurle).

Hilabetekari nagusia *Barrios de Iruña* da (51.000 irakurle dauka); gero datoz Errotxapeako *Ezkaba* (18.000 irakurle), *Al revés* (14.000), *Entreto2 Auzolan* (Lizarrerria, 13.000) eta Iruñerrian *Auzolan* (11.000).

Gainerako aldizkariak dagokienez, honako

DATUA

29.000

IRAKURLE

izan ditu TTIPI-TTAPAK 2011n, CIES-ek egindako ikerketaren arabera.

hauek irakurtzen dira gehien: *Ze Berri* (bihilabetekaria, 42.000 irakurle), hiru hilez behingo *Conocer Navarra* (29.000 irakurle) eta bi hilez behingo *Zona hospitalaria* (26.000 irakurle) eta *Ribera Navarra* (20.000 irakurle).

Galdeketa 14 urteko gorako 1.000 laguni egin zieten, 2010eko urriaren 14tik azaroaren 15era, Nafarroako Hedabideetako Entzuleriari buruzko Azterketa Orokorren bigarren txandarekin batera.

Konfidantza maila %95ekoa da.

Euskarazko hedabideei laguntzeko mozioa baztertu dute UPN, PSN eta PPK

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak ez du onartu euskarazko hedabideak diruz laguntzeko mozioa. Mozioa aurkeztua zuten NaBaik, Bilduk eta Ezkerrak eman zuten aldeko botoa, baina UPNk,

PSNk eta PPKk kontra bozkatu zuten. Hortaz, 2012an dirulaguntzarik gabe geldituko dira Nafarroako euskarazko hedabideak. Bitartean, Canal 4, Canal 6 eta Popular Telebisioren artean, 2 milioi euro banatuko ditu Nafarroako Gobernuak.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
**Nafarroan
orain!**
Berriz arazi taldea

gaztelu sol
kalafaktzioa - sarrasmendua - gasa
iturgintza
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

Gure Haragia
Nuestra Carne

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 4AN

Santa Ageda bezperako kantu itzuliak ez du hutsik egingen aurten

Entsegua larunbat honetan egingen da eskolan

TTIPI-TTAPA

Santa Ageda bezperako usadioarekin bat egin eta aurten ere ez da kantu doinurik faltako gure herrian. Duela bizpahiru urte berreskuratu zen ohitura hau Goizuetan eta aurten ere, otsailaren 4an, larunbata, kantuan ibiliko dira herrian barna.

Joan den urtean bezala, bertsolarien laguntzarekin egingen da kalejira, Josu Garmendia eta Joxe Manuel Oiartzabalekin. 18:00-etan egin dute hitzordua eta plazan, Txino auzoan eta taberna ingurutan ibiliko dira kantuan. Herritarrek, beren aldetik, kanturako gogoak, makilak, baserritarren jantziak eta trikitixa doinuak jarriko dituzte. Umore Ona elkarrean egingen den afariarekin emanen zaio bukaera egunari.

Antolatzaileek herritar guztiei egin diete parte hartzeko gonbidapena.

ENTSEGUA LARUNBATEAN

Santa Ageda bezperarako entsegua larunbat honetan, urtarrilak 28, egingen da, 19:30ean eskolako jangelan.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

30 lagunetik gorako kuadrilla elkartu zen joan den urtean Santa Ageda bezperako egunez.

Kaldereroak

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere kaldereroen eguna errepikatzea erabaki da. Inauterien atarian, otsailaren 18an, izanen da. Dena den, hori baino lehen, entsegua egingen da larunbat honetan, Santa Ageda bezperako entseguarekin batera. Antolatzaile lanetan ari den Juan Antonio Lekuonak jendea animatzeko deia egin die: «iaz 80 bat lagun elkartu ginen eta gustura gelditu ginen. Ea aurten gehiago garen».

Guraso Eskola

Otsailaren 1ean egingen da Guraso Eskola-ko lehenengo saioa. Sare sozialak umeengan duten eraginez eskainiko da hitzaldia 15:30-etik 17:00-etara.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

Antton Apezetxea azpitzapeldun

Antton Apezetxea beste txapel bat lortzetik lau tantora gelditu zen joan den hilabeteen, 14-18 galdu baitzuen Igantziko Enaitz Telletxearen kontra.

ZUZENDARITZA BERRITUA

Urriaz geroztik, lanean ari da Guraso Elkarrean zuzendaritza berria. Maria Apezetxea, Kontxi Klaber eta Bide-txo Uitz dira zuzendaritzako kide berriak eta segituko dutenak Maite Alsua, Marijose Apezetxea, Idoia Zubieta eta Joxemanuel Muñoz di-

ra. Atera direnak, berriz, Igor Elizegi, Jose Luis Elizalde eta Idoia Aranburu dira.

Gaztetxokoko bilera

Larunbatean, hilak 28, Gaztetxokoko bilera egingen da, 18:00etan. 12-16 urte arteko gaztetxo eta gurasoentzat da.

ARANO

Otsailaren 11n ospatuko dituzten aranoarrek inauteriak

Ainhoa ANSA

Aurtengo inauterien seinalea otsailaren 11n egingen da. Goizean puxka biltzea egingo da urteroko moduan eta zomorrotan jantzita atera nahi dutenentzat apuntatzeko zerrenda Kontsejun egongo da jarrita. Izena otsailaren 8rako ematea eskatzen dizuegu, bazkaria prestatu behar duenari lana errazteko.

HERRI ONDAREAREN ALTXORRETAKO BATI AGUR

Inauterietan, dakizuen bezala, azken urteetan zomorrotan jantzi, zahagi dantza eta doinuei buruz ahaztutak genituen zenbait datu eman zizkigun Gorozkeneako Jexuxek bere herri jakintzatik. Aurten Jexuxek utzi egin gaitu, baina berak erakutsitakoa herriaren memorian geldituko da luzerako. Eskerrik asko, Jexux.

Egin zaitez
ttipi-ttapa-
ren harpidedun

(0034)946 63 54 58

Ba al zenekien...

2012ko UEMA eguna Goizuetan egingen dela? Urtarrilaren 14an egin zuen UEMAk batzar nagusia eta orduan jakinarazi zuen.



LEITZA

GIZARTEA → MARTXOAREN 2TIK 4RA IZANEN DIRA

Emakume Abertzaleen V. Topaketa Feministak Leitzan eginen dira

Otsailaren 3an aurkezpena eginen dute Atekabeltz herrigunean

JM BARRIOLA

Emakume Abertzaleen bosgarren Topaketa Feministak Leitzan eginen dira, Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatuta. Baina aldi honetakoa berezia izanen da, Bilgune Feministak hamar urte bete teko baititu aurten.

Martxoaren 2ko arratsaldean hasiko dira ekitaldiak eta hiru egunez, gai asko jarriko dira mahai gainean: prozesu demokratikoa eta emakumeen hitza, elikadura subirautea, emakumeen presoak, zaintza, osasuna, prostituzioa, autodefentsa feminista, hezikidetzeta... Horiez gain, ez da otordurik eta festa girorik faltako, baina egitarau zehatza hurrengo aleetan emanen dugu. Aurretik, Topaketa Feministen aurkezpena otsailaren 3an, ostirala, eginen da, 19:00etan, Atekabeltz herrigunean eta herritar guztiei egin diete joateko gonbitea.

IZEN-EMATEA

Topaketa hauetan parte hartzeko, zabalik dago izena emateko epea. 2012topaketafe-

ministak.wordpress.com -en egin behar da.

Hilerria

Hilerria haunditzeko lanak bukatu dira eta orain nitxo berriak eta kolunbarioak egiteari ekin zaio. Errautsak zabaltzeko leku berezi bat ere landuko da, gaur egun, gero eta ohitura gehiago baitago horretarako. Hasiara batean, 88 nitxo eta 86 kolunbario egokituko dira eta aurrekontua 73.884,72 eurokoa da.

Kolosalak izanduzen

Ilbeltzaren 7an, Bilbon egin zen manifestaziora joateko herritarren erantzuna kolosala izan zen, lau autobus bete baitziren presoen eskubideen alde elkartasuna adierazteko.

Santa Ageda

Kalejira, koplak eta pintxoak

Urtero moduan, Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, haur eta gazteak herritik eskean ibiliko dira. ALKEK antolatuta, iluntzeko 18:30ean herriko plazatik kalejiran abiatuko dira koplak abestuz, eta ondoren karrapean pintxoak eta edariak banatuko dira.



ARGAZKIA: IGOR ASTIBIA

Atekarock bigarren aldiz martxoan

Atekarock jaialdiaren bigarren edizioa eginen da martxoaren 24an. Bost talde ariko dira jaialdian eta Atekabeltz Herrigunea eraikitzen joateko laguntza lortzea izanen du helburu nagusia. Bide batez, egun horretan Herrigunearen izaera «auzolanearan oinarritua» dela azaltzen lagunduko du. Lehengo urtean arrakasta handia izan zuen jaialdi honek.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Olaberriko zubia berritua

Olaberriko zubi zaharra oso egoera txarrean zegoen aspalditik, erortzeko arrisku bizian. Ondorioz, Udalak zimentazio lanak egin berri ditu zubia egokitzeko, 17.738,17 euroko aurrekontua zuten lanak. Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatua dio Udalak.

Otsailaren 11n

Urrezko aizkora

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako saioa jokatu da otsailaren 11n, 19:30ean, Amazabal pilotalekuan. Zilarrezko mailan bi kanporaketa jokatu dira: Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano, Jon Irazu eta Mikel Lasaren aurka ariko dira. Eta bestetik, Iker Vicente eta Mikel Olano, Eneko Saralegi eta Julen Larreauren aurka.

Kanporaketak

Euskal Herriko mus txapelketa

Leitzako saioan, 37 bikotek hartu dute parte eta herrialde mailako kanporaketara sei bikote joanen dira. Herriko saioan, Joseba Lazkano eta Ander Aranburu txapelkun; bigarren Mikel Barberia eta Rekondu; hirugarren Unai Olano eta Andueza eta lauugarren Joseba Zabaleta eta Xabier Otegi.

Zinema

Urtarrila, otsaila eta martxoan

Ostirala eta igande honetan, urtarrilak 27 eta 29, *Nader y Simin. Una Separación* filma ikusgai izanen da. Otsailaren 3 eta 5ean *Eva* ikuszeko aukera izanen da; eta otsailaren 10 eta 12an *Melancolía*. Beti bezala, emanaldiak ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean izanen dira.

UDALA → 2012KO GASTUAK ETA SARRERAK

Zergak eta tasak igo egin dira urte berriarekin batera

802.500 euroko
aurrekontua
izanen du
Udalak aurtan

Juana Mari SAIZAR

2012ko aurrekontua onartu du Udalak, guztira 802.500 eurokoa. Horretaz gain, hainbat berri buruzko informazioa eta aldaketen berri eman du Udalak. Alde batetik, urte hasieratik zergak eta tasak igo egin dira, egoera ekonomikoak hala behartuta eta gainera, nonbait, beste inguruko herriekin konparatuz, zerga eta tasa baxuenak izaten omen ditugu aresoarrok orokorren.

Egingo diren aldaketak hauek izango dira: kontribuzioak % 10eko

igoera izango du, saneamendua 35 eurotik 45 eurora igoko da, eta ur hornidura 40 eurotik 45era. Azkenik Wi-Fi zerbitzuaren tasari KPlage hituko zaio, eta honen harira, pensatzen ari dira indar gehiagokoa martxan jartzea, orain gutxiantza baitu, eta ordenagailuz lana edo prezako zerbitu egin behar denean oso mantso ibiltzea toka daiteke, jende askok erabiltzen duelako ordu berean.

Bestalde, diru sarrerak jeitsi egin dira. Orain arte, ehiza postuak eta basogintza diru iturri garrantzitsua izan arren, hauen sarrerak ia erdira jeitsi dira. Hala ere, Eluseder industrialdean 350.000 euroko aurrekontua duten hobekuntza lanak egingo dituzte,



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Inauteriak asteburuan

Asteburu honetan, ilbeltzaren 27, 28 eta 29an ospatuko dira inauteriak. Iaz Lagun Artekoek apustu handia egin zuten egitarau herrikoi eta osatu bat antolatuz eta izandako emaitzekin oso gustora agertu ondoren, aurtan ere ildo beretik jarraitzea pentsatu dute. Hala ere, Lagun Arteaz gain, Udalak eta Guraso Elkarteak ere parte hartu dute antolaketan eta elkarlanarekin aurrera aterako direlakoan herritarrei animatzeko eskatu diete. Beraz disfrutatu, mozorrotu eta parte hartu!

eta hori izan da 2012ra-ko aurrekontua igo izanaren arrazoia. Bertan dauden enpresek orain arte hobekuntzak nabaritu dituzte, baina orain beren gain joan da obraren finantzaketa.

ETXEBIZITZAK

Etxebizitza berrien gaia

ere aurrera doa, enpresa sustatzailearekin behin behineko hitzarmena adostu baitu Udalak.

Etxeen ezaugarriak hauek izango dira: hiru eraikin egingo dira, horietako bakoitza 90m² inguruko zortzi etxebizitzaz osatua. Lehenen-

goarekin hasi eta besteak beharrendaren arabera egiten joango dira, eta etxe guztiak lau urteren buruan bukatuak egongo dira. Iraila edo urria aldera hasteko asmoa daukate dena ondo bada, oraindik Nafarroako Gobernuak baimendu behar baitu.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIHERRI | BERÁ (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETITZA | BETEJUI
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTIANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

BAZTAN

UDALA → UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Udala UEMAn sartzeko aukera mahai gainean dago

UEMA zer den azaltzeko hitzaldia otsailaren 2an

TTIPI-TTAPA

Udal Euskara Batzordearen bileretan, behin eta berriz atera den gaietako bat izan da Udala UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) sartzeko asmoa. Bide horretatik, Baztanek UEMAn sartzeko baldintzak betetzen dituen (bertzeak bertze,

udalarriaren %70tik goiti euskalduna izatea, eta UEMako kide izatea «interesgarria» litza-tekeela iritzita, UEMAringana jo zuen Euskara Batzordeak.

Baina UEMako kide izateko, lehenik eta behin baztandarrek UEMA zer den jakitea garrantzitsutzat jo dute eta hori dela eta, UEMA zer den azaltzeko hitzaldia antolatatu da. Otsailaren 2an izanen da, 18:00etan, Arizkunenean. Solasaldi irekia izanen da, nahi duen guztiarendako.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Karakola segi hola bertze 20 urtez

Ixilik nola ez, hobe da abestu, eta gure musika mundu zaharra deuseztu, kitarra, bateria ta saxoa prestu, hau maite ez duenak bitzerik ez du. Kaixo lagun guztiok gu gara hertzainak... Egunero-egunero, ilunabarrean, hoguei urtez, Xorroxin piztean kantu hau, eta egunero Josetxoren pentsaera aditzen dugu. Zeinen fite gan diren 20 urte! Eta hasierako freskotasunez! Erratzuko Zubi-punta ostatuan, *Karakola, segi hola* irratsaioaren urteurrena ospatu zen. Hantxe ziren denak, eta ez zegoena telefonoz sartu zen. Buruxuriak, ile-horiak eta beltzaranak, adin guztietakoak, Begoña, Xumuxu, Xabier ostatu, Xabier Ospital, Mari Karmen... Bertze batzuk falta, Tomson... Besta polita eta hunkigarria izan zen. Hasiera-hasierakoak eta oraingoak, elkarrizketak, muxika zuzenean, eta akitzeko tarta eta pintxoak. Hemendiak bartz urteetarat berriz Zubipuntan elkartuko garelakoan. Aunitz urtez Josetxo!

A R I Z K U N

B A Z T A N

URBANIZATUTAKO LUR EREMUEN

SALMENTA

66.000€-tik hasita

500m²-tik hasita

Promociones
Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Berr. 6 - behea
31700 Elizondo
Tel. 948 580 344
info@lindutx.com
www.lindutx.com

Hargibel Enkaintzak, S.L.

AZPIEGITURA → BERREGITURAKETA ARGITERIAN

Kontsumo arduratsua lortzeko argiteria publikoan aldaketak egingen dira

Argiterian 220.000 euro gastatzen dira Baztanen

TTIPI-TTAPA

«Baztanen gaur egun argiteria publikoaren gastua guti goitibeheiti 220.000 eurokoa dela eta kale batzuk sobera argiturik daudela ikusita», herrietako alkate eta kargodunekin elkarlanean, argiteria publikoa berregituratzea erabaki du Udalak. Helburua, «argiteria publiko logiko, eraginkor eta arduratsua» bilatzea dela adierazi du Mikel

Ortega zinegotziak ohar bidez, «baztandarrentzako sekulako zama den gastu arrunta jeitsi bide-nabar». Baztan guztian paratuko da martxan ekimena, Elizondon hasita, «bertan egiten delako kontsumo eta energia xahutze haundiena», dio oharak, baita Baztan Berri auzoa eta Santiago karrikak «horren adibide garbiak», direla ere.

Argi itzalketak, potentzia ajustatzeak eta fototelulen erregulatzeak egingen dira hasieran, eta ondotik, udal eraikinen auditoriak eta inbertsioak, bigarren hauek dirulaguntzen arabera.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO/MAITANE MARITORENA

Inauteri usaina nabari da

Hasia da Baztango inauteri besta. Urtarrilaren 13an eta 14an Anizen eta 21ean Berroetan egin zuten inauterien seinalea, batean eta bertzean etxez-etxe ibiliz. Bi herrietako inauteriak elkarrekin ospatu zituzten Aniz eta Berroetako gazteek, elkartean egindako gosariarekin hasiz eta afariarekin akituz. Zigakoak ere laster izanen dira, otsailaren 10ean eta 11n ospatuko dira inauteriak, etxe eta baserrietara bisita eginez. Bertetik, Gizakunde otsailaren 4an izanen da. Gareak, txistua, hartza, sagardantzariak eta mozorroek Arizkundik abiatuz Erratzurako bidea hartuko dute. Erratzun itzulia eman ondotik, Etxelebertzeko elkartean afaria izanen dute. Dagoeneko mozorro eta sagardantza tailerrak martxan daude otsailaren 4koa besta borobila ateratzeko. Orakundeak ere otsailean izanen dira, hilabeteko hirugarren asteburuan hasita.

Aldaketak «behin behineko» izanen dira eta «beharra ikusten bada, aldaketa gehiago» egingen dira. «tea ez du baztertu Udalak».

Aurrematrikulazio epea: otsailaren 6tik 13ra
Bilera informatiboa: Parkeko Ikastolan, otsailak 1, asteazkena, 17:00etan

HAZI BIZI HAZI BIZI

BAZTAN IKASTOLA

UDAL ESKOLA PUBLIKOA

Mendimuerta, zig | 31700 ELIZONDOKO
T 948 45 24 48 • 948 58 02 58 | baztan@ikastola.net | www.baztanikastola.com

BAZTAN BALLEKO UDALA

BAZTAN

UDALA → BERRIPAPER ELEKTRONIKOA

Almandozko harrobiari luzapen baimena eman ala ez Batzar Nagusian erabakiko da

Berripaper elektronikoa kaleratu du Bilduk

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, abenduan ere berripaper elektronikoa kalera-
tu du Bilduk, hainbat gai landuz.

HERRI-LURRETAN BARATZEAK

Udalak herri-lurretan baratzeak egiteko ekimena paratu zuen joan den urte hondarrean martxan eta Bilduk jakinarazi duenez, 40 baztandarrek eskatu dute lurrea, gehienak Elizondon baina bertze herrietan ere bai. Eskatzaile gehienek norbere hornikuntzarako omen dute, baina kontsumo-sareak sortu eta beraien lanbide izateko helburuarekin eskatu duenik ere ba omen da. Honekin lotuta, bertako haziak biltzeko azpibatzerde bat eratu da.

ZABORRAK

Zaborren gaiaren harira, konpostagailuak eskatzeko deialdia ere egin du Udalak. Bilduk berripaperean dioenez, berririetan bizi den jendearendako konpostagailu indibidualak eskainiko dira; eta Elizondon,

BaztanBerri auzoko zenbait bizitza-blokerekin konpostagailu kolektiboen esperientzia-pilotua proposatuko da.

ALMANDOZKO HARROBIA

Almandozko harrobi-az ere ari dira berripaperean. Duela hiru urte inguru Atxa harrobiak usiatiegia handitzeko prozesua abiatu zuen eta orain hilabete batzuk Nafarroako Gobernuaren baimena iritsi zen. Horren arabera, Batzar Nagusiak bere erabakia hartu behar du.

Bilduren irudiko, «Baztango pistetarako zaborrak eta hainbat lanetako legarrak bertatik ateratzen dira, hortaz, bailararendako beharrezkoa da». Alta, Almandozko herriari galdetuta, harrobia haunditzearen aurka agertu zen batzarea joan den abenduan. «Herritarrekin oraino ere akordio baterat iristeko aukerak» daudela uste du Bilduk, eta azken erabakia ondoko Batzar Nagusirako utziko dela adierazi du. Gaineratu duenez, «horretarako batzorde bat eratuko dugu herritarrekin eta enpresarekin akordio bat egin, hori herriko batzarrerat aurkezteko».

DIRU KONTUAK

Diru kontuez ere mintzo da Bildu. Nafarroa-



ARGAZKIA: XALOA TELEBISTA

Xaloa telebistako zozketaren sarituak

Oronoko eskolako Joel, Amaia, Beñat eta Naia izan ziren Xaloa Telebistaren zozketako zenbaki sarituak atera zituztenak. Hauek izan dira sarituak: **lehendabiziko saria**, landaetxe batean bi lagunendako egonaldia, 5.660 zenbakiarentzat izan da (Albaitaritzan saldua) eta honen ordezkotako zenbakia 12.382 da (Arizkongo herriak hartua). **Bigarren saria**, bertako jatetxe batean bi lagunendako otordua 14.455 zenbakiarentzat da (Arraiozko herriak hartua) eta ordezkotako 13.714 (Arizkongo herriak hartua). **Hirugarren saria**, bertako produktuez osatutako saskia, 1.466 zenbakiarentzat da (Kastonean saldua) eta ordezkotako 9.147 da (Txokoto ostatuan saldua). **Laugarren saria**, Txalaparta argitaletxeak eskainitako liburu sorta, 10.505 entzatzat da (Titi ostatuan saldua) eta ordezkotako 3.573 zenbakia da (Malkorran saldua). Sarituak aurkezteko epea ortzegun honetan, urtarrilak 26, akituko da.

ko Gobernuaren murrizketak tarteko, Gobernuak ez dizkio gastu arruntetarako aitzinetik hitzartutako 54.904 euro emanen Udalari. Horrez gain, azaroko uholdeen premiazko lanak egiteko Udalak lau urteko planean sartutako 2012rako hainbat proiektu bertan behera utzi beharko dituela erran du Bilduk. Uholdekeragindako kalteen lanak 150.000 eurokoak direla dio eta Gobernuak 52.000 euro agindu dituenaz, Almandozko zeharbideko eta Zigako hilerria handitzeko lanak gibelatu beharko direla adierazi du.

Aitzineko Udalak NELS Nafarroako toki entitateen iraukortasunerako saretik ateratzeko erabakia hartu gatik, azken osoko bilkuran sare horretan segitzea erabaki zela ere jakinarazi du Bilduk. Sarean segituz, «Baztango eraikin publikoetan eta

kale argiterian energia kontsumoa aurrezteko auditoria egiteko dirulaguntza jasotzea» da Bilduren helburua. Auditoriak 54.000 euroko aurrekontua izanen luke eta Udalak horietatik 13.000 euro ordaindu beharko omen litzuke, eta gainerakoa, behin hitzarmena eginda, NELS-en laguntzarekin ordainduko omen da.

Energia aurrezteko planarekin 20.000 euro

aurrez daitezkeela kalkulatu da.

UDAL IGERILEKUA

Giltxaurdi udal igerilekuan kudeaketa publikoa egitearen aldekoa da Bildu eta helburu horrekin, aholkulari juridikoekin solastu eta lanegutegia finkatu dutela dio: «Udaberrirako kirol instalakuntzen kudeaketa enpresa publiko baten bidez egin ahal izatea espero dugu».

LARRALDEA
eta
LINDOURIENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolosa naztoa - LEKAROI | 948 452123 - 626 494317
LINDOURIENBORDA | Nafaz naztoa - LESAKA | 948 637212

baztanoil



T. 948 452 309 | M. 677 310 009 | www.baztanoil.com

GASOLIOA ETXERA



**AUTOMOZIOA
A GASOLIOA**

**NEKAZARITZAKOA
B GASOLIOA**

**BEROKUNTZA
C GASOLIOA**

REPSOL
Diesel e⁺

REPSOL
AgroDiesel 10e

REPSOL
Energy e⁺

BAZTAN

EUSKARA → UDALAREN EKIMENA

Administrazio- hizkuntzan euskaraz trebatzeko ikastaroa antolatu du Udalak

Bulegoetako hamar udal langile ari dira ikastaroan

TTIPI-TTAPA

Udalak ikastaroa antolatu du udaleko langileei zuzenduta. Helburua langileak euskarazko administrazio-hizkuntzan trebatzea da. Izan ere, Udaleko langileak euskaldunak badira ere, euskararen erabilera aunitz handitu da udalean, eta gero eta gehiago dira euskaraz sortu beharreko dokumentuak.

Beraz, baztandarren hizkuntz eskubideak bermatzeko eta ahoz zein idatziz dokumentu guztiak euskaraz ere jasotzeko ikastaro honen beharra ikusi du Udalak eta behar horri erantzutera dator ikastaroa. NAPIko (Nafarroako Administrazio

Publikoaren Institutua) irakasle batek ematen du, udaletxera astean behin etorrira.

Udal bulegoetako hamar langilek hartu dute parte eta lehendabiziko saio honen balorazioa arras positiboa izan dela adierazi dute Udalletik.

Liburu aurkezpena Elizondoko Gaztetxean

Urteko lehendabiziko hilabetea mugitua izaten ari da Elizondoko Gaztetxean. Urtarrilaren 6an auzolanean aritu ziren eta 14rako truke merkatua antolatu zuten.

Eta ortziral honetan, urtarrilak 27, *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* Edurne Elizondo berraren liburua aurkezpena egingen da gaztetxean, 20:30ean hasita.

MENDIA → 2012KO EGUTEGIA

31 mendi irteera egingen ditu 2012an Baztango Mendigoizaleak



ARGAZKIA: ESKIZ INFORMATIKA

Urte berriarekin batera, 2012ko irteerak zehaztu ditu Baztango Mendigoizale taldeak. Aurten, orain arte, Elizondotik **Egozkuerako** bidea egin dute, Arizkundik **Burgara** bertze mendi irteera bat ere bai eta **Beintza-Labaienera** ere egin dute ateraldia. Igan de honetan, berriz, urtarrilak 29, Azpilkuetatik abiatuta **Alkurruntzera** joanen dira, 08:00etan aterako dira.

Otsailaren 5ean Berroetatik atera **Abartanera** joanen dira; hilaren 12an Burkaitzetik **Zubirira** eta 26an Oronoztik **Oteixonera**.

Martxoaren 3an **Astigarragara** joanen dira; hilaren 11n Burkaitzeatik **Egurtegira**; 18an **Artzamendira**; 25ean Amaiurtik **Otsondora** (Baztango XIX. Mendi Itzuliaren zati bat).

Apirilaren 1ean Urriztitik **Antsasategira** joanen dira (mendi Itzuliaren zati bat); hilaren 15ean **Hondarribira**; 22an Telleritik **Arranomendira** (mendi itzuliaren zatia); eta 29an Erratzutik **Baigorri** (Nafarroaren Eguna).

Maiatzaren 6an Lizarmeakatik **Azkarrera** egingen da bidea (mendi itzuliaren zatia); 13an Amaiurtik **Senperera**; 20an **Arantzako Mendi Itzulia** egingen da eta 27an **Baztango XIX. Mendi Itzulia**, Amaiurren abiatu eta akituko dena.

Ekainaren 3an **Artikutzara** ateraldia antolatu da; 10ean **Baztan Herri Herri** irteera egingen da Almandoztik Arizkunera eta 17an **Lesakako Mendi Itzulia** egitera joanen dira.

Udan atsedean hartu ondotik, azaroaren 4an Lekaroztik abiatuta **Unbotora** joanen dira; 11n Almandoztik **Gartzagara**; 18an Elizondotik **Auritzera** eta 25ean Baigorritik **Munoara**.

Abenduaren 2an Negusarotik **Erdizera** joanen dira; 9an Altzarrekatik **Urrizpilotara**; 16an Etxeberrikobordatik **Harrikulunkara**; 23an Lekaroztik **Legatera**; 30ean Arizkundik **Auzara**.

Aldaketak aitzinetik www.baztango-mendigoizaleak.org webgunean jakinaraziko da.

ANYXIONA Real Estate

Avda. de la Libertad, 16, Euzkadi • 948 591 807 • 948 591 853
info@anyxiona.com • www.anyxiona.com



ARGAZKIA: AINGERU AMOREBIETA

Olentzero Gartzaingo eskolan

Aitzineko alean aipatu gabe gelditu zen, baina Eguberrietako oporren aitzinetik, Olentzeroren etorrera ospatu zuten Gartzaingo eskolan, antzerki eta musikarekin.

KIROLA → FRONTENIS TXAPELKETA

30 emakumezko bikotek parte hartuko dute Baztango Frontenis Txapelketan

Larunbat honetan emanen zaio hasiera

Maite OTEIZA

Erratzuko Emazteki-en Frontenis Txapelketari lekuko hartuz, orain bailara osokoa hasiko da. Larunbat honetan, ilbeltzak 28, Baztango Emakumezkoen Frontenis Txapelketari ekinen zaio. Guztira 30 bikotek eman dute izena eta partidak Amaiur, Erratzu, Arizkun eta Oronozko pilotalekuan jostatuko dira. Finalerdiak eta finala,

berri, Irurita pilotalekuan izanen da.

ERRATZUKO TXAPELKETA

Gan den ilbeltzaren 14an, Etxelebertzeko frontoian, Erratzuko Emazteki-en Frontenis Txapelketako hirugarren eta laugarren postuko lehian eta finala jokatu ziren. Harmailetan jende andana bildu zen herriko emaztekiak animatzeko eta olatua ere egin zen. Hirugarren eta laugarren posturako lehian, Roxa eta Agurtzanek 22-30 galdu zuten Oihana eta Marijoxeren kontra. Eta finalean, Joxune eta Amaiak 30-15 irabazi zio-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Erratzuko emakumezkoen frontenis txapelketako jokalaririk.

ten Manttoni eta Ainhoari (Idoia). Partiden ondoren, sari banaketak egin eta Kastonean afari goxoa batekin akituz eman zuten txapelketa.

Erratzu bizirik

Urteak dira Erratzuko kultur elkarteak sortu zela. Betidanik izan duen erronketako bat, ekitaldiak dohain egin daitezkeela erakustea izan da.

Beriki 2011ko balorazioa aurkeztu du, martxan paratutako ekimen berri emanez: kantu zaharren tailerra (asteleheneretan 20 lagun biltzen

ditu), dantza tailerra (ortziral eta larunbatetan 25 lagun biltzen ditu), musika banda (hilabetean behin entsegua)... Horiek denak 2012an ere segituko dutela adierazi dute kultur elkartetik. Ez dira, ordea, antolatutako jarduerak bakarrik izan: bertso poteoa eta afaria, bi diapositiba emanaldi (70 lagun bildu ziren), Mendebaldeko Saharako brigadak janaria eramanez, *Mumia free* dokumentala, Eider Rodriguez idazlearen solasaldia, emazteki-en frontenis txapelketa, *Karakola segi*

hola saioaren besta...

Otsailean, berri, Gizakunde-otsailak 4-, oilar dantza-otsailak 15- eta inauteriak izanen dira-otsailak 19, 20 eta 21-. Eta «dena musutruk» antolatu dutela azaldu dute elkartetik: «auzolaren planteamenduari segituz, kultur jarduerak herriar, partehartzaile, autogestionatu eta doakoak egitea posible dela azpimarratuz; elkarlanean bitartez jendartearen kultur asetze maila betetzea posible dela erakutsiz». Aurten ere bide beretik segituko dute.

SUMINISTROS YANCI

35 urteko esperientzia

ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzaileak

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA
- TERMIKOA

IRITEN BIDE ENERGETIKO BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

ZERRITZU TERAPIKO 494
IRANATZAILA OFIZIALA

TATANO

Zaldubia Industrialdea, 2 - IRURITA - 948 580 109

BAZTAN

ORNOZ → URTARRILAREN 26TIK 28RA

Asteburu honetan ospatuko dira Oronoz-Mugairin inauteriak

Ortzeguneko gosariarekin hasiko da mozorro besta

TTIPI-TTAPA

Aurten ere urtarileko azken asteburuan ospatuko dira Oronoz-Mugairin inauteriak, ortzegun honetan, urtarrilak 26, hasi eta larunbatera bitarte. Egunez egun hau izanen da egitaraua:

HILAK 26, ORTZEGUNA

- **Goizean:** herriko gazteek Pierresenea ostatuan gosaria egingen dute.
- **Ondotik:** baserrietan barna ibiliko dira Frantxisko akordeoilariarekin laguntzarekin.

HILAK 27, ORTZIRALA

- **Goizean:** herriko gazteek gosaria egingen dute.
- **Ondotik:** herrian barna ibiliko dira Frantxisko akordeoilariaren laguntzarekin.

HILAK 28, LARUNBATA

- **Goizean:** herriko gazteek gosaria egingen dute.
- **Ondotik:** herriko azken etxeetara joan ondotik, Zozaiara joanen dira.
- **Gauean:** herri afaria egingen da Pierresenea ostatuan.
- **Ondotik:** Frantxisko akordeoilaria alaituko du giroa. Horrela emanen zaio bukaera inauteriei.

INAUTERIAK | urtarrilaren 26tik 28ra



ARGAZKIAK: SILVIA JAUREGI, MIREN GOÑI ETA GURUTZE AIZPURI

TTIPI-TTAPA ALDIKARIA
SAHE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/TTIPI-TTAPA

Pierresenea

OSTATU · JATETXEA

Ogi puzt
inauterik!

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriztezu aluzoa · T. 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ONGI ETORRI

Bokatak · Pintxoak · Plater konbinatuak

Ogi puzt inauterik!

948 59 20 26
ORNOZ-MUGAIRI

ERREKA-ALDE
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrak + Teknologia
Sualetzak + Armarzu enporetzak + Elvaterriak
PVC eta aluminiozko leihoak

Tfnoa: 948 592 070 · ORNOZ-MUGAIRI

ttipi-ttapa

oprena bizkaitarra 1984tik 2004ra
dialo telefono honetara

(0034) 948 63 54 58

www.ttipi.net

Okindegia · *Jatetxea*

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

A R I Z K U N

VPO Erregimen Bereziko etxebizitzak
laister eraikitzeakoak

90 m² inguru
Trastelekuarekin, bajearekin eta sukalde ekipatuarekin



**IZENA EMATEKO EPEA:
2012ko martxoaren 31 arte**

Zure etxea, zure bizitza



Encomienda
Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Berri, 6 - behea
31700 Elizondo
Tel. 948 580 344
info@lindutx.com
www.lindutx.com



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

BAZTAN

GIZARTEA → MAGNAREN HARROBI PROIEKTUA

Zilbetiko Magnaren proiektua eztabaidatzeko ezohiko udal batzarra eskatu du UPNk

Kintori buruzko erabakiak Udalak hartu behar dituela dio

TTIPI-TTAPA

Magna enpresak Zilbetin egin gogo duen harrobi proiektuaz eztabaidatzeko eta tunela egin ahal izateko herrilurrak uzteko eskariaren inguruan Udalaren jarrera argitzeko, ezohiko udal batzarra eskatu du UPNk. Bere ustez, Udala da Kintoko Mankomunitateari dagozkion gaitan erabakitze ahalmena daukan erakunde, eta ez Batzar Orokorra.

UPNren erranetan, kompetentzia horren jakitun da udal korporazio osoa eta horrela nabarmentzen du alkaterean jokaerak ere, «Magnaren proiektuaren alegazioak udal batzarrak onartzeko aurkeztu baitzituen» irailaren 20ko udal batzarrean. «Ez du balio kompetentzia gehien interesatzen gaituen erakundeare ematea, komentziaren arabera», dio UPNk.

BILDUREN OHARRA

Bilduri, ordea, UPNren eskaera «Batzar Nagusiarekiko eta azken hilabeteotan gaia landu duen jendearekiko

errespetu falta» iruditu zaio eta prozesuaren hasieran egin beharko lukeela. Eskaera ulertezina zaio Bilduri, Batzar Nagusiak gai honetan kompetentziarik ez dela erran eta UPNk Batzar Nagusira idatzia aurkeztu eta botazioan parte hartu zuelako.

UPNren intentzioa «batzerrak nahastea» dela uste du, «komunikabideetan behin eta berri agertuz, Baztanendako proposamenak ekartzeko ezintasuna arintzeko asmoarekin». Ordenantza berrietan heldu dena azpimarratu du: «Batzar Nagusiak herri-lur guztien kontserbazio, defentsa, hobekuntza eta berreskuratzea zainduko du eta herri-lurrean kalteak eragiten ahal dituen edozein pribatizazio saio nahiz ekintzaren aurka agertuko da». Juntakideek oinarriko arau honetara lotu beharko luketeela dio Bilduk, baina «bistan denez, UPNren posizioak ordenantza hauen oinarriaren kontra egiten du».



ARGAZKIA: ONDIKOL

Babaren Erregearen koroatze ekitaldia jendetza izan da

Nafarroako Erresumako Babaren Erregearen koroatzea egin zen urtarrilaren 14an Amaiurko elizan. Jendetza bildu zen Xuban Zaldainen «kargu hartzean», eta bere armarran ageri den bezala, Amaiurrek Nafarroako Erresumarekin leial izaten segitzen duela nabarmen gelditu zen. Muthiko Alaiak elkarteak bizirik mantentzen duen ohitura berri zen Amaiurren, aurten 500 urte beteko baitira Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zuela. Ekitaldi berezia eta ospetsua izan zen Amaiurko elizan egindakoa, Gaztelu abesbatzaren eta Ensemble de Chirimias-en kantuekin. Neska-mutikoez ere ederki egin zuten beraien lana eta Xubanek legari eta ohiurari, foruei eta askatasunei zin egin zien, *pro libertate patria, gens libera stante*, erranez. Aitzinetik, omenaldia eskaini zitzaen Amaiurko gazteluko orotarriari Erresumako hondar defendatzaileei.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

San Anton egunean zozketatutako aretzea Izpegira

San Anton eguna ospatu zen urtarrilaren 17an Elizondon eta 1867. urtetik egiten den ohiurari eutsiz, zahar etxearen aldeko zozketa ere egin zen. Elizondoko Aroa Uteaga, Ibai Irugarai eta Unai Bertiz eta Elbeteko Itxaso Iturregi izan ziren zenbakiak ateratzeko arduradunak eta lehenbiziko saria, Aspina elkarteak eta Udalak erdibana ordaindutako aretzea, Izpegiko Juan Maiarendako izan zen. Bigarren saria, zeria, 9.476 zenbakiarendako izan zen (Arkupe gozotegian edo plazan saldua); hirugarrena, bi bildots, 5.660 zenbakiarendako (Batzan Ferreterian saldua) eta laugarrena, urdaiazpikoa, 3.873 zenbakiarendako (plazan saldua).

Egin zaitez
ttipi-ttapa ren
harpidedun
(0034) 948 63 54 58

EZKONTZA RAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detarlek eginez gero:
KOTXEKO LOREAK OPARI

14.100€ + IVA + 14.100€ + IVA = 32.200€

14.100€ + IVA + 14.100€ + IVA = 32.200€

14.100€ + IVA + 14.100€ + IVA = 32.200€

14.100€ + IVA + 14.100€ + IVA = 32.200€



Ordoki Industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

Leihoetan merkatuko isolamendu termiko eta akustiko hoberena



Kontraleihoetan modelo ezberdinak lantzen ditugu



betikorekin lan egitearen abantailak:

- 2.200m²-ko instalazioak, Baztan-Bidasoako fabrikanterik haundiena
- Kalitate-Prezio hoberenak
- 15 urtetako esperientzia leihoen munduan
- Makinaria aurreratuenak

ETORRI GURE INSTALAZIOAK IKUSTERA!

SENPERE

GIZARTEA → ITSASONTZIAK ISTRIPUA IZAN DU

Senpereko bikote bat onik atera da Concordiaren istriputik

Salaketa jarriko dute konpainia eta kapitainaren kontra

Franck DOLOSOR

Michel eta Géraldine Degarne Senperen bizi den bikoteak ez du berehala ahantziko beren lehen bidaia itsasontziz. Concordiako zazpigarren estaian ziren beren logelan itsasontziak istripua eta hondoratzen hasiz elarik Toscana eskualdearen ondoan.

Lehenik elgar galdu zuten ihesi joaten ziren 4 200 bidaiarien artean. Gero berriz elgar atxeman zuten eta «zoriona» zer den ikasi dute. «Ez da bizia bezalakorik», diote biek heriotza hurbiletik ikusi baitute. Urean zirelarik amets gaiztoa jasan zuten, hilko zirela ere prentsatu baitzuten. Soinean zituzten jantziekin eta oinutsik heldu ziren lurrerat.

Senpererat heldu dira berriki, eta orain salaketa aurkeztuko dute Ibarrun auzoan bizi eta

duela gutxitik erretiroan diren bi ostalariek. Orain gertatu dena ahantzi nahi dute, baina zaila zaie pentsatzea haiekin bidaiatzen ari ziren jende batzuk zendu eta desagertu direla.

AHT gero eta hurbilago

Bordelen xehetasun gehiago eman dute berriki Lapurdi zeharka lezaken abiada haundiko trenbide berriaz. Gure herria ere hunkitua izanen da eta oraingoz 500 metrako zabalera duen bidea Zaluagaren mendebaldetik pasako da. Xehetasun gehiago ondoko asteetan.

Agur pilotaria

99 urtetan zendu da berriki Albert Etchegaray pilotari haundia eta jendarmea izana. Badira zombait urte alargundu zela baina andrea zendu aitzin balentria ederra egin zuten 70 urteko ez-taiak ospatu baitzituzten! Aintzek gogoan dute oraino pilotari paregabea izan zela. Ez adiorik!



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Inauteriak gainean

Xingar eta arroltze kantatzeko denboraldia hurbiltzen ari zaigu. Duela egun batzuk Thierry Truffaut euskal ohituretan jakitate haundia duenak hitzaldia eman zuen Senperen eta orain gazteek eta zombait herritarrek otsailaren 17an, ortziralarekin, ospatuko diren inauteriak prestatzen dituzte. Egun horretan, 14:00etan eskolen inauteriak egingen dituzte, 18:30ean San Pantzar epaitu eta erreko dute. Ondotik ibilaldia eta musika kontzertuak izanen direlarik Compagnie Mohe in eta Double Jack taldeekin. Tziganoen eta country cajun doinuak eskainiko dituzte. Aste bat lehenago, otsailaren 11n, larunbatarekin, gazteak etxez etxe ibiltzekoak dira kantu eta dantzan. Bertzalde, argazkian Zirikolatz euskal dantza taldeko gazteak ageri dira, 90eko hamarkada hastapenean etxez-etxe ibiltzen zirelarik Hartzaren eta musikarien laguntzarekin.

KULTURA → HATSA ELKARTEAREN EKIMENEZ

Hatsaren poesia bildumarako lanak urtarrilaren 31rako igorri behar dira

Aurten ere euskarazko olerki bilduma osatuko du Halsa elkarte kulturalak. Beti bezala, itxaropen handiz olerkari andanaren lanak espero dituzte: izan idazle atrebitua, haurra edo heldua. Euskaraz idatziak izatea da baldintza bakarra. Testuak urtarrilaren 31rako igorri behar dira helbide huntarat: hatsaelkartea@aol.com Gero, Hatsaren poesiaren eguna eta olerki bildumaren aurkezpena apirilaren 1ean egingen da Larraldean.

Iaz, lehen aldikotz, Olerkarien Eguna, mundu osoan 250 bat oler-

kizale bildu zituen. Aurten Olerkari- en egunaren bigarren edizioa martxoaren 31n iraganen da. Egun hortan, Euskal herri osoan edo bertze edozoin tokitan ere, olerki idazle edo olerkizaleari eskatuko zaie aukera dezan: gune bat, antzoki bat, taberna bat, berdin enparantza bat, bakarrrik edo bertze pertsona batzuekin, maite dituen olerki edo testu poetiko zombaiten aurkezteko.

Partehartzaile bakoitzak, non eta zer ordutan egingen luken bere aurkezpena martxoaren 20rako jakinaz beharko lioke Halsa Elkarteari.

MONTXO OSTALARITZA

Dantzarinetik 2 km-tara

ТАВКО-ДЕНДА
АНЗЛН-БОРДА • УРДАЗУВИ

Егунен икун 10:30etik 02:30era.

MENDIA → BI HERRIETAKO GAZTETXEEK ANTOLATUTA

Presoen aldeko mendi martxa eginen da otsailaren 4an Beratik Sarara

Martxako txartelak borts eurotan eros daitezke

Joana GUERENDIAIN

Presoen aldeko mendi martxa eginen da Bera eta Sararen artean, heldu den otsailaren 4an. Abiatzea 10:00etan eginen da Berako Altzate plazatik. Ondotik gosaria eginen da Gondendiagan (Benta beltza). 14:30 aldera Sarako Gaztetxean hainbat garagardoren jastatzea eginen da eta ondotik bazkaria. 17:00etan *Pilota Beer* herrikoa kiroldegian.

Martxako txartelak salgai dira Katakua ostatuan (Bera) eta Sarako Herriko Etxeko Edantegian, borts eurotan eta otsailaren 2ra arte.

PRESOEN ALDE AFARIA

Egun berean, Saras-katasuna elkarteak presoen aldeko afaria antolatatu du, 20:00etatik goiti. Txartelak salgai dira 20 eurotan Herriko Etxeko Edantegian eta Katakua

ostatuan. Gaua animatzeko Nat eta Watson taldeak izanen dira.

Dantza ikastaldia

Igandean, urtarrilak 29, 15:00etatik landa, Zazpiak Bat dantza taldeak rock ikastaldia proposatu du Lur Berri gelan. Izena emaitan sei

euroko partehartzeagaldina izanen da. Jatekoa eta edatekoa izanen dira. Momentu goxo baten pasatzeko aukera izanen da; beraz, animatu!

Urte berriko zintzur bustitzea

Urtarrilaren 20an auzapezak eta herri kon-

tseiluak zintzur bustitzea antolatzea zuten urte berriaren kariatara. Gonbidatuak ziren herriko langileak, elkarteetako lehendakariak eta herriko bizian parte hartzen dutenak.

Kirol emaitzak

Sarako urtxintzek urtea

ongi hasi dute: urtarrilaren 7an etxean aritu ziren Benejacq-eko taldearen kontra eta 24-20 irabazi zuten. Errugbian galdu egin zuten Saran Kanboko taldearen kontra 11-0.

Kukuxoa haragi salmenta

Heldu den haragi salmenta otsailaren 9an, ostegunarekin, eginen da. Oroitarazten dut idikia dela, 13 kiloko paketa (8 euro/kiloa), eta banatzea zuzenki etxetan egin dela. Erreserbatzeko ahal bezain fite harremanetan sartu: 0632730735 edo *ferme.kukusoasfr.fr*.

Abisua

Otsailaren 12an, Eskola Publikoaren Lagunak elkarteak selauru huste bat antolatu du. Nahi baduzu parte hartu izena eman otsailaren 10a arte. Horren egiteko eskuragarri izanen den inskripzio paper bat beharko da eta igorri helbide honetara: *Les amis de l'Ecole Publique, Plazida, 64310 Sara*.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Errugbiko mus txapelketa

Sarako izarrak bere mus txapelketa antolatu du otsailaren 11n. Inskripzioak egunean berean eginen dira, 13:30etik goiti. Borts euroko partehartzea galde-tua da jokalareri bakoitzeko eta txapelketa 14:00etan hasiko da. Ondotik, 20:00etan, afaria izanen da denei irekia, eta honek 20 euro balio ditu. Afarirako izen emaitzak otsailaren 1a aintzin egin beharko dira, honako zenbakietara deituz: 06.11.83.44.26 edo 06.13.95.12.54.

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

CAFE DE LA MAIRIE
SARA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook

Inoki Alzayut
margoak
Itur-ttapi etxea
Landibar Auzoa
31711
URDAZUBI
T. 659 862 417

BERTIZ

NAFARROAKO GOBERNUA → ENDLARLATSATA ETA DONEZTEBE ARTEKO 27 KM. HARTZEN DITU EGITASMOAK

Bide Berdearen proiektua Udalez Gaindikoa izendatu dute

Lesaka, Igantzi, Sunbilla eta Doneztebetik igarotzen da

TTIPI-TTAPA

Bertziko Turismo Partzuergoak sustatutako Bidasoko Bide Berdea Endarlatsa-Donztebe tartean egokitzea izeneko proiektua udalez gaindikoa izendatzeko arrazoietako bat. Bertzea, azpiegiturak gizartean izanen duen eragina ukitutako udalerrietako herritarrez haratago doala, «azpiegituraren erabil-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Txirrindulariak Endarlatsan, joan den urteko Bide Berdearen Egunean.

luzera du eta lau udalerriz zeharkatzen ditu, Lesaka, Igantzi, Sunbilla eta Doneztebe. Horixe da proiektua udalez gaindikoa izendatzeko arrazoietako bat. Bertzea, azpiegiturak gizartean izanen duen eragina ukitutako udalerrietako herritarrez haratago doala, «azpiegituraren erabil-

tzaileak, trenbide zaharreen dagoeneko abian den zatiren batean gertatzen den moduan, Nafarroako zenbait hiri eta herritatik iristen dira, bai eta beste eskuade batzuetatik ere».

Jardueraren onura publikoa eta gizarte interes arrazoitzeko orduan, Nafarroako Gobernu-

aren ustez, «ekarpen handia egingen dio biztanleriaren talde handi baten gizarte ongizateari, azpiegiturak ahalbidetuko dituen josteta eta kirol jarduerari esker» eta, aldi berean, azpiegiturak «ostalaritzarekin eta landa turismoarekin lotutako jarduerak ekonomikoak ahalbidetuko ditu».

NAFARROA

D ereduan matrikulatzeko manifestua kaleratu da

TTIPI-TTAPA

2012-2013 ikasturterako matrikulazio kanpaina hastera doan honetan, Euskal Kultur Erakundeak, Ikastolen Elkarteak, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak, Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteak, Sortzen Ikasbatuaz elkarteak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak manifestu komuna kale-ratu dute, guraso nafarrek haien umeak D ereduan matrikula ditzaten. Euskara eta kultur aniztasuna zaintzea ere ekologia-aren alde egitea dela da zabaldu nahi duten mezua nagusia.

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa
Arduetza, 12
ETXALAN | 848635454

Xanti Iturbide Almandoz
2004ko otsailaren 23an
VIII. urteurrena.

Mikel Iturbide Matxikote
2007ko libeltzaren 24an
V. urteurrena.

Zuen maitsun eta ametsak
bizirik diraute...
Beti gure gogoan zaituztegun.

Xanti eta Mikelen familia.
Igantzi, 2012ko libeltza.



SORTZEAK

- Kylian Hiriart**, Sarakoa, abenduaren 28an.
- Inar Casares Alarcia**, Lesakakoa, abenduaren 31n.
- Nicolas Alexandru Handaric**, Lesakakoa, abenduaren 27an.
- Enara Fernandez Gutierrez**, Igantziakoa, urtarrilaren 5ean.
- Ilazki Saizar Ezkurra**, Leitzakoa, urtarrilaren 14an.
- Arene Salaberri Bertiz**, Narbartekoa, urtarrilaren 5ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

- Jexus Leonet Perurena**, Aranokoa, urtarrilaren 6an, 80 urte.
- Maria Angela Otxandorena Baleztena**, Doneztebekoa, urtarrilaren 8an, 92 urte.
- Francisco Iturria Altzuri**, Arantzakoa, urtarrilaren 8an, 85 urte.
- Margarita Azpiroz Galzagorri**, Aurtizkoa, urtarrilaren 10ean, 89 urte.
- Francisco Zelaieta Iantzi**, Berakoa, urtarrilaren 16an, 79 urte.
- Juana Ospital Mirande**, Elizondo-Bera, urtarrilaren 15ean, 101 urte.
- Juan Legazkue Bidart**, Iturengoa, urtarrilaren 16an, 81 urte.



Esteban ZABALETA ZABALETA

Leitzan, 2011ko urtarrilaren 15ean
I. URTEURRENA

Urtea pasa da egun argitsu
hura ilundu zitzaigula,
gogorra izan da onartzea
hemen ez zaitugula,
badakigu zauden tokitik
laguntzen diguzula
jakizu zueganako maitasunak
eguna argitzen digula.

Egunen batean berriro elkartuko garen esperantzaz,
ez zaitugu ahaztuko. AMAIA, JON ANDER, ITXARO, UXUE,
GURASOAK, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK.

Gaithera clo magala, zein ikasmina zahala
maitatzen segiko zaituztegi, zuek mendia bezala.

ETXEKOAK

Luis Mari PIKABEA ZUBIETA
Xabier ZUBIETA ERKIZIA
Xabier SARALEGI ALTZATE

V. URTEMUGA | Bera, Arantza, Lesaka

PILOTA → BINAKAKO ETA BANAKAKO TXAPELKETAK

184 bikote Malerrekako txapelketan eta 101 pilotari Bortzirietako banakakoan

Malerrekakoaren 10. edizioa da eta Bortzirietakoaren 11.a

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 8az gerotzik, abian da Malerrekako Binakako Txapelketa, Erreka Elkartek hamargarren urtez antolatu duena, hain zuzen. Benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil, bigarren mailako senior eta elite mailako seniorren kategorietan, guztira 184 bikotek neurtuko dituzte indarrak. Mailaren arabera, partidak

Beran, Lesakan, Donezteben, Iruritan eta Legasan jokatzeko ari dira eta finalak otsailaren 25ean izanen dira Donezteben, azken orduko aldaketarik ez bada.

BORTZIRIETAN BANAKA

Urtarrilaren 13an hasi zen Bortzirietako Banakako hamaikagarren pilota txapelketa eta otsail bukaera edo martxo hasierara arte iraunderen du, orduan jokatu baitira finalak. 101 pilotarik eman dute izena eta bortz kategorietan banatuta ariko dira, A edo B mailan. Ligaxka moduan jokatu da



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aste hauetan, hainbat pilotari gaztetxo ariko dira Bortzirietako eta Malerrekako txapelketetan.

eta aurten lau t'erdiko modalitatean egingen da.

Bortz herritan jokatuko dira partidak: Beran ortziral eta larunbatetan, Igantzin ortziraletan, Lesakan eta Arantzán larunbatetan eta Etxalarren igandetan.

Paxaka txapelketa ere hasia

Laxoa Elkartek hamabigarren urtez antolatutako paxaka txapelketa urtarrilaren 7an abiatu zen. Zortzi hirukotek eman dute izena, zazpi Irurietakoak eta bakarra Oizkoa.

Oizko taldean Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Koldo Mindegia ari dira; Irurita A taldearekin Miguel Garate, Joseba Urtaşun eta Joxe Mari Salaburu; Irurita Brekin Xabier Bazterrika, Cesar Iñarrea eta Xabier Barberena; Irurita Drekin Mikel Ballarena, Jexux Etxenike eta Cesar Sarratea. Taldeok A multzoa osatuko dute.

B multzoan, Irurita E (Oskar Urrutia, Xabier Ripa eta Miguel Angel Iñarrea), Irurita F (Mitxel Etxenike, Iñaki Etxandi eta Jagoba Ramos), Iru-

rita G (Guillermo Etxenike, Iñaki Zabaleta eta Miguel Bidegain) eta Irurita H (Igor Urrutia, Jexux Garate eta Karlos Goikoetxea) lehiatuko dira.

Hiru jardunaldiko ligaxkaren ondotik, multzo bakoitzeko bi lehenbiziko sailkatuak finalerdietan gurutzatuko dira, urtarrilaren 28an edo otsailaren 4an, jokalariek erabakitzen duten egunean. Final handia eta hirugarren posturako partidak berriz, otsailaren 4an edo 11n jokatuko dira Irurietako Arabinabia pilotalekuan.

HERRI KIROLAK → JARDUNALDIK MARTXOAN

Herri Kirol Jokoetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago

Otsailaren 10ean bukatuko da apuntatzeko epea

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko zabalik dago Nafarroako Herri Kirol Jokoetan parte har-

tzeko izena emateko epea, eta otsailaren 10era arte zabalik egonen da.

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuarekin batera urtero antolatzen dituen joko hauek hasi, berriz, martxoaren 4an egingen dira



ARGAZKIA: LEGARRA

Batzango Basaburua taldea joan den urteko herri kirol jokoetan sokatiran.

eta apirilaren 10ean bukatu.

Kirol joko hauetan bi modalitateetako txapelketak jokatzeko dira, sokatira eta proba konbinatua, eta hiru kategoriatan:

kimuak (2000-2001 urteetan jaiotakoak), haurren maila (1998-1999 urteetakoak) eta kadeteen maila (1996-1997 urteetakoak)

Txapelketa hauetan taldeka hartu behar da parte (talde mistoak) eta Institutuak aseguru, garrarioa eta jardunaldiaren gastua bere gain hartzen du.

ERREMONTEA → BURUZ BURUKO TXAPELKETAK

Martiko Urtasunentzat, Orona Ezkurrarentzat

Iruritakoak bigarren urtez irabazi du Martiko torneoa

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezala, Gorka Urtasun iruritarrek irabazi du aurten ere erremonteko Mar-

tiko Saria. Urtarrilaren 6an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zen buruz buruko frontoi laburreko txapelketaren finala eta Iruritakoak 30-22 irabazi zion Julen San Miguel doneztebarrari.

Teoriaren arabera, San Miguelen sarea erabakigarria izan zitekeen, baina ez zen horrela suer-



ARGAZKIA: EUSKAL JAI BERRI FUNDAZIOA
Gorka Urtasun eta Julen San Miguel Martiko Torneoko finalean.

tatu, Urtasunek min gehiago egin baitzuen lehen pilotakadarekin. Gainera, Iruritakoa ongi ibilizen peloteoan eta errebotatu behar izan zuten ere ederki moldatu zuten. San Miguelek tarteka jokaldi bikainak egin zituen, baina beti gibelatik ibili zen.

ORONA MASTERRA

Orona buruz buruko Masterraren final bikainean Koteto Ezkurrak 30-28 irabazi zion Miguel Mari Urrutiari urtarrilaren 7an Hernaniko Galarretan, partida ederra jokatu. Partida osoa kontrolpean eduki zuen Urrutiak eta

beti markagailuan aitzinetik izan zen saldiastarra, 27-26kora arte. Min handia egin zuen Urrutiak sakearekin eta menpean eduki zuen Ezkurra. Azkenean, ordea, Ezkurrak lortu zuen txapela, oraindik ere maisuetan maisu dela erakutsiz.

PILOTA → BAZTANGO ELKARTEA

Txaruta pilota elkarteak gustora 2011n izandako emaitzekin

Hainbat txapel eskuratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Txaruta Pilota Elkarteak kontent gelditu da 2011ko emaitzekin, onak izan baitira.

Nafarroako Kirol Jokoen mailan txapelak irabazi zituen Arkaiz Untxalo buruzburu, eta kimuen B mailan binaka Ariztegi eta Elizondo. Horiez gain, azpitxapelak irabazi zituen Trantxe eta Bego gazteen B mailan, Antso eta Oskoz haurretan eta Albiasu eta Bego kadeteetan. Finalerdiak irabazi zituen Merino eta Gaskue hau-

rreren B mailan, Apeztegia gazteetan eta Zaranton Jauregi helduetan.

Belateko Ligan bortz txapel lortu zituzten: Ariztia eta Etxebere ttikietan, Larralde eta Ariztegi umeetan, Elizondo eta Barrenetxek kimuetan, Irazoki eta Gazteluk haurren B mailan eta Antso eta Oskozek A mailan. Albiasu eta Trantxe azpitxapelak irabazi zituen kadeteetan.

Zizur Nagusiko lau t'erdikoan, Xabi Arraztoa nagusitu zen helduetan eta finalerdiak irabazi zituen Mikel Ariztia, Oier Ariztegi, Enaitz Antso, Iker Espelosin eta Sergio Oskoz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txaruta Pilota Elkarteak ari diren etorkizuneko pilotariak.

Barañaingo txapelketatik txapelekin etorri ziren Ariztia eta Etxebere ttikien mailan eta Albiasu eta Bego kadeteetan. Zaranton eta Jauregi azpitxapelak irabazi zituen helduen kategorian.

Lizarran Enaitz Antso eta Iker Espelosinek irabazi zuten haurretan eta Untxalok gazteetan.

Burlatako Udako Torneoan, Oskoz haurretan eta Apeztegia gazteetan txapelak irabazi zituen. Apeztegiak Abadiñoako txapela ere jantzi zuen. Usurbilgo txapelketan,

helduetan azpitxapelak irabazi zituen Toni Uharte.

Iruztungo txapelketan Enaitz Antso eta Iker Espelosin txapelak irabazi zituen haurren mailan eta Untxalo kadeteetan.

Lazkaon, helduetan txapelak irabazi zituen Gaizka Otxandorena eta Antiguoko txapelketan azpitxapelak irabazi zituen.

Oreteretan, gazteen kategorian txapelak irabazi zituen Joseba Apeztegia.

Gasteizko Txukun Laska txapelketan, Ariztegi irabazi zuen umeetan eta Gaskuek kimue-

tan. Haurretan azpitxapelak irabazi zituen Oskoz.

Donostiako Aste Nagusiko torneoan, Larralde eta Ariztegi txapelak irabazi zituen umeetan, Antso eta Oskoz haurretan eta Untxalo kadeteetan.

Lezoko txapelketan, G. Otxandorenak irabazi zuen helduetan eta J. Apeztegia azpitxapelak irabazi zituen gazteetan.

Bortziritako txapelketan, azkenik, txapela eskuratu zuten Ariztiak eta Etxebere umeen mailan eta Antso eta Espelosinek haurretan.

urtarrilak 26-otsailak 9

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2012.02.04

Diska berria aurkeztuko du Xutik taldeak Lur dantzalekuan

Xutik taldeak diska berria aurkeztuko du otsailaren 4an, gauerditik aitzinera Lur aretoan. Ska eta reggae doinuekin dantzatzeko aukera ederra.

Ospakizunak



ESKUALDEA | 2012.02.04

Santa Ageda bezperan koplakantari aterako dira

Santa Ageda bezperan koplakantari ateratzeko ohitura mantenduko dute Lesakan (argazkian), Beran, Leitzan, Goizuetan, Baztanen...

Ikuskizunak



BERA | 2012.01.29

Asier Kidam-en magia ikusgai izanen da Kultur Etxean

Ricardo Baroja Eskolako Guraso Elkarteak antolatuts Asier Kidam magoak ikuskizuna eskainiko du Kultur Etxean, 17:00etatik aitzinera.

Kultur Etxean 17:00-etan. Antolatzailea: Ricardo Baroja Eskola Publikoko Guraso Elkarteak. Laguntzailea: Kultur Batzordea.

Ikastaroak

LEITZA

Jendaurreko saioak prestatzeko

Otsailaren 10ean «Entrenamendu mentala jendaurreko saioak prestatzeko» saio praktikoa eskainiko du Urko Arozenak 19:00etan Atekbeltz Gaztetxean.

Kontzertuak

ELIZONDO

Xutik taldea Lur dantzalekuan

Otsailaren 4an Xutik taldeak diska berria aurkeztuko du Lur dantzalekuan. 00:30ean hasita. Sarrera: Aitzinetik 6 euro, bertan 8 euro.

Hitzaldia

GOIZUETA

Sare sozialen eragina umeengan

Otsailaren 1ean Guraso Eskolaren lehen saioan sare sozialek umeengan duten eraginaz hitzaldia eskainiko da (15:30-17:00).

ELIZONDO

Intsumisioari buruzko liburuaren aurkezpena

Urtarrilaren 27an *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* liburuaren aurkezpena egingen du Edurne Elizondok Gaztetxean 20:30ean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Urtarrilaren 29an Azpilkua-Atxuela-Alikurruntz-Otsondo-

Erakusketak

LEITZA

Guatemalako argazkiak Peritzan

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateratako argazki erakusketa zabalik da Peritzan.

Ospakizunak

LESAKA

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4ean koplakantari aterako dira ikastolatik.

GOIZUETA

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4ean koplakantari aterako dira 18:00etan bertsolariekin. Gero, afaria Umorean Ona elkartearen.

LEITZA

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4ean koplakantari aterako dira haur eta gazteak, 18:30ean plazatik. Karrapeko pintxo eta edariekin bukatuko da ALKEk antolatutako ekimena.

Inauteriak

SUNBILLA

Karroza desfilea eta aunitz gehiago

Urtarrilaren 27, 28 eta 29an ospatuko dira inauteriak.

ITUREN-AURTITZ-ZUBIETA

Joaldunak harat-honat

Urtarrilaren 30, 31 eta otsailaren 1ean ospatuko dira inauteriak.

ARANTZA

Mozorro zuriak

Otsailaren 9tik 11ra ospatuko dira inauteriak.

IGANTZI

Puxka biltzea

Otsailaren 10 eta 11n ospatuko dira inauteriak.

ARESO

Mozorro besta

Urtarrilaren 27, 28 eta 29an ospatuko dira inauteriak.

ORONOZ-MUGAIRI

Gazteen eskea herrian eta baserrietan

Urtarrilaren 26tik 28ra inauteriak.

LEITZA

Futbito taldearen festa

PROPOSAMENA

ITUREN-AURTITZ-ZUBIETA

Badatoz joaldunak mozorroak uxatzera

Aurtiz, Ituren eta Zubietan joaldunen eta mozorroen harat-honategatik ezagunak dira herri horietako inauteriak eta aurten ere ez dute hutsik egingen. Mozorroek beraien aldrebeskeriak egingen dituzte plazetan, joaldunek uxatu bitartean. Sunbillan, baserri eta karriketako eskearen ondotik, igandeko karrozen desfilea ikusgarria prestatzen ari dira.



Santiago Bidea-Mendi-aldea-Zuaztoi-Azpil-kueta ibilaldia eginen da (08:00).

Otsailaren 5ean Berroeta-Urlegi-Abartan-Olari-Maringo erreka-kanala-Berroeta ibilaldia eginen da (08:00).

LEITZA

Mendiko eski hastapena

Urtarrilaren 28-29an Arette-La Pierre St. Martinera ateraldia antolatu du Mendibil mendi taldeak. Mendiko eskia. Hastapena.

BERA

Labiaga Ttiki taldea Kopakarrirat

Urtarrilaren 29an Kopakarrirat ateraldia antolatu du Labiaga ikastolako Larun Ttiki mendi taldeak. 09:30ean kotxez Lesakaraino.

Presoen aldeko martxa Beratik Sararat

Otsailaren 4an antolatu dute Berako Kaxer-na eta Sarako gaztetxeek. Egun osoko ekitaldiak afariarekin boroblduko dituzte. Xehetasunak 10. eta 49. orrietan.

Zinema

LEITZA

Zinemako saioak

Urtarrilaren 27 eta 29an *Nader y Simin. Una separación* filma.
Otsailaren 3 eta 5an *Eva* filma.
Emanaldiak ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

IGANTZI

Zinema Ziberrean

Urtarrilaren 29an 88 *minuta* filma eskainiko da Ziberrean 19:30ean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak

PAKO ARISTI

JOSE LUIS ZUMETA

Elkar, 2011

Scott Barberena bakarrik dago bere gelan; ahulak ditu hankak, eta ezin du handik mugitu; gainera, aita etxetik betiko joan dela uste du. Bere gelako gauzekin hasiko da orduan tratuan eta denen artean plan bat eginen dute, itsasoratu eta Scotten aitaren bila joateko, Pernambuco. Istorio berezi eta sentibera ondu du Aristik: fantasiara hegan egiten duena, baina oina errealitatek guztiz apartatu gabe; amets gisako denbora-pasa dirudiena, baina hainbat gairi buruz gogoeta egiteko balio duena: hala nola garaile izatea edo derrotatua izatea zer den gizartearen begitan eta zer den benetan; irudimenaren indarra; gaixoaren errealitatea... Hori guztia, betiere, istorio bitxi eta jostagarri baten bitartez, eta bixitasun hori, jostagarritasun hori, azpimarraturik geratzen dira Zumetaren irudi koloretseuei esker. Izan ere, luxu bat da, liburuaren barrenean astista usurbildarraren hainbat koadro etxera eraman ahal izatea.

Musika



Haize berri bat

ETXE

Baga-biga musika ideiak, 2011

Etxe kantariaren hirugarren diskoa *Haize berri bat* da. Etxek orain arteko rock-talde egitura apurtu eta kanta-autorearen moldea hartuta itzuli da. Kantuek hasieran duten euskarrira ekarri ditu Etxe musikariak, beraz, gitarra soil baten laguntzarekin abestutako kantuak dira. Ahotsa gitarra bakarra duela lagun. Gitarra ahots bakarrez lagunduta. Kantuek ezin dute biluziago egon. Bai, *a capela*, baina Etxe kantariak ezinbestekoa du bere ondoan gitarraren erritmikoaren laguntza. Iban Gurrutxaga musikariak egin dizkio gitarra konponketak eta hori bihurtu du bere makulu bakarra. Etxeri haize berrira egindako aldaketak zoriona ekarri dio berriro. Musikaren defentsa beste modu eraginkor batez eraman nahi du. Gutxieneko musika egiturak bete eta alaitu du. Diskoak hamar abesti ditu, sei berri eta aurreko diskoetan sortutako singleei egindako orrazketa biluzia eskainiko zaigu bertezetan.

Internet



Aranzadi Zientzia Elkartearen webgunea

aranzadi-zientziak.org

Aranzadi Zientzia Elkarteak aski webgune interresgarria dauka Internet-en. Alde batetik, azken Berriak edo Aranzadi.tv ikusteko aukera eskaintzen du, baita Agenda ere. Horretaz gain, arloka banatutako jakingarriak ere topatzen ahal dira, hala nola, Giza eta gizarte zientziak (antropologia fisikoa, arkeologia, etnografia); Natur zientziak (botanika, entomologia, herpetologia, mastozoologia, mikologia, ornitologia) edo Lurraren eta espazioaren zientziak (astronomia, espeleologia, geodesia, geologia). Berte atal batzuetan, Elkartearen berri ematen da, edo Munibe Antropologia-Arkeologia eta Munibe Natur Zientziak aldizkariaren datu-baseak begiratzeko modua eskaintzen du, baita bazkide egiteko edo gizarte-proiektuetan parte hartzeko aukera ere. Euskaraz edo gazteleraz kontsultatzen ahal da.

Nire aukera



Modesto ORDOKI
Doneztebeko soinularia

«Musika medio azken hiru urteetan Zamorako herrixka batera joaten naiz»

Soinulari gisara aski Sezaguna da gure inguruan eta orain kenpo kai arte martzialean ere burubelari dabil. «Biak afizio bezala hasi zirenak, ofizio izatera pasatzen ahal dira, kenpon ere klase batzuk ematen baititut». Bata eta bertezarekin denbora libre gehiegirik ez zaio gelditzen eta orduan, «Arantzako baserrian, sortetxean, daukagun baratzeraz» joatea gustatzen zaio. Oporraldian, berriz, «kostaldera joatea gustatzen zait, Saloura eta azken urtean Benidormera». Musikarekin, bitxikeria gisara, «azken hiru urteetan Zamorako Sotillo de Sanabriara ailegatu naiz, 600 km joan eta berte horrenbete bueltan». Heldu den urtean ezkondurik 25 urte beteko dituela aprobetxatuz, «Kanarietara bueltatzea gustatuko litzaidake, ezkonbidaian hantxe izan bainkinen». Musika eta kirolaz aparte, Internet eta zinema ere «hagitz gustukoa» dituela aipatu digu. «Ahal den guztietan eskapadaren bat egiten dut zinera», dio.

ETXEBIZITZAK

salgai

DONEZTEBE. Ogiberri okindegiaren gainean, pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 36m²ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Dena hegoaldera. ☎656 770373.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

BERA. 100 m²ko pisu erreformatua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukalde mobleztatua. Iggailua eta gas naturala ditu. Mobleztatua saldu daiteke. Prezio interesgarria. Konpromisorik gabe erakutsiko da. ☎948 5802929-637 466110.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

LESAKA. Herri erdian apartamentua salgai. Berrria eta aukera oso ona. ☎943 636209/ 605 717999.

ORNOZ-MUGAIRI. 100 m²ko etxebizitza salgai. Mobleztatua. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, urbanizazio pribatuan, lorategi handia, aparkalekuak guztientzako eremuan. 220.000 euro. ☎620 679145.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. Bi pisu salgai, 2 eta 3 logelakoak. Sartzeko prest. 96.000 euro eta 108.000 euro. Aukera paregabea. ☎649 472658.

BURLATA. 80m²ko pisua salgai. Altuera, argitasuna eta bista ederrak. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berritua. Eskola baten ondoan eta trafikorik gabeko karrikan. 180.000 euro negoziagarri. ☎667 454917.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Intzakardi karrikan mobleztatutako pisua errentan emateko. Sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela eta 35 m²ko terraza. ☎699 212421.

DONEZTEBE. Mobleztatutako pisu berria errentan emateko. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 bai-

nugela eta trastelekuarekin. ☎679 568030.

BERA. Bidasoa karrikan etxebizitza errentan emateko. 2 logela eta gara-jea. ☎647 840210.

DANTXARINEA. Etxebizitza errentan emateko, sukalde amerikarra, 2 logela, estudioa, bainugela osoa, terraza, berogailua, tximenea, bista ederrak. ☎659 849570.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

BORTZIRIAK. Bikote gazte bat pisu bila dabil Bortzirietan errentan hartzeko. Mobleztatua ala mobleztatu gabea. ☎675 892903.

LOKALAK/GARAJEAK
errentan eman

LESAKA. Bittiria 20an, 80m²ko lokal komertzia-

la errentan emateko edo salgai. ☎617 936622.

LURRAK/ORUBEAK
errentan hartu

BAZTANen 5.000 m²ko lur saila errentan hartu nahi da baratze bat aitzinerat ateratzeko. ☎646 377080.

LANA
eskariak

Emakumea lanean ariko litzateke. Euskera, frantsesa eta ingelesa dakizkiena eta gida-baimen guztiekin. ☎679 210910.

LANA
eskaintzak

BERA. Ibardingo jatetxe batean lan egiteko jendea behar da. ☎948 630708. Faxa 948 630754.

ZERBITZUAK

zurginak

ARANTZA
Zurgindegia

Kloa zurginak
Nirio zurginak
Eskatu zurginarentzat
komunikatu gabe

Donostia Zurginak
Tel. 948 272011 - 948 580975
Garaia 43720 - ELIZKUNDA

ZERBITZUAK

denetarik

PSIKOANALISTA
Eustulimic eskatu orduz

☎ 948 272011 (ordua)
☎ 948 580975
Garaia Urte 43720 - ELIZKUNDA

MOTORRA

salerosketak

Volswagen California Coach furgoneta salgai. 2.5 TDI. 1999koa. 250.000 kilometro. Berogailua, karrorako bola eta abar. 17.800 euro. ☎629 317086.

Buggy Adly motorra salgai, 125cc. 2006koa. Hargitz egoera onean. Matematikatu eta edozein bidetan ibiltzeko prest. 1.200 euro. ☎626 089153.



BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 43,00 € (=)

Zerri gizena
1,120 € kiloak. (-0,007)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (-0,030)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,49 (=)
1.koa 4,19 (=)
2.koa 3,95 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,55 (=)
1.koa 4,27 (=)
2.koa 4,17 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberrak: 2,91/3,01
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,20/6,90
8-10 kilokoak: 5,00/5,20

Peugeot 306 1.9 TD autoa salgai, NA-AV matrikuladuna. Modu onean. **☎685 794682.**

Rieju first 49cc salgai. Neumatiko berriak eta itv pasatu berriakin. 450 euro. **☎626 089153.**



MOTORRAK
tailerrak



ANIMALIAK
salgai

Baserriko **mastin arrazako zakurkumeak** salgai. Baserriko. Ama ba-

serriko lanetan ona. Ur-tarriletik goiti hartzeko. **☎600 959741.**



DENETARIK
salerosketak

Sarrerako altzaria salgai. **☎677 598564.**



Koltxa berezia salgai. **☎677 598564.**



105x180ko **bi koltxo** salgai. Egoera onean. **☎649 219134.**

Mahaia eta lanpara salgai. **☎677 598564.**



Mahai bat bere aulkia-ekin salgai. **☎948 580853.**

Haritz amerikar eta gezei landareak salgai. **☎948 450888** (deitu eguerdian eta arratsaldetan).

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. **☎659 867287 / 699 461394.**

Losa edo harlauza salgai, makinan pikatua, fatxadetan, espaloitan... paratzeko. **☎608 778489.**

Remolkea salgai. Patrolaren gurpilekin. 750 kilorentzako. **☎629 417078.**

SANTESTEBAN Tailerrak

RENAULT SPIRIT 106 CV 2001 urtekoa - 8.300€	RENAULT DYNAMIQUE 1.4 DCI 130CV Erekinak gabe!!	RENAULT KANGOO DYNAMIQUE 1.5 DCI 105 CV 2007 urtekoa - 9.100€
	ETA GAIKERA: Magneo II Errekin 1.5 DCI 113 CV 3000 € Kangoo Express 1.5 DCI 90 CV Kangoo Ask 1.4 95 CV Suzuki 3 Privilegi 1.7 DCI 130 CV Citroen 1.5 DCI 70 CV - 2009 urtekoa Range Rover 4x4 250 CV	
SUZUKI GRAND VITARA 1.9000 4x4 2007 urtekoa - 17.900€	DONETTERIKO RENAULT-ek KOTZE JA BERRITAN SEKULAKO ERKANTZAK	

Belar bola idorrak salgai. **☎660 393436.**

Gasoliozko **makina jasangailua** salgai, fenwick markakoa. **☎948 452078.**



ORONoz. Egurra xehetua salgai. Paga eta harritza. Etxera eramaten da. **☎676 242520.**

Ehizako eskopeta paraleloa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. **☎619 283278.**

DENETARIK
galdu/aurkituak

BERA. Lumix markako argazki-kamara galdu da. Fundarekin, tripodearekin eta bateriarekin. **☎948 625000.**

Iturendik Mendaur edo Ekaitza aldera 8 GBko **argazki SD txartela** galdu da. **☎644 533469.**

TELEFONO GIDA 2012

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan eta milaka pertsonen irakurriko dute zure anuntzioa.

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, Ttipi-ttapako **TELEFONO GIDA**n aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua.

Publizitatea kontratatzeke azken epea: apirilak 13

☎: 948635458 | e-posta: publi@ttipi.net
Andueta 12, 31760 ETXALAR

t tipi-ttapa

TELEFONO GIDA 2012

t tipi-ttapa

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Donamariako **EIDER BERSTAIN REKARTEK** urteak bete ditu urtarilaren 8an. Zorionak etxeko sorgintxoari. Ama, aita eta Ane.



JON PAGOLA LOPEZ beratarrak 8 urte beteko ditu urtarilaren 27an. Auniz urtez familia guztiaren partetik. Zorionak *motoro*. Muxu haundi bat!



IKER OTXOTOKO BENGOETXEA etxalartarrak urtarilaren 28an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



AINIZE ORTEGO BEOLA beratarrak bi zifrak eskuratu ditu urtarilaren 22an! Zorionak eta 10 muxu haundi osaba-izeba eta lehen-gusinen partetik!



ENERITZ LANZ ORTEGO beratarrak urtarilaren 11n urteak bete ditu. Auniz urtez neskatka! Animo mende laurdenerekin! Muxu bat etxeko partetik



ALOÑA AIORA GOÑI Iturengo printzesak 2 urte bete ditu urtarilaren 13an. Zorionak eta auniz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Xabi, Ander, Oier, Irati eta Oinaten partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu e! Muxuak.




Aurtizko **MIKEL EZKURRA EZKURRA** gure muttiko ttikia haunditzen ari da! Bi urte dagoeneko! Zuk egurra prestatu sua egiteko eta guk berendua egingen dugul! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.




IRAIA eta IZEI ASTIBIA MARTIARENA Legasako bi moxoloei zorionak familiaren partetik, urtarilaren 12an eta 31n urteak beteko dituztelako.



EKHI EZKURRA SANZ sunbildarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak! Eta muxu haundi bat Leitzako familiaren partetik.



Sunbillako **EKHI EZKURRI** zorionak 4 urte beteko dituelako otsailaren 5ean. Ongi pasa eguna eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Ikeritako **ADEI SUBIZAR URROZEK** 2 urte beteko ditu otsailaren 20an. Zorionak Legasako eta Ikeritako familiaren partetik. Ongi pasa eguna, potxolo!




MIKEL ZABALAK 6 urte beteko ditu ibeltzaren 29an. Zorionak gure gizontxoari Leitzako eta Hondarribiako familiaren partetik. Berendu goxo baten zain geldituko gara.




Goizuetako **MANUEL ETXEBERRIA eta MARITXO ELIZALDEK** urtarilaren 19an 60 urte bete dituzte ezkondu zirela. Zorionak eta muxu pila familia guztiaren partetik eta ea orain arte bezala ospatzen dugun beste urte askotan.



Lesakako **LEIRE GARCIAK** 3 urte beteko ditu otsailaren 2an. Ongi pasa zure eguna porroski! Marrubizko eta txokolatzeko muxu pila etxeko guztien partetik.



Nartariko eta Gazteluko **OSKIA, ISMAEL eta LAIENEK** urtarilaren 17, 22 eta 28an urteak beteko dituzte. Zorionak eta ea hiruen artean afari goxo batera gonbidatzen gaituzuen. Zuen guraso eta anai-arrebak.



Beintza-Labaiengo **IBAI ETXEBERRIA GRAJIRENAK** otsailaren 7an urtea beteko du. Zorionak Beintzako eta Urrozko familiaren partetik, eta bereziki aita, ama eta Ainararen partetik. Muxu potolo bat.




Iturengo **AINZANE, EGOITZ eta IKER GOROSTERRAZUK** urteak beteko dituzte urtarilaren 26an eta otsailaren 8an eta 20an. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta ea berendu goxo batera gonbidatzen gaituzuen. Ongi pasa eguna. Muxuak.



EUNATE GASTESE eta ITXARO AIERZA tolosarrek otsailaren 4 eta 24an 2 eta 32 urte egingen dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Leitzatik izeba M^a Josek muxu potolo bat.




Beintzako **ARANTXA GRAJIRENAK eta EZKURRAKO FIDEL GOMEZEK** urtarilaren 10ean 25 urte ezkondu egin zituzten. Zorionak Grajirenatar familia guztiaren partetik, eta muxu eta besarkada haundi bat bientzat.



IKER OSUA CABIDA beratarrak 8 urte bete ditu urtarilaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Aneren partetik. Aupa txapeladun!



ARGIA AGIRRE ARRETXEAK sunbildarrak otsailaren 3an urtea beteko du. Zorionak Sunbillako familia, aita, ama eta bereziki Oier anaia-aren partetik. Ongi pasa eguna eta muxu hauuuuuuuuundi bat denen partetik.



Zorionak Arraizko **LOREA LARRAINZAR GORTARIRI**, 3 urte beteko dituelako urtarilaren 22an. Zure familiaren partetik hiru muxu potolo.




IRA-GAR-KIA aldizkarian interneten telebistan 8 EURO



IRA-GAR-KIA aldizkarian interneten telebistan 8 EURO



IRA-GAR-KIA aldizkarian interneten telebistan 8 EURO



IRA-GAR-KIA aldizkarian interneten telebistan 8 EURO



IRA-GAR-KIA aldizkarian interneten telebistan 8 EURO



Zorionak Arraizko **LOREA LARRAINZAR GORTARIRI**, 3 urte beteko dituelako urtarilaren 22an. Zure familiaren partetik hiru muxu potolo.

IRA-GAR-KIA

aldizkarian interneten telebistan

8 EURO

Tel: 948 635 458

Andogetza 12. 31760 ETXALAR

www.ttipi.net | e-posta: publi@ttipi.net

beian agertu nahi duzu?

↑

www.ttipi.net

4
8



ga ge gi go gu
ikastola gara gu

za ze zi zo zu

osatu zure ikasketak

espero zaitugu!!

AURREMATRIKULAZIO EPEA:
Otsailaren 6tik 13ra

BILERA EGUNAK:
Tantirumairu: otsailak 3, ostirala, 17:00etan
Labiaga: otsailak 6, astelehena
17:00etan (euskaraz) | 18:30etan (gaztelaniaz)

TANTIRUMAIRU IKASTOLA
ARRETXEA, 11
31770 UZDARA
Tel: 948 631 268
Tantirumairu@tantrairuak.eus
www.tantirumairuak.eus

LABIAGA IKASTOLA
Alfonso 13,
31780 BERRI
Tantirumairu: 948 631 272
948 631 610
tantrairu@labiaga.net
www.labiagatikoa.eus





BORTZIRIETAN

Irakaskuntza publikoa

Haur eta Lehen Hezkuntza: otsailaren 6tik 13ra
DBH, Batxilergo eta LH: apirilaren 16tik 27ra



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 948 625 000
<http://irati.pnte.cfnavarra.es/lestakionia/>



LESAKA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
<http://irati.pnte.cfnavarra.es/irain/>

Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
Doan - Integratzailea
Jantoki eta garraio zerbitzuarekin
Teknologi berriez baliatuta
Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan

